



EGAN

1-2

1986

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

Patrocinio: Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa

SUMARIO

	<u>Pág.</u>
TRADUTTORE TRADITORE: Xabier Mendiguren	5
NOR ZEN AITA LIZARRALDE?: J. San Martín	7
C.A.F. MAHN-EN KANTA ETA BERTSO BILDUMA BER- LIN, 1857: P. Urkizu	13
KLASSIKOAK... ETHORKIZUNARI BEGIRA: F. Krutwig ...	85
G. ARESTI ZENAREN LANAK: J. S. M.	93
HASERRE DANTZA: G. Aresti	96

OLERKIAK

BITINA BAT ARRATSALDEAN: G. Aresti	103
ZEZENAK EGUNSENTIAN: G. Aresti	104
POEMAK: Jon Iriarte	105
ERREPIKETAN: Luis Mari Mujika	106
GAITZA: Josu Baez	111
IKUSEZINA: Josu Baez	112
JUSTIZIA KONTU BATETAN: R. Campoamor - J. Iriarte ...	113
ZEZEN LARRUA: S. Espriu - Otsalar	114

KONTU KONTARI

PATU ASMORIK EZ ASMA: BIHAR-ETZIA OSTADAR ZEIN LABEZOMORRO: Jon Iriarte	123
ASTO PORNOGRAFIKOARENA: Feliciano Peláez Arregi ...	135
JUAN SOLDADU: Xabier Gereño	143
ERRAMU TA ERRAMU: Kamifiazpi	149

ADABAKIAK

Elgoibarko auzo izenak: J. S. M.	153
Ez da txoriburukeria: J. S. M.	156
Kaixo!: J. S. M.	157
Asmoz ta Jakitez: J. S. M.	157
Euskaraz hautsi zure marka: J. S. M.	159
Ardoaz: A. Albisu	162

LIBURUAK

MARTIN DE HOYARZABAL - PIARRES DETCHEVERRY ...	165
BITORIANO GANDIAGA	169
EUSKALTZAINDIA. GRAMATIKA BATZORDEA	173
PIO BAROJA	175
JULIAN ALUSTIZA «AZTIRI»	176
ANTONIO ZAVALA	177
G. K. CHESTERTON	179

ANTZERKIA

AMURRAINKARIAK: Beñat da Costa - Julien Pochelu ...	183
---	-----

EGAN

EGAN

SANZ-ENEA UDAL LIBURUTEGIA



1018564

891.69 EGA

1986 1-2

SUPLEMENTO
DE LA REAL SOCIEDAD

Director:

Redacción:

Palacio de la Diputación

El Epoca

Vol. XXXIX - 1986

1986 Abril 1986

M

SUMARIO

No.

TRADITORE TRADITORE: Xabier Mendiguren	5
NOR ZEN AITA LIZARRALDE: J. San Martín	7
G.A.F. MAHINEN KANEA ETA BERTSO BILDUMA BER- LIN, 1887: P. Urkiau	13
KLASIKOAK... ETHORRIZIARI EGOKIA: F. Krutwig	25
G. ARESTI ZENAREN LAMIA: J. S. M.	33
HASERRE DANTZA: G. Aresti	39

OLERTIAK

BITINA BAT ARRATSALDEAN: G. Aresti	53
ZEZENAK EGUNGENTIAN: G. Aresti	55
POEMAK: Jos Mari	57
ERREPRESALIA: Luis Mari	63
GAITZA: Josu Baeza	71
IKUSGAINA: Josu Baeza	73
JUSTIZIA KONTU BATELAN: N. Cangoamar, J. Mari	113
ZEZEN LARRUA: S. Euzko-Olerkari	119

IKUSTU KONTAN

PATU ZEMORIK UZ ARRA: ERREKETA	125
LABEZONORRO: Jos Mari	127
ASTU FOTOGRAFIAZARINA: Feliciano Peláez Arce	133
BIAN SOLDADU: Xabier Garro	141
ERANMU TA ERANMU: Xabier Garro	147

SAKARRIAK

Egoitza aizu testak: J. S. M.	153
Er de txoburkaria: J. S. M.	155
Kahoi: J. S. M.	157
Azma ta Jaber: J. S. M.	159
Burkara hutsi: Josu Mari: J. S. M.	161
Ardeat: A. Ardeat	163

LIBURUAK

MARTIN DE	165
ETORIANO	167
EUSKA	169
PIO BARO	171
JULIAN AL	173
ANTONIO	175
G. X. ORO	177

ANTZERIAK

AMURRABAZA	179
-------------------	-----

Comité de Redacción:

ANGEL LERTXUNDI
 LUIS MICHELENA
 JUAN SAN MARTIN
 ARANTXA URRETAVIZCAYA

TRADUTTORE TRADITTORE

EGAN

«Europar pentsamendu amankomunak itzultzaileen obra da. Itzultzaileak gabe ez legoke Europarik, ez legoke mundu literaturarik. Itzultzaileak gabe nik ez nuke ezagutuko Cervantes eta zuk ere ez Kafka. Itzultzaileak Europerentzat mila bider garrantzitsukoagoak dira Ekropar Parlamentuako diputatuak baino». (Milan Kundera)

Txekiar nobelagile sonatuak egin dituen aitortpen hauek, euskal kulturarentzat, eta edozein kulturarentzat funtsezkoa den auzi baten aurkezurra jartzén gaituzte: itzulpenarenan.

Itzultzaileak, ia historia bera bezain zaharrak izanik, izen txar samarra izan da beti, bazterturik egon da, ezinbesteko gaitz bailitzen, traidore-ahpuarekin eta ia prostituten status berean. Kunderak berak aurrerago dakartzen hitzak aipatzeko «gaizki ordeinduak, gaizki preziatuak, maitatutaik ia iteaz gainera gauza aski uzilargaitzak eskatzen zabalik: beti

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección: Luis Michelena y Juan San Martín

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXXIX* (orden corregido)

Enero-Abril 1986

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETÍN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAÍS

Dirección: Luis Michelena y Juan Santamarina

ISSN 0422-7328. Título Clave: EGAN

Depósito Legal: S. S. 289 - 1958

1985

Gráficas Echeverría - Easo, 47 - San Sebastián 1985

Il Epcas

TRADUTTORE TRADITORE

Xabier Mendiguren

«Europar pentsamendu amankomuna itzultzaileen obra da. Itzultzailerik gabe ez legoke Europarik, ez legoke mundu literaturarik. Itzultzailerik gabe nik ez nuke ezagutuko Cervantes eta zuk ere ez Kafka. Itzultzaileak Europarentzat mila bider garrantzizkoagoak dira Europar Parlamentuko diputatuak baino». (Milan Kundera)

Txekiar nobelagile sonatuak egin dituen aitorten hauek, euskal kulturarentzat, eta edozein kulturarentzat funtsezkoa den auzi baten aurrez-aurre jartzen gaituzte: itzulpenarenean.

Itzultzaileak, ia historia bera bezain zaharrak izanik, izen txar samarra izan du beti, bazterturik egon da, ezinbesteko gaitz bailitzen, traidore-aippurekin eta ia prostituten status berean. Kunderak berak aurrerago dakartzan hitzak aipatzeko «gaizki ordainduak, gaizki preziatuak, maltratatuak izateaz gainera gauza aski uztargaitzak eskatzen zaizkie: beti autorearen parean egotea, eta aldi berean, erabat haren menpean egotea». Horregatik edo eman izan zaie «ezinaren maitale» izena ere.

Zer esan Euskal Herria eta itzultzaileari dagokionean? Usadioz, gurea bezalako herri txiki bati dagokionez, beti izan

gara herri itzultzaile; gaur eguneko euskaldunok, ia definizioz eta derrigorrean gara itzultzaile (euskaratzaile eta erdatzaile). Zer kontzientzi maila du Euskal Herriak arazo honetaz? Handirik ez. Zer egiten du? Ezer gutxi. Duela dozenerdi bat urte Itzultzaile-Eskola bat sortu zuen Euskaltzaindiak eta hauxe da maila publikoan lanean ari den erakunde bakarra, bere kolokatasun, arazo ekonomiko eta guzti. Gainerakoan, oraindik ez dugu Itzultzaileen Federakunde edo Elkarterik, ez dugu itzulpen-politika ofizialik eta gure argitaratzaileak uzkur ageri dira itzulpenari dagokion lekua emateko berekin dituen zama ekonomikoengatik.

Irakurle askoren urdail ahulak ere ez omen daude itzultzo liburuaren euskara trinkoa liseritzeko. Falta ditugunak aipatzen hasi garenez gero, oraindik ez dugu zinpeko itzultzaile eta adierazlerik ere. Eta txarrena, oraindik erakunde publiko eta pribatu askotan itzulpen-kalitatearekiko sentiberatasun apurrik ez dago eta berdin izaten zaie zerbait euskaraz jartzea, gaztelaniaren parean: zenbat eta desberdinagoa gaztelaniarekiko hainbat hobe.

Ikuspegi hits eta kezkarri honen aurrean, ez dugu ukatuko aurrera ez goazenik, administrazio-mailan eta komunikabideen inguruan itzulpen-mundu bat sortzen ari ez denik, baina falta dena asko dela ozenki aitortu beharra dago.

Nahi badugu eta ez, euskararen homologazioa itzulpenaren froga gainditzetik igaroko da. Gure literatura eta kultura ez dira iritsiko gara betera zubi honetatik izan ezik. Honetarako behar den oinегitura ez sortzea itsukeria tamalgarria da.

Sartu gara European ekonomiari dagokionean, baina euskara eta euskal kulturari oraindik bide luze samarra geratzen zaie, Kunderak arrazoi badu behintzat.

NOR ZEN AITA LIZARRALDE?

J. San Martín

Euskal kultura ere askok uste baino konplexoagoa da, eta ximplekerietan eroriaz eta gainera iraultzaren izenean, ez da harritzekoa errurik gabeen lepora zigorra joatea. Igaz horrelako zerbait gertatu zen Zaldibiako herrian, bere gogo guziarekin herriaren alde bizia eman zuen bat nabarmen agertzeko, lehendik zeudenen irudiak kendu. Han apenas egin zen ezertariko bereizkuntzarik, baina nere eritzi apalean era askotara ematen da herriaren alde bizia, eta uste horrekin borondaterik handienarekin ibili zen Fr. Jose Adriano Lizarralde zaldibiarrarena ere baztertu zen. Non mina, hara mihina. Eta benetan mingarria izan zen neretzat holako pertsonaia bat baztertzea. Herri bateko Udaletxea baino maila goragoa merezi zuen gizona bere sorterrian baztertu zen.

Aita Lizarraldekin batean baziren beste batzuk ere, baina nik hura nuen gogokoen beragandik jaso nituen ikasbideegatik. Harrigarria badirudi ere, ondoko lerroen bidez eman-go dut nondikakoa nuen bere ezagutza eta maisutza.

* * *

Haurtzarotik nekarren naturaminak oso gazterik eraman ninduan mendizaletasunera eta kirol honen bidez Euskal He-

rria ezagutzera. Herriz-herri eta mendiz-mendi, igande eta bestelako jaietan, ahal nuen guzian, neretzat ez zegoen gauza ederragorik mendiak eta herriak ezagutzea baino. Hortarako bazen eibartarron artean lehenagotik zetorren zaletasunik eta adinekoengandik kontseiluak eta gidaritzza ez ezik, maiz zahar eta gazte elkarrekin ibiltzen ginen. Horietako bat zen Indaleki Ojanguren fotografo ospetsua, zeinegandik ikasi nituen gure historiako pertsonaia askoren lehen berriak. Guda bukatzetik laster zen eta gure herri honen nortasunezkoak ziren gauzetaz zerbait jakiteko ez zegoen beste biderik.

Ojanguren, Marzelino Barrutia «Karo», Eleuterio Murua «Eulete» eta beste zenbaitekin iritsi nintzen lehen aldiz 1941ean Urbiako zelaira Aizkorrira igotzeko asmoz.

Donostia, Bilbo, Tolosa eta Eibar izango ziren urte haretan mendizale talde tipi batzuk baizik ez zituztenak. Geroago etorriko zen mendizaletasunaren hazkuntza, herriz herri ugartitu zena eta gehientsuek erromeria giroz hartu. Baina gure hastapenetan ez zen horrelakorik. Gu, bakartiar, isilik, inguruak begiz miakatzuz, harriak zein landareak izenez eta izanez ezagutu guran..., bidez bide aurkitzen genituen iturrietan ur txarrak, onak eta hobeak bereizten ikasi eta mokaua jaten gelditzen ginen une berean inturrietako orbelak ken, garbituz eta txukunduz. Gaur egungo pista-biderik ez zen, eta herrietara autoz iristeko aukerarik ere ez. Bizpahiru lagun elkaturik, trenez eta lineako autobusez ahal genituen kominazioak eginaz heltzen ginen mendi barrenen inguruetara, oinez ikaragarritzko ibilaldiak egiteko. Urtean zehar, zenbait aldiz, hogeii edo hogetahamar laguneko taldeak autobusa edo kamioia (kamioiok hortarako bankoz hornitzen genituen) kontratuz antolatzen genuen urrutiko mendiren batera eskursioz joateko. Urrutitasun hori oso erlatiboa zen. Urruti bai ziren egun berean kominazio normalez iritsi ezinezko tokiak. Oñatin bertan Aloña, Butraitz eta Gaboño ziren Eibartik egun berean doi doi osterara egin ahalezkoak; ez ordea Aizkorri eta gutiago Aralar.

Elolako lepotik lehen aldiz Urbia ikusteaz zeharo txunditurik gelditu nintzen. Larradi zabal eta eder hura altura

hartan eta haitz zuri handiagoen babespean, haize garbiz eguzkitan ardi eta behor taldeak, isilaren barean zintzarrien zurrumurrua baizik ez. Leku zoragarria! Haitzen barrenean saroiak eta erdialdea zelai. Eta, han, zelaiaren erdian bertan mendizale eta artzaien ostatua. Handik hurbil, gaintxo batean, ermita.

Ermita horren sortze historiaz, Ojangurenen ahotik izan nuen Aita Lizarralderen lehen berria. Gure mendizale talde haiek, eibartar jatorrenetan ohi bezala, gehiengoak heterodoxoak hornitzen zuten eta heterodoxo artean bertan Heterogeneotasuna nabaritzen zen. Hala ere, han, holako ermitarekin aurkitzeak harridura pozgarria sortzen zigen. Inork esan gabe ere bagenekien gizonaren beharrak ogiz bakarrik ez zirela asetzen eta miretsiz ikusten genuen ermita hura, zeren paisajea ederra izanik ere Urbia basamortua bezala zen. Jabetzen ginen inguru haietako artzaiei zer nolako mesedea egin zioten ermita hura eraikitzea asmatu zutenek. Gogoarentzako babesa ez bait da guti paraje aparteko haietan. Horregatik heldu ginen Aita Lizarralde mirestera, batez ere Ojangurenek kontatzean asmo hutsetik laguntza eskean hasiz, ermita eraiki ez ezik, hura apaintzeko laguntzen artean hartu zuela gure herriko- seme genuen Zuloaga pintorearen lauki bat ere, Andra Mariaren erretratoa. Baina ekintzetarik bereziena, artzainak mendi goietan zeuden garaian igandero meza ematera joatea.

Ojangurenek asko tratatu zuen Aita Lizarralde, estimu handian zuen eta geroko egun batean berak ateratako argazki batean erakutsi zidan: betondo pentsakordun fraile buru-motza, okotz aski handi eda sudurra neurritz; itxuraz, gorputzez ez hain sendoa, aldiz bai gogoz.

Artzaiekin arduratzeaz gainera, horien bizitzazko berriak jasotzen ere lan ederrik egin zuen, *Anuario de Eusko-Folkóre*-ko lehen tomoetan ikus ditzagunez.

Gure artean, ez gure historiarik eta ez gure arterik erakusten ez zenean, gai horien azterketan aritu zen A. Lizarralde. Ni neu gai horietan sartu nintzenean, neuk bakarrik da-

kit bere iker lanak zenbat lagundu zidaten. *Andra Mari* deitu liburuen egilea bai zen Aita Lizarralde. Katalogatze iker-lanez Gipuzkoako tomoa egin zuen lehenik eta Bizkaikoa gero. Arabarekin jarraitzeko asmoa omen zuen, baina osasunak ez zion lagundu eta hura burutu baino lehen zendu zen. Katalogo horietan Erdi Aroaren azken parteko imajinak estiloz zehaztu zituen bere begi zoliak. Hitzaurreetan adierazten duenez, hortarako arauak finkatze iturrietarako non onarritzen zen erakutsiz. Eta, era berean, gure herritar artea imajinagintzan zer zen erakusten digu. Eta, hori, Lizarralderen lan bat baizik ez zen. Haren obra ezagutzeko, liburuez gainera aldizkari eta omenaldi liburuak jarraitu beharra dugu. Egin zuen guziak du bere garrantzia, ikerlaria halakoa zenez. Jakintzaz hornitua eta adimen zorrotzekoa. Artxihoak ondo miakatzen zituen eta frutu ederrik utzi ziguna.

Arestian adierazi dugunez, historia gaietan ere ez zen makala. Izan ere, Karmelo Etxegarairen hitzaurrez argitaratu zuen Azpeitiko Komentuari buruzko lan sakonak Academia de la Historia-ko kidea izateko ateak ideki zizkion.

Euskarak ez zuen garai hartan oraingo osperik, baina *Aranzazu* aldizkariaren zuzendaria izan zenez, sorreratik bertatik elebidun egin zuen eta hala bultzatu nahiak eraman zuen berberak ere zenbait euskarazko artikulua idaztera. Artikuluak ez ezik, euskarazko ipui bat ere bai.

Arantzazuko historiaz gainera, Oñatiko Unibertsitate zaharrari buruz ezer badakigu ere berari esker da, zeren *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate* deritzan liburuaren egilea bait da. Tolosako Lopez-Mendizabalenean 1930ean argitaratua. Eta inork ezin uka beste lan askoren iturri izan ez denik. Azken urteotan, Luis S. Granjel eta J. L. Goti ederki baliatu dira Salamanca eta Euskal Herriko Unibertsitatean Medizinarekin Historia Sailean, zeren Lizarralderen obran azaltzen bai dira XVI. mendearen azkenaldera Oñatiko Medizina Fakultatean zer eta nortzuk irakasten zuten. Hara hor, Brocar-ek 1496an Iruñean argitaratu zuen inkunabilearen ondotik Lizarralderen lanera jo beharra egun Euskal Herriko Unibertsitatean.

Benetan, pertsonaia interesantea zen Fr. Jose Adriano Lizarralde, 1884an Zaldibian jaioa. Bere sorterriko Udaletxean Honbrados Oñatibiak pintatutako erretratoa dute. A. Lizarralderen lanak ezaguturik, ohore murrizta iduritzen zitzaidan bere herrian holako lauki soil bat oroitzapenez. Historian, artean eta etnografian egin zituen iker lan bikain haien ordainez eta ondoko belaunaldiek eredutzat har zezaten, bere sorterrian monumentu bat eraiki eta Diputazio jauregian artista ospetsuren bati eraginiko laukia jarriko nizekion hori nere esku balego. Baina, hara hor, alderantzizko gertakaria, jaiotzaren mendeurrenean bere laukia kendu eta sotora baztertu. Hori izan da A. Lizarralderi eman zaion ordaina. Frailea omen zen. Batzuen ustezko libertatean, beraiek agindu behar dute besteak zer izan.

Hau da gure integrismoaren paradoja: komunista polakoak harro Koperniko-rekin, eta hemen, inkisizioaren aurka mintzatuz eta joera bera bultzatuz.

A. Lizarralde gizajoa 1935ean Bilbon hil zen, bere fedea-rekin eta naturalitate guziz. Nork daki biziaz iraun bazuen martiri gisan ez ote zen hilko, zeren martxa honetan gillotinarenean aiztoa zorrotzen ere hasiko zaizkigu.

Baina, gizona bere fruetatik ezagutzen da, eta Aita Lizarralderenak hor daude guzian probetxurako, bereziki Euskal Herriaren kulturarako.

Herriagatik bizia ematea hainakoa ez ote herriarentzat bidezkoa?

C.A.F. MAHN-en
KANTA ETA BERTSO BILDUMA
BERLIN, 1857

Parisen 1857. urtean F. Michelek bere liburu ospetsu bat «Le Pays Basque...»¹ deitua argitaratzen zuen bitartean, urte berean Berlinen C. A. F. Mahn doktorrak beste bat plaza-ratzen zuen titulu honekin:

«DENKMAELER / der Baskischen Sprache. / Mit einer Einleitung, / welche von dem Studium der Baskischen / Sprache handelt und zugleich eine / Beschreibung und Charakteristik / der selben enthaelt, / herausgegeben von C.A.F.MAHN. Berlin, 1857.»

Alegia, euskarari buruzko azterketa eta bere literaturaz antologia bat aurkeztzen zuen. Bertan, sarrerako orrialde batzutan, Vinsonek frantsesera itzuli zituenetan², Humboldt, Larramendi, Harriet, Lécluse, d'Abbadie eta Chaho, Lardizabalen gramatika eta hiztegiak aipatzen dira beste gauzen artean.

Euskarari buruz egiten den azterketak 56 orrialde ditu, eta literatur antologiak 80.

1. MICHEL, F.: Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature eta sa musique. Paris, 1857.

2. VINSON, J.: Monuments de la langue basque. Introduction. RIEV, XIII, 562-568.orr.

Charles August Friedrich Mahn, Geller-feld-en Alemanian, jaio zen 1802.urtean irailaren 9an, eta Steglitz-en 1887.ean urtarrilaren 26 an hil. Bopp eta Scheicher-tarren eskola positibistaren partaide eta Humboldt-en jarratzaile Berlin-eko hizkuntza bizi-en katedran izan zen, eta antza «Romanische Philologie» deituraren asmatzaile lehena da. Trobadoreen idazlanei buruz argitaratu zuen liburu aski, hala nola: Die Werke der Troubadours (Berlin, 1846-82), Gedichte der Troubadours (1858-68), Ueber die epische Poesie der Provençalen (1874), eta abar luze bat, azterketa filologiko ugari emanaz.

Ipar eta hego euskal herrietatik bidai bat egin zuenean euskaraz arduratu zen, noski, ohar anitz hartuz bai hizkuntzari zegozkionak bai eta testo zahar mordo bat ere bilduz. Hauen artean Axularren «Gueroco guero»-ren ale bat bereganatu zuen, egun Berlineko herri liburutegian dagoena, hala nola Vieuxville-ren «Guristinoen doctrina laburra...» Baionan 1731.ean argitaratutakoaz gelditzen den ale bakarra.

Beraz, bere ibiladitxoan aurkitutako liburu, poema, kantu eta bertsoekin aipatu dugun antologia osatu zuen. Bertako testo zerrenda hauxe duzu:

I, II, III. Leizarragaren Testamentu Berritik hartuak.

IV. Bonapartek Londresen 1857.ean euskalki ezberdinetan argitaratu zuen ereilearen parabola.

V. «Gueroco Guero»-ren zati bat.

VI. Alexandroren Izkundea bere eritasunean bere Adisquide ta sendaguillai. Ex Quinto Curtio lib. III. cap. V.

VII. Catilinen Izketa erreguzcoa bere Soldaduai. Ex Salustio.

VIII. Ciceronen I. a Izketa. Batzaarreen eguiña Catilinen contra. Cicer. Orat. I. in Cati. in Sen.

IX. Ciceronen Izketa II. a Catilinen contra.

X. Germanicoren Izkundea Soldadu machinatuai. Ex Tacito Anal. lib. I.

XI. Scipionen Izqueta Nagusi gaste bati. Ex Tito-Libio. Lib. XXVIII.

XII. Gaiztoen viotzac zauritzen ditu barreneco arrac. Ex Cicer.

XIII. Falisco Maisuaren Billauqueria. Ex Tito-Libio.

XIV. Document aus dem VI. Jahrhundert. Andramendiko idaztizuna.

XV. Document aus dem VIII. Jahrhundert. Andramediko idaztizuna.

XVI. etik aurrerakoak dira guk hemen bildu ditugunak, Vinsonek moldiztegiratuak ziren 250 liburutaz dioen arabera «sont-ils devenus très rares»³ oso ezezagunak, batzu bederen, bihurtu direla uste baitugu, bertan agertzen diren bertso eta kantuek, «exhaustiboak» izaten saiatu diren Euskal Baladak⁴ liburuaren egileek ez baitituzte aipatzen ere.

Hogei kantu eta bertso horiek gutxi gora behera honela banatuko genituzke: Amodiozkoak sei, gerra eta politikazkoak lau, Ardoarenak bost, Eleizakoak bi eta Bestelakoak hiru.

Ondoren doazkizu, bada, irakurle, kantu eta bertsoen transkripzioak zeukaten grafia errespetatuz, bai balada, erromantze, khantore, bertso zahar eta berrien biltzaile eta ikerleentzat, bai literaturzale ororentzat interesgarri eta gustokoak izango direlakoan.

Patri Urkizu

Lezon, 1985, azaroak 13

3. VINSON, J.: Le docteur Mahn et la langue basque. RIEV, XIII. 561.orr.

4. LAKARRA, J. & BIGURI, K. & URGELL, B.: Euskal Baladak, antologia eta azterketa. Donostia, 1983.

I(XVI) ALTBASKISCHES LIED

1	Lelo! il Lelo; Lelo! il Lelo; Leloa Zarac (Var. Igarat) Il Leloa.	6	Lecu yronean gagozanean (V. gagozanian) Nor berac (V. noc bera) sen- Dau gogoia. [do]
2	Romaco aronac (V. armaac) Aleguin, eta Vizcayac daroa (V. doroa) Cansoa (V. zansoa)	7	Bildurric guichi Arma bardinas Oramaya zu (V. su) Guexoa (V. guixoa).
3	Octaviano Munduco Jauna Lecobidy Vizcaycoa.	8	Soyac (V. soya) gogorrac Badirituis Narru bilosta (V. biloxa) Surboa.
4	Ichasotatic (V. ychasotati) Eta leorrez Ymini deuscu Molsoa.	9	Bost urteco Egun gabean Gueldi bagaric Bochoa (V. pochoa).
5	Leor celayac Bereac dira Mendi tantayac leusoac.	10	Gureco bat Il badaguyan Bost amarren Galdua (V. galdoa).

11

Aec anys ta
 Gu (V. guc) guichitaya
 Azquen (V. asguin) indugu
 Lalboa.

12

Gueure lurrean
 Ta aen errian
 Biroch ain baten
 Zamoaa.

13

Ecín gueyago.
 (Lo demás falta porque está
 roto el pael) (sic).

14

Tiber lecuá
 Gueldico zabal
 Uchin tamayo
 Grandoia.

15

Falta porque está roto el pa-
 pel (sic).

16

Andi arichac (V. aristac)
 Guesto (V. gueisto) syndoaz
 Betigo (V. betico) naiaz
 Nardoa (V. narraca)¹.

1. Ikus barianteak eta frantses itzulpena in: F. Michel: Le Pays Basque... Paris, 1857, 231.orr.

II(XVII) ALTABIZCARRACO CANTUA

1

Oihu bat aditua izan da
Escualdunen mendien artetic,
Eta etheco jaunac, bere athearen aiticinean chutic,
Ideki tu beharriac, eta erran du: «Nor da hor? Cer nahi
[dautet?]
Eta chacurra, bere nausiaren oinetan lo zaguena,
Altchatu da, eta carrasiz Altabizcarren inguruac bethe ditu.

2

Ibañetaren lephoan harabotz bat agertcen da,
Hurbiltcen da, arrhocac ezker eta escuin jotcen dituelaric;
Hori da urrundic heldu den armada baten burruma.
Mendien capetetaric guriec erepuesta eman diote;
Bere tuten seinua adiaraci dute,
Eta etheco jaunac bere dardac chorrochten du.

3

Heldu dira! heldu dira! cer lantzazco sasia!
Nola cer nahi colorezco banderac heyen erdian agertcen diren!
Cer simistac atheratcen diren heyen armetaric!
Cembat dira? haurra, condatzac ongi!
Bat, biga, hirur, laur, bortz, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, ha-
[mar, hameca, hamabi,
Hamahirur, hamalaur, hamabortz, hamasei, hamazazpi, heme-
[zortzi, hemeretzi, hogoi.

Hogoi eta millaca oraino
 Heyen condatcea demboraren galtcea liteke.
 Hurbil ditzagun gure beso zailac, errhotic athera ditzagun
 [arroca horiec,
 Botha ditzagun mendiaren petharra behera,
 Heyen buruen gaineraino;
 Leher ditzagun, herioaz jo ditzagun.

5

Cer nahi zuten gure mendietaric norteco gizon horiec?
 Certaco jin dira gure bakiaren nahastera?
 Jaungoicoac mendiac eguin dituenean nahi izan du hec gizo-
 [nec ez pasatcea.
 Bainan arrhocac biribilcolica erortcen dira, tropac lehertcen
 [dituzte.
 Odola churrutan badoa, haragi puscac dardaran daude.
 Oh! cembat hezur carrascathuac! cer odolezco itsasoa!

6

Escapa! escapa! indar eta zaldi dituzuenac.
 Escapa hadi, Carlomano errege, hire luma beltzekin eta hire
 [capa gorriarekin;
 Hire iloba maitea, Errolan zangarra, hantchet hila dago.
 Bere zangarthasuna beretaco eztu izan.
 Eta orai, Escualdunac, utz ditzagun arrhoca horiec,
 Jauts giten fite, igor ditzagun gure dardac escapatcen dire-
 [nen contra.

Badoadi! badoadi! non da bada lantzazco sasi hura?
 Non dira heyen erdian agerri ciren cer nahi colozezco ban-
 [dera hec?
 Ezta gehiago simistaric atheratcen heyen arma odolez be-
 [thetatic.
 Cembat dira? Haurra, condatzac ongi!
 Hogoi, hemeretzi, hemezortzi, hamazazpi, hamasei, hamabortz,
 hamalaur, hamahirur,
 Hamabi, hameca, hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei, bortz,
 laur, hirur, biga, bat.

Bat! ezta bihiric agertcen gehiago.
 Akhabo da! Etcheco jauna, joaiten ahal cira zure chacurra-
 [rekin
 Zure emaztearen eta zure haurren besarcacera,
 Zure darden garbitcera eta altchatcera zure tutekin, eta gerc
 [heyen gainean etzatera eta logitera
 Gabaz, arrhanoac joanen dira haragi pusca lehurtu horien
 [jatera
 Eta hezur horiec oro churituco dira eternitatean².

2. Ikus F. Michel: aip. lib., 236.orr.

III(XVIII). FRAGMENT AUS EINEM KRIEGLIEDE,
BETREFFEND EINEN KAMPF ZWISCHEN DEN
VIZCAYERN UND NAVARRESEN IM JAHRE 1322

Mila urte ygaro ta
Ura vere videan;
Guipuzcoarrac sartu dira
Gatzeluco echean,
Nafarroquin batu dira
Beotibaren pelean³

3. Ikus barianteak eta gatzelaniazko itzulpena in: L. Michelena: Textos arcaicos vascos. Madrid, 1964, 66.orr.

IV(XXI). GABONECO CANTIA VIZCAITAR GUZTIENTZAT,
ESCALDUN EMACUME BATEC ATERIA 1819.GARREN
URTIAN ABANDOCO ELEXATIAN

Sarrerria

Vizcaitar sendo
viotz andicuaç,
iños macurtu ezdiran
leial, ta senduac!
Izan zara bai beti
garbi, ta cintzuac;
ez zaitube mempetu;
fede bagacuac.

ZORCICUA.

1

Urte guztietaco
betico Lelua,
da atera biarra
Gabon Zortzicua.
Aimbeste cantau dogu
juan dan urtetan,
ce, ez daquit cer esan
gaberdi onetan.

Pozgarria.

Arin, arin Vizcaitarrac,
guazan guztioç Belena:
An jaio da gueure jauna.
Angueruben Erregia
baita bere Guizonena.
gure catia guztiac
urratzera datorrena.

2

Oraindiño bere nic
gueratu nai ez dot,
Cerchubait asmau бага
gaur baldin albadot.
Vizcajac emongo deust
bai materijala;
izan dalaco beti
sendo, ta leijala.

Arin, arin, etc.

3

Augusto Erromaco
Emperadoriac
nai cituban mempetu
Vizcaico gentiac;
baña euren indarrac
ondo ezaguturic
igues eraguin eutsén
Vizcaico lurretic.

4

Alperric gura eban
Anibal andijac,
ecer ezetan euqui
Vizcaico mendijac:
Beste Gaztelu бага
gueure basuetan
coldarturic lotu zan
ta ondo benetan.

5

Bere gente arrotza
noc daique sinistu,
euscaldunac ebeela
aimbeste lotsatu?
Izanic escubete
Vizcaico gentia
bildurrez bete eben
Erroma guztia.

Zergatic derichazu
aimbeste neque lan
gure erri onetan
orduban artu zan?
Gordetearren sintzoro
Jesusen leguia,
gure Foru garbijac;
eta eusqueria.

7

Erroma izugarri
Fede bagacuac
nai euscuzan ecarri
Jangoico falsuac.
Ezarri buztarrija
gueure idunetan
sartuteco Vizcailja
Legue barrijetan.

8

Gure Aasaba onac
au ezaguturic,
iños macurtu ez eben
iñori bururic.
Alcar ondo arturic
dinue, lenago
il senar ta emazte
azpiratu baño.

9

Adanegandic ona
cinuen guc dogu
Jaungoico bat bacarra
beti ezagutu.
Ez dogu bada orain
bezteric autuco,
bera gaitic vizitza
guc dogu emongo.

10

Esan descube sarri
 Igarla Santubac
 bete biar dabeela
 promes, ta aguindubac.
 Guc icharoten dogu
 Mesias justuba,
 beti eguingo dogu
 bere aguinduba.

11

Icharopen onegaz
 Gure Gurasuac,
 igaroten cituben
 guzia-aldi osuac:
 neque gogorren beian
 baña sendo beti
 biar bazan vicitza
 emon Jesus gaitic.

12

Cesar Agustoc eban
 ondo ezagutu
 Vizcaitarren asmua
 eta eban antu,
 baquia esquintia
 bazter chiqui oni
 beragaz izateco
 adisquide beti.

13

Baquia zabaldu zan
 bazter guztietan,
 eta jaijo zan Jesus
 laster era atan:
 Belengo escapian
 abereen artian.
 Abenduco illaren
 ogueta bostian.

14

Ce poza Vizcaitarrac
aguertu zanian
Izar argui eder au
Illumpe artian.
Ez ciran azquenengo
Belena elduten
Seinchubaren aurrian
dira auspaztuten.

15

Derichat naguala
ni orain entzuten
Vizcaitarrac orduban
cer eben esaten.
Jauna esango eben
ara emen gatoz gu
geure Jaun, ta jaubia
nai dogu ezagutu.

16

Emen gaucazuz bada
Vizcaitar leijalac
izan arren zu baga
ezer ez, ta argalac;
zure languntasunaz
goitu ditubenac
gente errutsu, azcor,
ta itzalsubenac.

17

Izan zaitetz zu orain
gure aguintari,
ez dogu obeiduco
iñoz guc besteri.
Zara zu gure Jauna,
ta jaube bacarra,
ez gara macurtuco
zu gueugaz bazara.

18

Nun dogu Vizcaitarrac
orduco fedia?
Nun guere garbitasun
eta sinistia?
Orain argaldu dira
Alaco vijotzac
guizonac emeturic
dirudije motzac.

19

Lotsatu biar gueunque
gomutaz bacarric
ez daguala orain
alaco guizonic.
Viztu gure fedia
vijotzac sendotu
ta gauza guztietan
Jaincua billatu.

20

Baña ondo bestera
da orain jazoten
Jai santu andi onec
dira igaroten.
Taberna zocuetan
jocuan sarturic,
eta duaz echera
ondo moscorturic.

21

Echian eldu eta
an bere ez baqueric,
emazte ta umiac
iguesi echetic.
Oraingo Gabonetan
auda icusten dana,
Onetara eldu da
gure itsumena.

Vizcaico ezaugarrija
 len zan Lauburuba
 orain esaten jaco
 Curutze Santuba.
 Izurten zan odola
 au ez galtziarren
 orain salduten dabe
 sarri trago baten.

Gure vici moduba
 balebe ikusico
 Judegu, ta Heregiac,
 cer leuque esango?
 Dira, esango leuque,
 Jesusen Semiac,
 ala Gentiltzar gueisto
 ta fede baguiac.

Caridadia dago
 guztiz otzituric:
 Ondamuba ugari
 iñun ez baqueric.
 Jesusen Escolia
 ondo jacu aztu
 bideric nasajena
 nai dogu jarraitu.

Gure Asaba zarrac
 viztu al baleitez,
 semetzat ezagutu
 naico ez guinduquez.
 Lotsaz ez leuque naico
 autu gu umetzat
 ez badoguz jarraitzen
 euren lengo oñatzac.

26

Ya bada Euscaldunac
 esnatu gaitian,
 gabizan beti zuzen
 ta sendo Fedian.
 Gueure vizi moduba
 zuzendu bagaric
 ez dogu icusico
 iñoz gauza onic.

27

Alan eguin ezquero
 Josec, ta Marijac,
 izanic Jesusentzat
 bitarteco andijac;
 jarechico deuscubez
 mesede ugarijac;
 pozez beteco dira
 Vizcaino errijac.

28

Gure Erregue onac
 Ta emazte cintzuac
 laztanduco ditube
 Vizcaico auzuac.
 Eurac izango dira
 gueure Gurasuac
 ta zainduco descubez
 osoro Forubac⁴.

4. Badu Iztuetak (1767-1845) bertso antzekorik ere. Ikus: Iztue-
 ta'ren Olerkiak. Gasteiz, 1978, 138.orr.

V(XXII). MARQUINA, XEMEIN TA ECHEVARRIC IRURAC
BAT AGUR DEUTSE EGUITEN CONSTITUZINOECO

DAMIARI. ZORTZICUA

1

Nos bait biar guenduzan
viotzac ascatu
Lengo illuntasunac
pozagas arguitu.
Catigarijo gogor
iru urtecu
Ez da señaie baga
alan istecua

2

Neure adisquide on
alcarri eutsijac
Igaro badituguz
garratz ta gacijac;
Alcarregaz igaro
daiguzan gozuac
Asi bada iminten
mai ta vasuac.

3

Ez izanic Marquiñan
voluntarijoric
Xemein ta Echevarrin
legue barricoric;
Orregaitic guztijoc
gaur umore onic
Gagoz ez dogulaco
chambelan ussaiñic.

MARQUINA, XEMEIN TA ECHEVARRIC

IRURAC BAT

AGUR DEUTSÉ EGUITEN

CONSTITUCINOECO DAMIARI.

ZORTZICUA.

Nos bait biar guenduzan viotzac ascatu	Egun alegria zan san Martin muruban	Jana eta edana guztija ugari.	Aurten liño acija biar da ugari
Léngo illuntasunac pozagas arguitu.	Milla ta zortzireun ogueta iruban.	Baña cembat al eban baecochac igarri.	Bota erruqui бага guijauric lurrari,
Catigarajo gogor iru urtecua	Cucubac berac bere aurtengoe soñuban	Ez da albo alboca inorchu icési	Bai ta goruba bere eraguin azarri
Ez da señale бага alan istecua.	Cerbait biarco zanaesan guracaban.	Celan olgau biar dan ara nun icasi.	Ezpada biar dogu laster barregarri.
Neure adisquide on alcarri eutsijac	Chupin ta escopeta ondo garvitubac	Payazo guissaijua, ez asco edanaz,	Oquela samurra ta ardaun ugari
Igaro hadituguz garratz ta gacijac;	Guztijac dira emen ondo ornidubac.	Ezpada neure ustez berde asco janaz,	Ez oi ciran lapurrac gabian egarri.
Alcarregaz igaro dañuzan gozuac	Euren tramoc latzac gaituz garu poztuten	Cerchubait galdu jacun eubarte orduco	Asinau ala guztija peseta bagarri
Asi bada imuten mai eta vasuac.	Vizecayarren garaitzac deuscuz gogoratzen.	Baña atseen eban botarie mandaco.	Olo eta capoiac artzeia dugaric.
Ez izanic Marquiñan voluntarijoric	Bolandera argui ta gora beracuac	Orregaitic payazoc gure damiari	Chapalangarra bere mutilehu samurra
Xemein ta Echevarria legne baricoric;	Izarren irulirac, polvora asmuac,	Bota eutsan versua elito arizgarri.	Astuae mutiltzeco ez elito macurra.
Orregaitic guztijoc gaur umore onic	Marquiñan eguin dira ez da an chanchia	Ah! cital galdueua eue dona aguiiri	Bein eldu bazan bere dogu ezaguna.
Gagoz ez dogulaco chambelan ussaiñic.	Guztijoc daquigula fabrica eñua.	Celacua al azan erdi sorguñoric.	Trisquillatoria zan bere Aita jauna,
Emen icensten dogu ara, iruroc bat	Vivolin guitarra ta flauta gozatsubac	Leen igaruac nequez, orain cantetia,	Iriarte, Soroa, bijac ce mutillac!
Alan alcarteric nun ete, ta cembat?	Egozan cerchubaita erdi garratzubac.	Orduban garratz zana orain olguetia.	Esanic dirianoc guinala servillac;
Iruroguetaz lagun merindadecua	Aspaldijan ez dogu izan umoreric	Sarri eguin guenduban baruba nai ta ez	Olonel irugarren guizonchu biguna
Abade eta frayle Justicijacuac.	Ta alan egon dira luzaro gueldiric.	Jan ecin guendubala sabelco miñez,	Ondo clupau euscuben zamin eta wja.
Banderola gorrija darua Paiazoc	Damaren irudijan constitucina	Baita ibilli gara bein barriz ignesi	Castañon comandante Neronen lagunac
Ez dacuse urretic lengo mutil balzoc.	Ecarri izan dogu zori gaistocua.	Armaric ez gueuneuoc mendi eta sassi.	Eraentsi euscuzan larrijac eguac.
Ez da cetan guejago munduban escatu	Aituten emoteco gure pozquerrija	Batian batera ta bestian bestera,	Preso eruan, euscun gneure Marques jauna
Baldin berau Alférez aguertu bajacu.	Betico amaitzeco gurari vicija.	Nos bait gazapotuta celan oi zan era.	Bai ta vicarijua doctore entzuna
Lelengo Te Deuna ostian mecia,	Guztija da garbija olganza onetan	Etorten ciranian peseta bieua,	Torrijos generalac bere señalia
Soñu egoquijacaz izan da guztia:	Gauza charric ez dala ezetan nastetan.	Baita volante eta voluntarijuae,	Preso erutia neure Alcatia
San Martingo Ermita ondo entzunian	Alan beti biar da servillén artijan	Gure camisachubac jantziric soñian	Artzauac salatziac issilehuric bera
Maiatzaren ogueta zazpi garrecuan.	Nai dogulaco izan jaunaren leguijan.	Gu otzac igaroten mendijen ganian.	Aguertu izan euscun celan euscun gura.

Cartucho cartuchera
 erropa barrijac
 Emen artzeen cituben
 mutilehu zuriyac.
 Cembat onaco gauza
 issil ta agniri?
 Baltzac etozamian
 emou iguesari.

Amaica bidar entzun
 guenduban tragala
 Zalaco gure errija
 ciñuen servilla.
 Cembat bidar gemajiac
 erre ta iltia?
 Edo bai euren bando
 armac artutia.

Baña alper ric
 cepisijac guztijac
 Bardin euren peseta
 sarrí esquinijac.
 Gurasuen leguia
 ez dau batec saldu
 Lenago zar ta gazte
 vicitzia galdu.

Nun ete dira orain
 comandante jaunac
 Guztijoc eguitero
 pocie esen munac.
 Damuz ecin guinaindez
 euren billa asi
 Beti dabiltzalaco
 servillen iguesi.

Sabelac estututa,
 espanac sicurie,
 Dabiltz layronac orain
 huruz beraturic.
 Poltsaac urritu eta
 ez adisquideric,
 Inoc artu nai ezta
 ezetan lotsaric.

Chapalangarrac dauca
 orain fortuna
 Astacuae mutiltzen
 etatz jaquitia.
 Pastoriac ardiyac
 ez ditu faltaco,
 Baltzac badira bere,
 uda gueneco.

Damaclu apaiñluba,
 beste cortejuac
 Provechu on eguitero
 lengo urtecuac,
 Baru eguin daitjela
 pazena-ostian
 Asqueneco costia
 laster jo artian.

Zuc here biardoza
 atseguin sarjia
 Izan zariñalaco
 eurac iminija.
 Cer emongo al jatsun
 bazeari ostian
 Erabaguiten dogu
 guztien artian.

Ondo beguiratuta
 ara sentenija
 Ao batezeua da
 au arriarrija!
 Tataras erabilli
 azqueñian erre
 Guztijoc eguitero
 algar ta barre.

Oñen ostian dogu
 gaur limonadia
 Beguira izan ez dedin
 belauñ icaria.
 Otzac eraguin leijo,
 asco sentitzaca,
 Atsuac euquitero
 barrez issiltzaca.

Otz ascoren ondoren
 ardao garbija
 Brinduae botateco
 chito egóquija.
 Bacochac artuten dau
 escura basua
 Ao batez esateco
 urrengo versua.

Viei bedi Fernando
 bai ta Amalia
 Anenac eruan dau
 liberal damia.
 Viei bedi Eugia
 Fernando Zabala
 Diputaciño barri
 prestu eta ala.

*Orduban dirianoc
 escubac emanic
 Agur eguin guenduban
 gueldi ta zutunic.
 Adisquide lejalac
 orain bijar arto
 Beti biarco dogu
 lagun eta maite.*

CONSTITUCIÓNECO DAMIAREN ASMUAC ZORTZICUAN.

Alper ric dau sagarrac
 colore gerrija
 Usteluric badauca
 barruco acija.
 Laster aguertuco da
 here malicija.
 Adi bada euscalduna
 ta argui beguija.

Engañubac ez oi dau
 plazu ain lucerie,
 Ascozaz guchiago
 inos asquen onic;
 Alan jazoten jacu
 gure egunetan,
 Esango dodan leguez
 zortzico onetan.

Politica izena
 dabien damachuba
 Cadizic aguertuzan
 chito apaiñduba.
 Berba labanae eta
 barrez arpeguija,
 Barruba euqui arren
 ez chito garbija.

Liburubat esuban
 urrez estalduba
 Liberalchu zaldunen
 dau erregaluba
 Libertade barribat
 bardintasunagaz,
 Nor gozatuco ez da
 liburu onegaz?

Francijan igartu zan
 arbola ederrac
 Eraguin bai eutsezan
 aseori negarrac.
 Ara bada vitzuric
 España barruban
 Liberaleen vitzerez
 liburu dontsuban.

Erregue hera here
 guztien mendian,
 Eracutsiten jacu
 gaur here leguian.
 Guztijoc aguintari,
 guztijoc nagusi,
 Baña alan ete dan,
 beguira icusi.

Esquintsari ederrac
 espanol maitiac
 Eguin deusez ugari
 danachu gaztiac,
 Baña liberalentzat
 dituz ondasunac,
 Libertate aguintza
 nagusitasunac.

Eurac dira bacarrie
 Espanan juezac
 Alper ric bai icusi
 gentien nai ezac.
 Tragau biarco dala
 euren aguintduba
 Dogu layron arruen
 lelo ta soituba.

Abade guieldi eta
 euren guisacuac
 Arrozturic betico
 lengo leguecuac.
 Doctrinachu eurenac
 nai ez ditubena
 Izan arren Volterren
 ta nai Rusorrenac.

Agur beti betico
 monja ta frayliac
 Malcuac bota arren
 gente ta pobriac.
 Misinoe barrijac
 here leguictan,
 Iñini izan ditu
 erri andijetan.

Quinta ta milicijac
 lantzian ta sarri.
 Ez deusen euscaldunoi
 lan enarra ezarri.
 Agur gure forubac
 agur uoblecia.
 Coldarturic balego
 emengo gentia.

Pechu esebidiac
 eguero leguez
 Inoren izerdijaz
 aspertu ezinez,
 Pantete ta registro
 cembat beste asmo?
 Ez cutsan Barrabasi
 goguae emongo.

Orra libertadia
dirubae guenduric,
Ez guenduban izan
lapurren bildurric.
Damachu apaindubae
eucan bai trampial
Ez da guichi jarpina
enemigadia.

Baña damachu arro
ta here layronae
Napoleonar malmutz
ondo ezagunae,
Leenago ler eguingo
dozube guztjoc
Guri ezarri bano
zuben bustarrijoc.

Euscaldun garbi sendo
prestu ta nobliac
Gorde gura ditubez
Asaberen leguiaic.
Mutillac orretaco
arinetara dira.
Zarrac here nai leuque
gaziac balira.

Oraindie vici zala
munduban Marija,
Cerbun erreguina
eguijaz garbija,
Españan artu eban
here jartoguia
Jesusen ama zanae
oh, cer mirarija!

Pillar laten ganian,
erri jaquinjan,
Edertasunen ama
aguertu zanian,
Aingurubac beguira
daenstaz zurturic,
Cerbuc eurac here
guztiz arrituric.

España doatsuba
ceren jaube zara?
Beguira nai dabenaic
edocein aldera.
Ez entzun ta ez icusi
inos da oraindie
Ez dau gura alendu
Marijac zugandic.

Aguindu izan deus
here amparuba,
Zaitubalaco dino
erri maitatuba.
Oh, Israel ederra!
benetan garbija
Zuretzat izan dozu
bay temple bicija.

Jangoicnae nai eta
aguintari onae
Euscaldunac ditube
chitoco entzunac.
Eguia zarra dogu
guztjjeen buruba.
Quesada urregua
guztiz jaquintsuba.

D. Fernando Zabala
brigadier jaupac
Irabaciric daueaz
gure esquer onae.
Corostidi laguna
chitoco firmia.
Francho guztiz sendua
baita Barrutia.

Catalan ta Naparrac
baita Arabarrac
Diriguz zorijonez
beti meure tarrac.
Beste provincietan
gure hando asco,
Egunic egunera
dozuz icusico.

AMA DONCELLARI ZORTZICUA.

Españolen viotzac
pozez zoraturic
Doncella ta amari
daguz esquiniric.
Bere amparupian
ez dauque bildurric,
Guztijac dira sendo
inor ez coldaric.

Españolen icenic
ez jaque emoten
Bandera oquerretan
diranci sartuten.
Oneece igues eguine
amaren mendetic,
Qendu bitez betico
beguizen aurretic.

Luciferrec bai deusen
guri embidija
Icusiric patroña
Españan Marija,
Bere discipulubac
dauque egarrija,
Ecin dabe iruntzi
gure poz vicija.

Luciferrec nai eban
España beretu
Patroe ta nagusi
betico gelditu,
Orretaraco bada
bere esquinijac
Eguin deuschez sarri
liberal barrijac.

Alperrie Guipuzuean
peseta bicuae,
Bilbon barriz volante
voluntarijuac,
Camisa utsian duaz
igusi gaisuae,
Urten arren eheti
chitoco majuac.

Armaac lepotie bota
ortozic iguesi,
Ez eenduzan lenguan
Muguijan icusi?
Mutill urten barrijac
baddubez goitzen,
Cer da icustena
badira oituten?

Ay liberal tristiaic!
eguin dau zubenac,
Laster dozuz icusi
betico asquenae.
Layronac lutuz dago
dania gueisoric,
Ez dago osatzeco
inun medicuric.

Uste ebeen guztijac
tontuac billatu,
Azpijan artu eta
betico sacatu.
Elaissa eta campo
guztijan aguindu.
Ez ebeen orregaitic
aji guicli escatu.

Arrotasunac ez dau
inun neurric,
Ez da aguindu najjac
ezetan mugaric,
Agaitic liberalac
guztija guraric
Dacuzenz gaur iguesi
España ichiric.

Alperrie liberalac
Lucifer nagusi
Laster dira chambelan
barrio icusi.
Noraco ete diran
itaunen alcarri
Dabiltz aspaldichuban
jaquen lez igarri.

Luciferrec bai dituz
leucbac zabalac
Yillatu ez daizezan
Español cervillac.
Bildur nas ete diran
beragaz sartuco
Zulo izugarrian
secula betico.

Prestan eguizu laster
bere enterruba
Eguin here dajjala
gaur testamentuba.
Zuzen zuzen jaiztu
zubei herencia,
Guzur embusterijeon
poltsa ugaria.

Baba beragaz naste
Iarpetu biozu
Ta au benetan dana
sinistu eguizu.
Gue eguingo deustuguz
onrra alegriac,
Ijui eta chalo
pozezo barriac.

Agur bada betico
liberal arruac
Agur lairon ta dama
agonijuae,
Cadiztic urten eta
viurtu bertara.
Zuben azur usteloc
an obitutera.

Españolen viotzac
izanic nobliac
Ez deutez inos opa
alaco caltiac.
Arenjinei here
dauque parcatzen,
Eurac gaitic amari
ondo erregutzen.

Orregaitic biar dau
Españac garbitu
Ataraco juczac
erreinubac ditu.
Euren escuban dago
zuzen justicija
Gue bata bestari
parcatu guztija.

Juez jaunac daujue
traydore pagsuac
Eraso ditubela
ascoren malcuac,
Aleguñez dabela
erregue zematu
Elaissaco fedia
gu ganic alenddu.

Euren jaquiturijac
ez dau ez extali
Celan liberalchubao
jacuzan ibilli.
Gauzaric santubenci
burla eguitia
Izan dala ascoren
oraingo modia

Garizuma santuban
dantza zoruetan,
Ez dira pazcuetan
eldu compesetan.
Guisa onetan dua
emparau guztija,
Gueijago esateco
biar da astija.

Lagun zaquiguz beti
virgina Marija
Esquer emoten dozu
españa justija,
Zu ganic artu dogu
orain victorija
Gura deutsugu emon
aldogun gloria.

Baña oraindic bere
gatortzuz gu esque
Catiyu dogulaco
Fernando Erregue.
Gure viotzac dabe
chito bera maite,
Beragaz bada arren
erruquitu zaite.

Lén bere an egon zan
cautibo francijan,
Baña zure mesedez
ondo etorri zan.
Espata ta coróia
egun garratzetan
Iclü izan entsuzan
zeure escubetan.

Alan gorde ceuntzazan
etorri artian
Atochaco Eleissa
ondo entzunian.
Biurreran esquini
eutsun erreiniba,
Zaucazalaco beti
amatzat artuba.

Alperric liberalac
guzurac ugari
Bere contra ditube
Españan ezarri;
Gure amodijua
otzitu guraric
Ibili jacuzana
ez dago dudaric.

Josefa Amalia
bere Esposia
Erreguina garbi ta
virtuten loria.
Nai baguez gueisoturic
catigarijuan
Dago gau ta egunaz
Maleco erijuan.

Españan icusiric
gaur escandalubac,
Emoten ditubenac
liberal galdubac
Viotz humildubagaz
deutsu escatuten,
Inoc eguija dana
ez dau ucatuten.

Gure amodijua
ain dauque vicija,
Senar eta emazte
curén egarrija.
Gugaz vici guria
amaren mendian
Zauritzen ditubana
bijen viotzian.

*Escubide guztien
jaubia izanic,
Eguizu bada ama
negarrac entzunic,
Alcartu gaitzezala
Erregu Jaunacaz,
Ta vici zure najian
viotz garbijacuz.*

Emen icusten dogu
 ara, iruroc bat
 Alan alcartuteric
 nun ete, ta cembat?
 Iruroguetaz lagun
 merindadecuac
 Abade, eta frayle,
 Justicijacuac.

Banderola gorrija
 darua Paiazoc
 Ez dacuse urretic
 lengo mutil baltzoc.
 Ez da cetan gueijago
 munduban escatu
 Baldin berau Alferex
 aguertu bajacu.

Lelengo Te Deuna
 ostian mecia,
 Soñu egoquijacaz
 izan da guztia:
 San Martingo Ermita
 ondo entzunian
 Maiatzaren ogueta
 zazpi garrenian.

Egun alegria zan
 san Martin muruban
 Milla ta zortzireun
 ogueta iruban.
 Cucubac berac bere
 aurtengo soñuban
 Cerbait biarco zana
 esan guraeban.

8

Chupin ta escopeta
 ondo garvitubac
 Guztijac dira emen
 ondo ornidubac.
 Euren trumoe latzac
 gaituz gaur poztuten
 Viycaytarren garaitzác
 deuscuz gogoratzen.

9

Bolandera argui ta
 gora beracuac
 Izarren irudira
 polvora asmuac,
 Marquiñan eguin dira
 ez da au chanchia
 Guztijoc daquigula
 fabrica echia.

10

Vivolin guitarra ta
 flauta gozatsubac
 Egozan cerchubaita
 erdi garratzubac.
 Aspaldijan ez dogu
 izan umoreric
 Ta alan egon dira
 luzaro gueldiric.

11

Damaren irudijan
 constitucinua
 Ecarri izan dogu
 zori gaistocua.
 Aituten emoteco
 gure pozquerija
 Betico amaitzeco
 gurari vicija.

12

Guztija da garbija
olganza onetan
Gauza charric ez dala
ezetan nastetan.
Alan beti biar da
servillén artijan
Nai dogulaco izan
jaunaren leguijan.

13

Jana eta edana
guztija ugari.
Baña cembat al eban
bacochar igarri.
Ez da albo alboca
iñorchu icusi
Celan olgau biar dan
ara nun icasi.

14

Payazo guissaijua,
ez asco edanaz,
Ezpada neure ustez
berde asco janaz,
Cerchubait galdu jacun
eubarte orduco
Baña atsseen eban
botaric mandaco.

15

Orregaitic payazoc
gure damiari
Bota eutsan versua
chito arrigarri.
Ah! cital galducua
euc dona aguri
Celacua al azan
erdi sorguiñori.

16

Leen igaruac nequez,
 orain cantetia,
 Orduban garratz zana
 orain olguetia.
 Sarri eguin guenduban
 baruba nai ta ez
 Jan ecin guendubala
 sabeleco miñez.

17

Baita ibilli gara
 bein barriz iguesi
 Armaric ez gueuncanoc
 mendi eta sassi.
 Batian batera ta
 bestian bestera,
 Nos bait gazapotuta
 celan oi zan era.

18

Etorten ciranian
 peseta bicuac,
 Baita volante eta
 voluntarijuac,
 Gure camisachubac
 jantziric soñian
 Gu otzac igaroten
 mendijen gañian.

19

Aurten liño acija
 biar da ugari
 Bota erruqui бага
 guijaurric lurrari,
 Bai ta goruba bere
 eraguin azarri
 Ezpada biar dogu
 laster barregarri.

20

Oquela samurra ta
ardaua ugari
Ez oi ciran lapurrac
gabian egarri.
Asmau ala guztija
peseta bagaric
Ollo eta capoiac
artzeia dugaric.

21

Chapalangarra bere
mutilchu samurra
Astuac mutiltzeco
ez chito macurra.
Bein eldu bazan bere
dogu ezaguna.
Trisquilladoria zan
bere Aita jauna.

22

Iriarte, Soroa,
bijac ce mutillac!
Esanic dirianoc
guiñala servillac;
Odonel Irugarren
guizonchu biguna
Ondo chupau euscuben
mamin eta una.

23

Castañon comandante
Neronen lagunac
Eracutsi euscuzan
larrijac egunac.
Preso eruan euscun
gueure Marques jauna
Bai ta vicarijua
doctore entzuna.

24

Torrijos generalac
bere señalia
Preso eruatia
neure Alcatia
Artzañac salatziac
issilchuric bera
Aguertu izan euscun
celan euscun gura.

25

Cartucho cartuchera
errota barrijac
Emen artzeen cituben
mutilchu zurijac.
Cembat onaco gauza
issil ta aguri?
Baltzac etozanian
emon iguesari.

26

Amaica bidar entzun
guenduban tragala
Zalaco gure errija
ciñuen servilla.
Cembat bidar cemaijac
erre ta iltia?
Edo bai euren bando
armac artutia.

27

Baña alper alperric
cemaijac guztijac
Bardin euren peseta
sari esquinijac.
Gurasuen leguia
ez dau batec saldu
Lenago zar ta gazte
vicitzia galdu.

28

Nun ete dira orain
comandante jaunac
Guztijoc eguiteco
pocic escu munac.
Damuz ecin guinaindez
euren billa asi
Beti dabilzalaco
servillen iguesi.

29

Sabelac estututa,
espanac sicuric,
Dabiltz layronac orain
buruz beraturic.
Poltsaac urritu eta
ez adisquideric,
Iñoc artu nai ezta
ezetan lotsaric.

30

Chapalangarrac dauca
orain fortunaia
Astacuac mutiltzen
ciatz jaquitia.
Pastoriac ardiac
ez ditu faltaco,
Baltzac badira bere,
uda gueneco.

31

Damachu apainduba
beste cortejuac
Provechu on eguinic
lengo urtecuac,
Baru eguin daijela
pazcua ostian
Asqueneco costia
laster jo artian.

Zuc bere biardozu
 atseguin sarija
 Izan zarialaco
 eurac iminija.
 Cer emongo al jatsun
 bazcari ostian
 Erabaguiten dogu
 guztien artian.

Ondo beguiratuta
 ara sentencija
 Ao batezcua da
 au arrigarrija!
 Tatarras erabilli
 azquenian erre
 Guztijoc eguiteco
 algara ta barre.

Onen ostian dogu
 gaur limonadia
 Beguira izan ez dedin
 belaunicaria.
 Otzac eraguin leiyo,
 asco sentitzaca,
 Atsuac euquiteco
 barrez issiltzaca.

Otz ascoren ondoren
 ardao garbija
 Brinduac botateco
 chito egoquiya.
 Bacochar artuten dau
 escura basua
 Ao batez esateco
 urrengo versua.

Vici bedi Fernando
 bai ta Amalia
 Añenac eruan dau
 liberal damia.
 Vici bedi Eguia
 Fernando Zabala
 Diputaciño barri
 prestu eta ala.

Orduban dirianoc
 escubac emonic
 Agur eguin guenduban
 gueldi ta zutunic.
 Adisquide leijalac
 orain bijar arte
 Beti biarco dogu
 lagun eta maite.

CONSTITUCINOECO DAMIAREN ASMUAC ZORTZICUAN

Alperric dau sagarrac
 colore gorrija
 Ustelduric badauca
 barruco acija.
 Laster aguertuco da
 bere malicija.
 Adi bada euscaldunac
 ta argui beguija.

2

Engañubac ez oi dau
plazu ain luceric,
Ascozaz guichiago
iños asquen onic;
Alan jazoten jacu
gure egunetan,
Esango dodan leguez
zortzico onetan.

3

Politica izena
daben damachuba
Cadiztic aguertuzan
chito apainduba.
Berba labanac eta
barrez arpeguija,
Barruba euqui arren
ez chito garbija.

4

Liburubat escuban
urrez estalduba
Liberalchu zaldunen
dau erregaluba
Libertade barribat
bardintasunagaz,
Nor gozatuco ez da
liburu onegaz?

5

Francijan igartu zan
arbola ederrac
Eraguin bai eutsezan
ascori negarrac.
Ara bada vizturic
España barruban
Liberaleen vitartez
liburu dontsuban.

6

Erregue bera bere
guztijen mendian,
Eracutsiten jacu
gaur bere leguian.
Guztijoc aguintari,
guztijoc nagusi,
Baña alan ete dan,
beguira icusi.

7

Esquintsari ederrac
español maitiac
Eguin deusczugari
damachu gaztiac,
Baña liberalentzat
dituz ondasunac,
Libertade aguintza
nagusitasunac.

8

Eurac dira bacarric
Españan juezac
Alperric bai icusi
gentien nai ezac.
Tragau biarco dala
eurén aguinduba
Dogu layron arruen
lelo ta soñuba.

9

Abade guichi eta
euren guisacuac
Arrozturic betico
leengo leguecuac.
Doctrinachu eureenac
nai ez ditubenac
Izan arren Volterren
ta nai Rusorrenac.

10

Agur beti betico
monja ta frayliac
Malcuac bota arren
gente ta pobriac.
Misinoe barrijac
bere leguietan,
Ifini izan ditu
erri andijetan.

11

Quinta ta milicijac
lantzian ta sarri.
Ez deuscu euscaldunoi
lan charra ezarri.
Agur gure forubac
agur noblecia.
Coldarturic balego
emengo gentia.

12

Pechu escabidiac
egunero leguez
Iñoren izerdijaz
aspertu ezifiez,
Pantete ta registro
cembat beste asmo?
Ez eutsan Barrabasi
goguac emongo.

13

Orra libertadia
dirubac quenduric,
Ez guenduban izango
lapurren bildurric.
Damachu apaindubac
eucan bai trampia!
Ez da guichi jaquina
enemigadia.

14

Baña damachu arro
 ta bere layronac
 Napoleontar malmutz
 ondo ezagunac,
 Leenago ler eguingo
 dozube guztijoc
 Guri ezarri baño
 zuben bustarrijoc.

15

Euscaldun garbi sendo
 prestu ta nobliac
 Gorde gura ditubez
 Asabeen leguiac.
 Mutillac orretaco
 armetara dira.
 Zarrac bere nai leuque
 gaztiac balira.

16

Jangoicuaac nai eta
 aguintari onac
 Euscaldunac ditube
 chitoco entzunac.
 Eguia zarra dogu
 guztijeen buruba.
 Quesada urrengua
 guztiz jaquintsuba.

17

D. Fernando Zabala
 brigadier jaunac
 Irabaciric daucaz
 gure esquer onac.
 Gorostidi laguna
 chitoco firmia,
 Francho guztiz sendua
 baita Barrutia.

18

Catalan ta Naparrac
 baita Arabarrac
 Ditugu zorijonez
 beti gueure tarrac.
 Beste provincijetan
 gure bando asco,
 Egunic egunera
 dozuz icusico.

19

Alperric Guipuzcuan
 peseta bicuac,
 Bilbon barriz volante
 voluntarijuac,
 Camisa utsian duaz
 iguesi gaisuac,
 Urten arren echeti
 chitoco majuac.

20

Armaac lepotic bota
 ortozic iguesi,
 Ez cenduzan lenguan
 Muguijan icusi?
 Mutill urten barrijac
 baditubez goitzen,
 Cer da icustecua
 badira oituten?

21

Ay liberal tristiciac!
 eguin dau zubenac,
 Laster dozuz icusi
 betico asquenac.
 Layronac lutuz dagoz,
 damia gueisoric,
 Ez dago osatzeco
 iñun medicuric.

Prestau eguizu laster
 bere enterruba
 Eguin bere daijala
 gaur testamentuba.
 Zuzen zuzen juatzu
 zubei herencia,
 Guzur embusterijeen
 poltsa ugarija.

23

Baña beragaz naste
 lurpetu biozu
 Ta au benetan dana
 sinistu eguizu.
 Guc eguingo deuntsuguz
 onrra alegriac,
 Ijui eta chalo
 pozezco barriac.

24

Agur bada betico
 liberal arruac,
 Agur lairon ta dama
 agonijacuac.
 Cadiztic urten eta
 viurtu bertara,
 Zuben azur usteloc
 an obitutera.

AMA DOCELLIARI ZORTZICUA

1

Oraindic vici zala
munduban Marija,
Ceruben erreguiña
eguijaz garbija,
Españan artu eban
bere jartoquija
Jesusen ama zanic
oh, cer mirarija!

2

Pillar baten ganian,
erri jaquinian,
Edertasunen ama
aguertu zanian,
Ainguerubac beguira
dacustaz zurturic,
Cerubac eurac bere
gutziz arrituric.

3

España doatsuba
ceren jaube zara?
Beguira nai dabenac
edocein aldera.
Ez entzun ta ez icusi
iños da oraindic.
Ez dau gura aldendu
Marijac zugandic.

4

Aguindu izan deutsu
bere amparuba,
Zaitubalaco dino
erri maitatuba.
Oh, Israel ederra!
benetan garbija
Zuretzat izan dozu
bay templu bicija.

5

Españolen viotzac
pozez zoraturic
Doncella ta amari
dagoz esquiniric.
Bere amparupian
ez dauqué bildurric,
Guztijac dira sendo
iñor ez coldarric.

6

Españolen icenic
ez jaque emoten
Bandera oquerretan
diranei sartuten.
Oneec igues eguiñic
amaren mendetic,
Quendu bitez betico
beguijen aurretic.

7

Luciferrec bai deuscu
guri embidija
Icusiric patrona
Españan Marija,
Bere discipulubac
dauque egarrija,
Ecin dabe iruntsi
gure poz vicija.

8

Luciferrec nai eban
 España beretu
 Patroe ta nagusi
 betico gelditu,
 Orretaraco bada
 bere esquinijac
 Eguin deuscubez sarri
 liberal barrijac.

9

Uste ebeen guztijac
 tontuac billatu,
 Azpijan artu eta
 betico sacatu,
 Eleissa eta campo
 guztijan aguindu.
 Ez ebeen orregaitic
 ain guichi escatu.

10

Arrotasunac ez dau
 iñun neurric,
 Ez da aguindu naijac
 ezetan mugaric;
 Agaitic liberalac
 guztija guraric
 Dacuzcuz gaur iguesi
 España ichiric.

11

Alperric liberalac
 Lucifer nagusi
 Laster dira chambelan
 barrero icusi.
 Noraco ete diran
 itaunen alcarri
 Dabiltz aspaldichuban
 jaquen lez igarri.

12

Luciferrec bai dituz
lecubac zabalac
Villatu ez daijezan
Español servillac.
Bildur nas ete diran
beragaz sartuco
Zulo izugarrijan
secula betico.

13

Españolen viotzac
izanic nobliac
Ez deutsez iños opa
alaco caltiac.
Arerijuei bere
daquije parcatzen,
Eurac gaitic amari
ondo erregutzen.

14

Orregaitic biar dau
Españac garbitu
Ataraco juezac
erreinubac ditu.
Euren escuban dago
zuzen justicija
Guc bata bestiari
parcatu guztija.

15

Juez jaunac daquijé
traydore palsuac
Eraso ditubéla
ascoren malcuac,
Aleguñiez dabela
erregue zematu
Eleissaco fedia
gu ganic aldendu.

16

Euren jaquiturijac
ez dau ez estali
Celan liberalchubac
jacuzan ibilli.
Gauzaric santubenei
burla eguitia
Izan dala ascoren
oraingo modia.

17

Garizuma santuban
dantza zoruetan,
Ez dira pazcuetan
eldu compesetan.
Guisa onetan dua
emparau guztija,
Gueijago esateco
biar da astija.

18

Lagun zaquiguz beti
virgina Marija
Esquer emoten dozu
España jutzija. (sic)
Zu ganic artu dogu
orain victorija
Gura deutsugu emon
aldogun glorija.

19

Baña oraindic bere
gatortzuz gu esque
Catigu dogulaco
Fernando erregue.
Gure viotzac dabe
chito bera maite,
Beragaz bada arren
erruquitu zaite.

20

Lén bere an egon zan
 cautibo francijan,
 Baña zure mesedez
 ondo etorri zan.
 Espata ta coroia
 egun garratzetan
 Ichi izan eutsuzan
 zeure escubetan.

21

Alan gorde ceuntzazan
 etorri artian
 Atochaco Eleissa
 ondo entzunian.
 Biurreran esquini
 eutsun erreinuba,
 Zaucazalaco beti
 amatzat artuba.

22

Alperric liberalac
 guzurrac ugari
 Bere contra ditube
 Españan ezarri;
 Gure amodijua
 otzitu guraric
 Ibili jacuzana
 ez dago dudaric.

23

Josefa Amalia
 bere Esposia
 Erreguiña garbi ta
 virtuten loria.
 Nai baguez gueisoturic
 catigarijuan
 Dago gau ta egunaz
 Malco erijuan.

24

Españan icusiric
gaur escandalubac,
Emoten ditubenac
liberal galdubac
Viotz humildubagaz
deutsu escatuten,
Iñoc eguija dana
ez dau ucatuten.

25

Gure amodijua
ain dauque vicija,
Senar eta emazte
eurén egarrija.
Gugaz vici guria
amaren mendian
Zauritzen ditubana
bijen viotzian.

26

Escubide guztien
jaubia izanic,
Eguizu bada ama
negarrac entzunic,
Alcartu gaitezala
Erregue Jaunacaz,
Ta vici zure naijan
viotz garbijacaz.

Bilbon, Jose Basozabalen Silluteguiyan
1823 garren urtian.

VI (XXIII). CHANSON EROTIQUE

1

Guacin, lagun, guacin biyoc,
 guacin Attissanerat.
 Usso churi bat yalguiten da
 Attisaneco plaçarat.
 Ussogno hura nahi nuque
 bildu sarietarat.

2

Hegalac ditu arinac, eta
 beguy ere ernea,
 eta bera, heyequila,
 izpiritus bethea.
 Beldur niquec ez den erretch
 harren atzemaitea.

3

Attisaneco plaçan baduc
 ihistari abilic.
 Bat edo biya yarreiqui ciascoc
 usso harri ondotic,
 bainan ecin idoqui ciotac
 batere lumaric.

Españan leuatic
 gaur escandalubac,
 Emoten ditubnac
 VI (XIII). CHANSON BROTOUB

Vioitz lamildubagar
 deuten escatuten,
 Inoc eguiz dans
 4

Chaflacha beçain arina baninx
 yoaiteco airean,
 ussogno hura harrapa niro
 airean edo lurrean,
 edo bertcela sar nindaque
 harren ussoteguan.

5

Maihatzean çoin den eder
 yulufraya churia!
 ceimbat aldiz erran ceraundan
 ussogno harrec egina
 gabaz ungui cerratzen cela
 harren ussotegua⁵.

5. Ikus F. Michel: aip. lib. 324.orr.

VII (XXIV). CHANSON BACHIQUE

1

Oï cer eguin othe çaut niri,
bidian ibilcen ahomtci; (sic)
ez dut paussuric eguiten,
non ez nicen erortcen.
Triste du hainitz bihotza,
indaçue arno hutza.

2

Ene arreba Juana
badantçut arreba yauna,
ni hilcen nicenean,
ez eguin nigarrican,
ez ekhar dolurican,
emaçu flascua burdian,
edateco piyaya hantan (sic).

3

Libera me cantatutan
ez busti hissopa urian,
arnuan busti çaçu
* segur da nahico dudala
hilcean bician béçala.
* hilic ungui trempa çaçu ⁶.

6. Lehen ahapaldirako ikus X. Munibe: El borracho burlado, 1764.
2. eta 3. ahapaldi berdintsuak aurkitzen dira ere Duvoisin-en kantu
eta bertso bilduman.

VIII (XXV). CHANSON BACHIQUE

1

Aztequenean yoanen guira
otzoaren ihicirat,
otzoa ez bada, acheria
harturic yinen guira.

2

Acheria balin baduc,
behar dugu larrutu.
Larruyen ere balio du, eta
dugun errepicatu.

3

Cembat lagun hambat hordi,
hambat acheri dugu.
Beïrac ezcurat hartu eta
othoï conda guitzatçu.

IX (XXVI). LAMENTATION D'UN VIEILLARD

Gaste nincenean
hogoï urthetan, ardura nindabilan
nescatiletan,
eta orai aldís ostatuetan,
diru guti molsan.
Behar orduetan
eman neçaçu
dirutan edo indarretan⁷.

3

Botz aren entcun nahiz,
Erraturic nago.
Ni ari uillont, eta
Gura urrunago,
Jarraiqui ninkirio

7. Ikus ahapaldi berdina J. Haritschelar jaunaren L'oeuvre poetique de Pierre Topet Etchahun. Euskera, XIV, XV. Bilbo 1970, 396.orr.

X (XXVII). LA RECONTRE DU CRÉANCIER
ET DU DÉBITEUR

Agur, Alciroïn, guiçon galanta,
bici cireya oraiño!
«Bai, eta ere bici gogo,
harcecoac bildu arteraiño».
Ala yincoa, emaçu couraye,
ez çaude hilic oraiño.

XI (XXVIII). LE ROSSIGNOL

1

Tchori erresiñoula
Udan da khantari;
Ceren ordian beitu
Campouan janhari;
Neguian ezt'agheri,
Balinban ezta eri:
Udan jin baledi,
Kounsola nainte ni.

2

Tchori erresiñoula
Ororen géhien;
Bestec beno hobequi
Harc beitu kantatcen:
Harec du inganatcen,
Mundia bai troumpatcen;
Ber'eztut ikhouston,
Bai botça entzuten.

3

Botz aren entçun nahiz,
Erraturic nago,
Ni ari uillant, eta
Oura urrunago.
Jarraiqui ninkirio
Bicia gal artino;
Aspaldi andian,
Desir hori nian.

4

Tchoria çoñen eiger
Khantuz oihenian:
Nihaurec entçun diçut
Igaran gaiyan.
Eia gouacen, maitia,
Bibiác ikhoustera;
Ençuten baduçu
Charmaturen çutu.

5

Amac utzi nindizun
Bedats azkenian,
Gherosti nabilazu
Hegalez airian.
Gaiak aurthiki nindizun
Sassiño batetara;
Han zuzun tchedera,
Oi, ene malhurra!

6

Bortiac churi dira
Elhur dienian,
Sassiac ere ulhun
Osto dienian:
Ala ni malerusa!
Ceren han sarthu nintçan?
Jouan banintz aicina
Escapatcen nintçan.

7

Tchoria çaud'ichilic,
Ez eguin nigarric;
Cer profoitu dukeçu
Hol'afligituric?
Nic eramanen çutut,
Tchedera lachaturic,
Ohico bortutic,
Ororen gañetic⁸.

8. Ikus F. Michel: aip. lib. 288.orr.

XII (XXIX). ENTRETIEN D'AMOUR

1

Urac harria higitzen
Urriac silarra du doratzen
Ni maitearen ganat joaiten
Neure penac ari erraiten
Certarainocoan dudan sofritzen,
Guero harec baina consolatzen.

2

Ene maitia, orai nic
Nahi nuque jakin zure ganic
Zeren zerabiltzan orrela tristaturic?
Zure so estiac oro galduric,
Ala baduzun beldurgunderic,
Maitatzen dudan zutaz bertceric?

3

Balin banago tristeric,
Eznagozu arrazoin gaber
Lurrian zartu nauzu biciric!
Beraz zerc eguinen deraut placeric,
Galduz gueroztican bistatic.
Maite bat zoinac ez baitu pareric.

4

Arrosac eder ostua,
Lurraren barnian du errua,
Usaina gocho izana gatic,
Mudatzen da gaichoa:
Yendiac zer nahi errana gatic
Nic zureztat dudan amodioa?

9. Ikus F. Michel: aip. lib. 307.orr.

XIII (XXX). BERTSO BERRIAC AURTEN JARRIAC PROBA
BATEN GAÑIAN CHIT BARREGARRIAC

1

Cantatu gura ditut sembat berso berri
Aditsen emateco probalariari
Dirua jocatu da publicuan garbi
Baita depositatu Presidentiari.

2

Muniquetaco landan probau da jocatu
Ogueta amarna ducat eben presentatu
Don Juan de Zugadi euren Tesoreru
Yrabasten dabenac arseco seguru.

3

Sembat proba ta joco dirades jocatu
Yñoc onelangoric estu esagutu
Yrebasten dan gausa edoceñec artu
Galdu dabenac guero atcera escatu.

4

Personac claro biarleuque jocatu
Es cembatec becela achaquia artu
Gentiac euqui eban aimbat erreparu
Argaitic esan eben hac irabasidu.

5

Jose de Undagoitia Ybarruricua
Postura eguiñarren damutu bagacua
Genero gustietan creditu onecua
Probabat equin eban Yrabastecua.

6

Beascoechea asizan aurrena eguiten
Undagoitia guero arena estaltsen
Guizon asco ciraden probaori icusten
Publico dan gausabat nor dun ucatsen [sic].

7

Placiac eman eban onradamentian
Postura guelditseco Undagoitiagan
Beascoecheac guero damu artu eban
Zugadi jaunen contra disputia eman.

8

Sentencia galduric guero pensatu dau
Undagoitia gana demanda giraudau
Guernican justiciac orduan asmaudau
Jocua nulo dala ¿au noc icusi dau?

9

Legueren batsuc diras berriac etorri
Mejorac emoteco galdudabenari
Nungo Juezac leique ametidu ori
Bestela preguntatu Abogaduari.

10

Errico Justiciac licencia emanic
Posturia austeco ezdago iñon Juezic
Gobernadore Jaunac leique au bacarric
Da ez Guernicaco Juezac leguia ausibaric.

Juzgatuteco gausa berriz autortuten
Beste onelaco bat señec du icusten
Diru irabatsia atcera ematen
Nor abiatuco da gauzori eguiten.

12

Galdu ebenac nora egozan beguira
Acabatu zanian probaren gira
Pasatu eta guero eman arpequira
Aditsen emangodet Vizcayric erdira.

13

Guizona izan bacina buru onecua
Etsendun escatúco postura galdua
Ascoc artu biardau ceure egempluba
Baña ori izanda traicios artua.

14

Guraneuque guizonac jocuan jocatu
Galduaren dirua atcera jiratu
Beascoechea orrela nun icasidozu
Honoriac galseco bera asco desu.

15

Don Juan de Zugadi Alcatesat artu
Bere obedencian guenduan jocatu
Parte bioc orduban guinien contentu
Baita gueure diruac berari largatu.

16

Jose de Beascoechea Ybarruricua
Jose de Undagoitien contra jocatua
Gente ascoren vistan pruebia galdua
Atcera escatcendau derecho baguia.

17

Yrabasi badosu gustia oso quendu
Norberen gausa ifioc estu gara galdu
Bestela Juesari sasu preguntatu
Papelac artu eta Borgosera sartu.

18

Probetan aimbat diru dirades jocatu
Alteracio bague galdua pagatu
Yfioc ser esanican esin leique artu
Eguin esquetisco proba acabatu.

19

Sarri eguiten diras errietan probac
Parte biac jarriric defensore onac
Gañera Alcateta presente daosanac
Mejorac jasoteco gueiago direnac.

20

Batetic iru eta bestetican Zaspi
Testianza ematen ciradela asi
Trampiaquin esinley asco irabasi.
Galdu nai estabena espeiteque asi.

21

Jose de Beascoechea presente euqui
Galduaren dirua es izan erruqui
Publico san postura bertan erabagui
Diruac emateco Undagoitiari.

22

Gentiac jocatcendu aimbeste partidu
Basuec irabasita bestiac galdu
Oin artian onela diras gobernatu
Ez galdutacoricari ñori escatu.

23

Jose de Beascoechea zu sera probari
Ciur irabacitsat etecinan asi
Orrembeste meritu estosu mereci
Yndar gueiagio daucanas ezaiteque asi.

24

Sembat diru aldezu atcera escatsen
Yrabatsi esquero Zaiatu cobratsen
Ycusi etedoza sorrembat parcatsen
Egundan probarequin etsara portatsen.

25

Jose de Beascoechea au da despedida
Se trampa eguin dozun orain aguirida
Leguietan tramposuac gueiagio badira
Urrengo probabaten aguertuco dira.

XIV (XXXI). SAN IGNACIO LOIOLACORI GOZUAC

Introduc.

Deiez dago Ondarrua
Auaz, eta gogotic
San Ignacio Cerutic
Iguzu zeure escuba.

1

Loiolati zuc dozu
Aitaren Jatorrija,
Amaren Idalguija
Ondarruan daucazu:
Alan Quiputz, ta Vizcaijac
Zauqueez erdibituric:
San Ignacio Cerutic
Iguzu zeure escuba.

2

Licuaco Jaureguija
Dago zaartuta emen
Ta cein ezaguna len;
Orain baña jausija.
Ai! imini-albaguengui
Loiola bat eguinic:
San Ignacio Cerutic
Iguzu zure escuba.

3

Aguertu nai badozu
Dozun escu andija,
Zure Asaben errija
Doez bete biar dozu.
Au gagoz escatuten
Verbia zolituric.
San Ignacio Cerutic
Iguzu zeure escuba.

Ez andi, ez chiquiric
 Arquitu da munduban
 Euren biar orduban
 Lagundu ez dozunic:
 Ichico-ete dozu bada
 Zeure Errija bacarric?
 San Ignacio Cerutic
 Iguzu zeure escuba.

5

Gueure biar estubac
 Gacaz gu gaur Zugana
 Baaquizu ondo dana
 Billeetia Santubac.
 Guc esquetan doguna.
 Emoiguzu bertatic.
 San Ignacio Cerutic
 Iguzu zeure escuba.

6

Asco da len munduban
 Zuc eguin cendubana
 Gatoz bada Zugana
 Zagozala Ceruban
 Etziñan orra juañ
 Egoteco alperric.
 San Ignacio Cerutic
 Iguzu zeure escuba.

7

Len ta guero bat zará
 Onguiña zu bai beti,
 Ez uca arren guri
 Amarena bazara,
 Iñoc bere ez dauca.
 Guc beste escuvideric.
 San Ignacio Cerutic
 Iguzu ceure escuba.

8

Liorrez, ta Ichasoz
Ceimbat on eguin dozu?
Cerbait ichi badozu
Izan da gure alperrez.
Gura dozun guztia
Daucazu zuc eguiñic;
San Ignacio Cerutic
Iguzu zeure escuba.

9

Icusico-ez guenduban
Francesen Esetsian
Garaubat gueure errijan
Euqui baguendu orduban
Zuc leguez Pamplonan
Coldartuten ez danic.
San Ignacio Cerutic
Iguzu zeure escuba.

10

Erri dana erreric,
Len leguez zure echia
Jausi бага Onria,
Subac bota bagaric;
Ezda ez mirari au
Euquiteco azturic.
San Ignacio Cerutic
Iguzu zeure escuba.

11

Cembiltzala Ichasuan
Jagui jatzun Trujuba
Ceruraño Olatuba
Ta zu bisuts barruban
Baña-echatzun icusi
Icararen apurric.
San Ignacio Cerutic
Iguzu zeure escuba.

12

Zu artu etzenduzan
 Oncija ondaturic
 Ta Gentia itoric
 Beinguan gueratu zan;
 Baña zugaz juazanac
 Iza ezeben calteric.
 San Ignacio Cerutic
 Iguzu zeure escuba.

13

Bein baño sarrijago
 Arquituten gara gu
 Ichasuan larri-estu.
 Noc lagundu eztago,
 Ai gomutau baguiña
 Zugaz ordu atatic.
 San Ignacio Cerutic
 Iguzu zeure escuba.

14

Ez guenquian guc ez len
 Ciniana gueuria
 Zure Amaren Echia
 Gueuncala bertan emen
 Ez gara ez vicico
 Au eruncian azturic.
 San Ignacio Cerutic
 Iguzu zeure escuba.

15

Izanic zu beti
 Ain anima zalia
 Ondarruaco Gentia
 Quendu ez eizu gogoti.
 Egon gaitian guero
 Ceruban alcarturic.
 San Ignacio Cerutic
 Iguzu zeure escuba.

XV (XXXII). CANCION DEL VINO

1

Ay niri cer eguin ote zat!
oñas ibiltsen astu sat
buruba jaso ezin det
lurrera idoro ecin det
triste du viotsa gustis
edan desadan ea verriz.

2

Ay au erari gozua
Serutic getchitacua
au emen icusiric
nago ni choraturic
viotsa daucat tristeric
edan desadan eá berriz.

3

Ardo picaro gaistoa
ic galdu didac buruba
edandet chit gogotic
ardo cendo onetatic
jaquin vanuben lenago
edango nuben guejago.

4
 Noe guizon adituba
 cerorren pensamentuba
 izanzan chit andija
 paratsia mastija
 zu cera ardoren autore
 o zorijoneco Noe.

5

Erra zayogun Jaunari
 demala indar cepari
 libradesala arritic
 aise legor gorritic
 esca sayogun verari
 demala ardo ona eta ugari.

6

Medicu Barbero gustijac
 erremedijo andijac
 dituste vestientsat
 baña beti eurentsats
 erremedijoric onena
 ardoric aldanic zarrena¹⁰.

10. Ikus S. Onaindiaren: «Mila euskal olerdi eder» liburuaren MEAGHER-en barianteak. Zornotza, 1954, 245.orr.

XVI (XXXIII). ETCHE ARRATOYA
ETA SORO ARRATOYA

Soro arratoi batec
Eche arratoya
Icusi zuen lodi,
Guicen, eta joya.
Adisquidea dio,
Bertatic esaten,
Zure mardultasunac
Gutziz nau arritcen;
Nombait ongui onada
Daucazun biciya,
Eguia esateco,
Dizut embidiya,
Nere bici modua
Jaquin nai badezu,
Erantzuten dio arc,
Zurea esazu.
Ni, dio Sorocoac,
Zelaiz zelai nabill,
Ale bat edo beste
Ote dezadan bill.
Ascotan biurtcen naiz
Zulora lerturic,
Alecho bat bacarra
Bildu gabetaric.
Orduan jaten ditut
Belarren sustrayac,
Eta izaten ditut
Sabel errabiyac;
Nere bici modua
Orra adisquidea,
Orain jaquin beardet
Nic ere zurea.
Arrazoya daucazu,
Dio erantzuten
Eta asitcen zayo
Onela esaten.

Zure bisaietzetan
Det ongui icusi
Asi eta betean
Ez cerala bici;
Arguia aguirida
Batetic bestera,
Negu onetan zoaz
Goseac iltcera.
Eroen contua da
Nequez bicitcea;
Onela ari dala
Sabela betetcen,
Caturen miauac
Dirade aditcen.
Aditu becin iaster,
Eta salto bian,
Echeco arratoya
Sartcen da cabian.
Ura icusi eta,
Guero sorocoa
Lasterca ondotica
Argana dijoa.
Nai baño nequezago
Sartuzan chulotic,
Ceren sabela ceucan
Lucaincaz beteric.
Icusten du laguna
Icaraz betea
Neque andiarequin
Artcen asnasea.
Cerde, esaten dio,
Cerde beldur ori?
Cer guertatcen zaic mutill?
Esan zadac niri.
Asnas eciñ arturic,
Dio eranzuten
Catuaren miauac
Ez dituc aditcen?
Badituc lau echean,
Lauac eiztariyac,
Oiec jancizquidatec

Nere bost anayac.
Beguiria zuc nola nic
Daucadan buztana,
Erdiya larrutua,
Beste erdiya jana.
Doi doya egun batez
Nian igues eguiñ,
Contentu guelditu nac
Onen besterequin.
Gueroztic galtcen diat
Osoro burua,
Aditcen dedanean
Catuen miaua.
Au enzun zuenean,
Dio sorocoac,
Zurrena neque gabe
Tripa betetcea.
Sinistatu nazazu,
Nic, adisquidea,
Oraindica ez daquit
Cer dan necatcea.
Bizquitartean nago
Beti uguituric,
Jan baño jan naiago,
Eta ecin janic.
Atoz icusdezazun
Nola nic echea
Goitic bera daucadan
Janariz betea.
An daucatzit cincillic
Gazta Flandescoac
Odolquiac, lucaincac,
Eta chorizoac.
Bacarric nago, eta
Nai nuque laguna,
Igarotceco pocez
Jostatcen eguna.
Ozta soro arratoyac
Zuen au aditu
Berealache cion
Atcetic jarraitu.

Echera cirenean
Elcarren ondotic,
Sartu ciran despensan
Catuen chulotic.
Sorocoac ozta du
Goratcen burua
Uste du icusitcen
Duela cerua.
Cer da au! dio ojuca,
Au bai dala mauca!
Onelaco fortuna
Munduan norc dauca?
Pocetz eroturica;
Trast, salto batean,
Igo, eta jartcen da
Lucainquen gañean.
Jan, eta jan ari da,
Ecin uguturic,
Ez du iñorc icusi
Alaco jaleric.
Maiz badira icara
Gaur bezalacoac,
Oa mutill naibadec
Deabru echera,
Naiago diat nic joan
Sustrayac jatera.
Gabaz irtenic joan zan,
Esanaz bidean,
Peligrotica libre
Arquitu zanean;
Obediat nic ascoz
Pobreza paquean
Ez aberastasuna
Icaren artean ¹¹.

(Agustín Iturriaga)

11. Seguruenik L'ARIEL, «Journal Littéraire de Bayonne»-n A. Chahok argitaratu zuenetik (1845), hartua.

XVII (XXXIV)

1

Eguzqui zoragarri
diamante fina
maiatzeco larrosa
edo clabelina
besteren alabari
orrelaco mina
aitaren acioa
esta ongui eguina
eguizu cere partetic
arren aleguina.

2

Aitaren licencia
logratzen espada
iqual juangonaiz
Ameriqetara
bitartean su ongui
nai zinduzqee para
urteac dituzuneco
etorri onera
orduan fuerzas ere
ezconduco guera.

XVIII (XXXV)

1

Esta diamanteric
ez urre gorriric
alegrancia baño
munduan oberic
ezin egon nezaqe
zurequin isilic
puscabat danzatu ta
cantatu bagueric.

2

Begui ederra dezu
gucis aleguere
ezin egon nezaqe
ceu ecusi gabe
violetza det barruan
baita anima ere
bici ceran artea
zuretaco dade.

3

Ceure amoriozco
begui ederroquin
beguiratu eidazu
gogo onarequin
ezin astu nezaqe
beinere zurequin
zu portazen bacera
onela nerequin.

4

Zure gorpuz ederrac
 enamoraturic
 nago melancoliac
 alperric galduric
 estet ecusi ynun
 zu becelacoric
 argatican naucazu
 ala ichuturic.

5

Jardin eder batean
 daden lora ederrac
 ala irurizenzait
 ceure begui beltzac.
 escu ederra dezu
 igual biatzac
 esdago zulacoric
 munduan nerezat.

6

Gorputzeco tallean
 ezdezu quejaric
 ez arpeguian ere
 batere mancharic
 pauso polita dezu
 ezdaqit besteric
 esdizut nic billatzen
 batere tacharic.

7

Jauci eguiten cera
 gucisco ederqi
 nere beguia ezda
 aldazen zugandi
 ezin munduonetan
 bizi nezaque ni
 escoa emon gabe
 bert edo urruti.

8

Zure amagandican
 jaio ziñanean
 ederra jaio cinan
 bai zorionean
 munduco prenda eder
 gucien artean
 ezin billa lesaqe
 zure presencian.

9

Orra amaica berso
 nic tintaz paratu
 enamoratu bati
 cer zaion gertatu
 alaco andre ederra
 zuen escojitu
 baldin bere gustuac
 cumplitu balitu.

XIX (XXXVI)

1

Iru damacho Donostiac
Errenterian dendari
iosten ere badaqite baño
ardua edaten obeqi.

Estribillo:

Ta crisquitin crosqetin
larrosa clabelin
ardua edaten obeqi.

2

Iru damacho Donostiac
irurac gona gorriac
sartzen dirade tabernan eta
irtetzen dira ordiac, etc.

3

Donostiac nescachacuac
calera nai dutenian
ama estago piperric eta
banua salto batean, etc.

4

Iru damacho Donostiacoc
eguin oidute apostu
norc ardo gueiagio eran eta
cein guchiago moscortu, etc.

5 VXXX) XIX

Donostiaco iru nescachac
zaraguiaren onduan
echera bear dutenic
esdaducate gogoan, etc.

6

Donostiarrac ecarri dute
Guetariatic agerra
campantorrian paratu dute
aita santua dutela, etc.

7

Donostiaco cale nausico
erdi erdico echean
nescacha batec moscorra ceucan
camisa utz utzean, etc.

8

Donostiaco molle gañean
egun sentisentian
lastan ederbat eman ciraten
bular biaren erdian.
Estribillo:
Da qitarra cajolin
atabal dambolin
docella maja zureqin¹².

12. Ikus barianteak Pascal Lamazou-ren kantutegian: 50 chants pyrénéens; 34 airs béarnais, 14 basques, 2 des Pyrénées orientales. Avec accompagnement de Piano. Pau (1874?).

XX (XXXVII)

1		I(XVII)
18	Guizon bat ardobague dago erdi illa	II(XVII)
21	barbar dabilitza tripac	III(XVII)
22	ardoaren villa	IV(XVII)
30	baño edan ezquero	V(XVII)
33	ardo ona ta ongui	VI(XVII)
	guizonic cascarrenac	VII(XVII)
	balioditu vi.	VIII(XVII)
2		IX(XVII)
	Londresen ta Parisen	X(XVII)
	Erroman ta Goan	XI(XVII)
	arduaren usaia	XII(XVII)
	daucate gogoan	XIII(XVII)
	arduac quenzen digu	XIV(XVII)
	viozeco miña	XV(XVII)
	berriz erateco	XVI(XVII)
	emandit sotifia ¹³ .	XVII(XVII)

13. Ikus J. Manterola: Cancionero Basco, T. III, Donostia 1878, 53.orr. an barianteak.

AURKIBIDEA

Sarrera		13
I(XVI)	Altbaskisches Lied	16
II(XVII)	Altabizcarraco Cantua	18
III(XVIII)	Fragment aus einem Kriegslied	21
IV(XXI)	Gaboneco Cantia... 1819	22
V(XXII)	Marquina, Xemein ta Echevarric... 1823	30
VI(XXIII)	Chanson Erotique	53
VII(XXIV)	Chanson Bachique	55
VIII(XXV)	Chanson Bachique	56
IX(XXVI)	Lamentation d'un Vieillard	57
X(XXVII)	La Rencontre du créancier et du débiteur ...	58
XI(XXVIII)	Le Rossignol	59
XII(XXIX)	Entretien d'amour	61
XIII(XXX)	Bertso berriac	62
XIV(XXXI)	San Ignacio Loiolacori gozuac	67
XV(XXXII)	Canción del vino	71
XVI(XXXIII)	Etche arratoya eta soro arratoya	73
XVII(XXXIV)	Eguzqui zoragarri	77
XVIII(XXXV)	Esta diamanteric	78
XIX(XXXVI)	Iru damacho Donostiaco	81
XX(XXXVII)	Guizon bat ardobague	83

KLASSIKOAK... ETHORKIZUNARI BEGIRA

Federico Krutwig

Titulua' hirur hitz baizik ez denarren, textu zahar batzuetan bezala hasi behar dut, hitz hauietaz zer enthelegatzen den argitzen, zeren eta batzuetan hitz hauien bidez gauza enantioak enthelegatzen bait dira.

Zer da klassiko bat?... Hitz hau latinetik dathorku, eta bere erran nahiaren ithurburua' Erroma hiriaren erromatar lagunak nola banantzen zirelako egokeran dago. Erroman berez hiritarrak bortz klassitan banatzen ziren, hala ere' nola Erromatarrentzat hiritar goienak, hau da: goiko klassiaren hiritarrak' soilik egiazkoak bait ziren, halatan ere *classicus* hitza geroagoz goiko klasearen hiritarrei buruz emplegatua izanik da. Halakotz Erroman *classici scriptores* zioitenean' lehen ordeneko irazleak gan pentsatzen zuten. Beraz huntaz ba genedukake deffinitione baten lehen urrhatsa. Bainan gaur egunean «irazle klassikoak» erraiten dugunean' hau baino gehiago enthelegatzen dugu. Eta hemen ba lethorkegu Immanuel Kantek bere «Kritik der Urtheilsakraft» (hau da: «Juddamenduaren Ahalmenaren Kritika») izeneko liburuan, zioena liburu huntan egiazko kallitekhiariaren normak zertan zeuntzan juddatzen zen. Kantentzat irazle edo artista klassiko bat izaiteko, nahi eta ez, gizon genial bat izan behar da. Eta hau hunela erraiten zuela' pentsatzen zuen, ezen soilik gizon ge-

nialak artistak izan zitezkeela Hortakotz erraiten zeraukun ezen: «Schöne Kunst ist die Kunst des Genies» (au da: Arte-ederra (edo Kallitekhneâ) gizon genialen ekhinta da».

Hitz hoietaz hasi zen paragraphoan hauxe diosku: «Genie ist das Talent (Naturgabe) welches der Kunst die Regel gibt». Hau da euskaraz «Genialtasuna' Kallitekhniari (Arteari) erregelak emaiten derauzkion talenta (Natur-emaitza) da». Bainan Kanten aburuan, eta huntan batez ere geroagoz Schopenhauerek askoz gehiago theôrizatu du, arteak' soilik erakhuts diteke, arteak berak eginikako obra artistikoen bidez. Eta hunela derraku: «Die Muster des schönen Kunst sind daher die einzigen Leitungsmittel diese auf die Nachkommenschaft zu bringen». Eta geroz erraiten derauku nola, arte-lan bat nehola ere «deskripzione baten bidez» irakats ez liteken, eta batez ere hau' hunela' hizkuntzazko (hau da literatur) lane-lan gerhatzen dela. Schopenhauereren aburuz kallitekhniaren lanak' nola gizon genialen ekhoizpenak bait dira, halatan hauk ideien (eta hau zentzu platonikoan) ber-emaitza dira. Eta ideia baten konzeptu baten arteko differentziak jakin arazten dituela, erraiten du nola egiazko kallitekhniaren lan bat nehoiz ere' konzeptu betetik athera liteken, beraz gaur eguntan batzuetan «arte konzeptuala» terminoaz ezagutzen dena, berez *contradictio in adjecto* bat den.

Huntara baldin eta lan klassikoak' gizon genial batzuen bidez «edertasunaren» sentimenduari' norma-emaitza bat bada, hau baino gehiago, baldin eta gizon genial batzuek gure aisthêsiaren normak finkatu baldin ba dituzte, «artista klasikoak» (eta berheiekin lan klassikoak)' aisthêtikêaren normak eta legeak eman dituzten persona genialak dira...

Hemen beraz lethorkegu berriro... «eta hauk zeintzu dira» galdea. Hemen gauzak nolabait errazago agerten zaizkikegu, zeren eta hunelako genial gizonen taldeak, munduan bethi bakharrrik egonik bait dira, eta soilik Historian barna lekhu privilegiatu batzuetan ageriak bait dira, eta hau oso guttitan. Gaur egunean hunelako kultur kyklo edo enborretan, soilik laur unitate dugu. Sortzez hunelako lekhua Aigyptuan eta

Messopotamian ere egonik dira, bainan lekhu hauk geroagoz bere kreatibitatean agortu ta lehortu dira, eta gaur egunean —nahiz eta nolabait hor sorthurikako haziak Graikherrian ere bizirik irauten ba du— soilik unitate hauk ditugu: Importantena Athênetan sorthua dena, bigarrena: Indian sorthua, eta hirugarrena: Txinakoa. Laugarren bat ere dagoe la erran dut, bainan hau ez zen nehoiz hoin important, zeren eta baldin araboa ere' kultur kyklo berheizi bat ba da ere, huntan, —eta hau araboeke ere erraiten zuten—, erleginoaz bertzalde —zeina araboa berez bait da— bertze kultur ekspresione guztiak bethi arabitarrentzat «*addemiak*» izanik bait dira, eta *addemiaz* gainera gehienetan graikoak. Araboeke gudanatu duten kultura, ez zen heiek egina, baizik eta Athênetan mailegatua. Huntara Kantek erraiten zuen, ezen egiatan *klassikoak* bakharrrik graikaraz eta latinez iratxitako lanak zirela.

Huntara hemen berriro ba genedukate bertze deffinizione bat, hersiago, bainan jakintsunago ere bai. Hunen araura soilik: kultur enbor batetan LAN KLASSIKOAK hizkuntza klasikoetan iratziak dira, gure kasuan hortakotz graikoek iratxitako lanak. Eta hunela erraiten zuela Kantek thema hunen egia finkatzenago ta argitzenago zuen, zeren eta gure kulturaren gure modelo guztiak graikoek finkatu bait dituzte; graikoek. Epika, Lyrika eta Dramatika inventatu bait dituzte, eta heientzako normak ere, finkatu. Huntara' Europar herri guztien hizkuntzentzako arte normen ithurburua Athênetan dago, eta gure kultur —enborra eta lanen klasikoek bildumak hor ere bait dagotza. Halakotz berez ongi konturatzen ba gara... lehen terminoan klasikoak haur liratzek:

1.^a) *Goi-klasikoak*, egiazko klasikoak: Athênetan graikarazko literaturak emandako gizon genialen lanak, zeinak europar guztien Aisthêtikêaren normak bilhakatu bait dira.

2.^a) *Quasi klasikoak*: bertze hizkuntzetan eta heien imitazioan bertze irazle onak iratxitako lanak.

Bainan arte plastikoak oraingoz behintzat alde batera uzten ba ditugu, eta hizkuntzako lanetan konzentratzen ba gara, zeintzu modutara lanak' klasiko izan ditezke?

Lehena: *lan klassikoak'* gizon genialen lanak baldin ba dira, lan haien bidez gizon guztiek mundua interpretatzeko dituen aisthêtêrioen kapazitatea zabaltzen dela erran behar dugu. Eta hau batez ere gizonaren burufuinaren funtzionamenduari buruz' gaur egunean ikhertzapen berrienen bidez baieztatua da. Huntara ba dakigu nola kulturak' gizonaren juddamenduaren fakultateak hedatzen eta gehitzen duen, eta batez ere gehitzapen eta hedatzapen hauk egiazko kreatzailleei esker eginak dira beren lanen bidez, eta lan hauk huntara lan klassikoak dira, lehen zentzuan.

Bainan *quasi-klassikoak* izeneztatzen ditugunak, nahiz eta egileak' gizon genialak ditezenagatik, heien ekhinta bethi egiten dateke, jadanik darion kultur-ibai baten zentzuan. Europarrentzat' gure kultur enborra Athênetakoa da, berez nolabait europar guztiok graikoak gara; eta anglotar philosopho batek erran zuenez, europarretan graikoa ez dena, nahi eta ez, salbaia da. Bainan Graikar kultur enborrean ere adar berri batzu sorthu dira: eta hauk European bethi izan dira, eta hunela gerthatuak, baldin eta herri baten kulturaren jakinaren ganean, graikoen altxuma bat xerthatzen ba zen. Hunela Italian gerthatu da, Boccaccio eta Petrarka poetekin. Batez ere hauk biok, zeren eta hauiek ere graikaraz on-ongi ixtudiatu bait zuten, eta Fiorentzan' graikararentzat kathedra bat antolatu zuten.

Berdina Frantzian geroagoz gerthatu da, batez ere Luis XIVgr. epokhan, non erresuma hunen hizkuntzaren epokha klassikoa phiztu bait zen, eta berrikiago Alemanian ere, non horko literaturgile hoberenak, Goethe, Schiller, Hölderlin eta abar, bethi hellenista handiak ere izanik diren Beraz hemen agerten zaiku jadanik Wincklerek erran zuena: «Gutzat' gizon handiak bilhakatzekeko possibilitatea, irazle zaharren imitatzea da, eta huntara ere guk' ezin-imitatuzkoak bilhakatzekeko possibilitatea genedukake».

Bigarren klassikoen taldea berez nolabait Graikoen imitazionearen bidez sorthu dira.

Eta beren hizkuntzan' gizon hauiek, graikoek egina ber egin dute: Lehena hizkuntzaren expressatzeko kapazitatea hedatu eta finkatu. Eta hau jadanik gerthatu zen Erroman, non eta latina baserritar inkultuen hizkuntza baizik ez zena, graiko irazle genialekilako ixtudien bidez kapazitatua izanik bait zen. Bainan hizkuntza bat bi gauza izan liteke:

- a) *Kultura baten vehikulatzeko moien bat.*
- b) *Vehikulu hunen bidez aurrera eramaiten den karga bat.*

Graikoekilako hartu-emanetz bi gauza hok lortzen dira. Eta hunela ere italiko, alemaniko eta hitz batetan Renaissanceko epokhan sorthurikako hizkuntza guztiak desarroilatu dira. Bai hizkuntzaren vehikulutasunetik lehen mementuan bai eta geroz vehikulu huntan sartu den kulturaren bidez ere. Huntara orain genthorke euskararen kasupezifidora.

Euskarak ere' Renaissance epokha berant batetan' egiazko literatur hizkuntza desarroila zedintzat beharrezkoa den tinkotasuna ardietsi zuen Leizarraga Berakoizkoaren eskuetatik, eta geroz Sarako irazleen taldearen bidez... Hemen aiphatzeko lizateke Schuchardt hizkuntzalari famatuaren aburua, zeinen arauera Leizarragaren Bibliaren itzulpena irakurten duen persona batek' nahi eta ez pentsatu behar luken, ezen irazle hunen aurrean euskal irazleen leinu eta tradizione luze bat izan zela, haren euskara hoin landu agerten zaikulako. Halarik ere hoin eratu zen lanhabes horrekin, euskaldunek geroago gutti egin dute, ezen vehikulu hunen bidez gutartean vehikulatzen zen kultur-karga oso ttipia izanik da. Halakotz kasu huntan «euskararen klassikoak» izenezta ditzazkegun irazleak' soilik ikhuspuntu batetik important dira, eta hau da hizkuntzaren gerthutzearen ikhuspuntutik.

Hortakotz euskara eta Graikoen enborrtik sorthurikako bertze kultur hizkuntzak elkharrekin erkatzen ba ditugu, erraz ikhusiko dugu zein handia den differentzia frantsesek, italiarrek, angloek eta alemanek vehikula gerthuaz geroz, karrroza huntan kreatu zuten kultur-karga opharo sartu dute;

gutartean ez da hunelakorik gerthatu, eta hau batez ere' zeren eta literatur euskararen basia Bibliaren itzulpen protestant baten bidez egina bait zen, Alemanian bezala, bainan Alemanian eta Angloherrian ez bezala, gutartean erahil zerakuten burgesiaren kreatzailea izaitekoa zen giza-talde protestanta.

Hunaino aipathu ditudan kultur-enborrharen adarrak, hau da graiko kultur enborrharen adarrak, adar hauk izan direlaz konturatu zarete dudarik gabe: italiarra, frantsesa, angloa ta alemanoa... bainan ez dut aipathu gaztelaua. Eta hau hunela egin dut zeren eta gaztelauak bertze adarrei buruz spezialitate batzu daduzkan. Dudarik gabe gaztelara kultur adar handi ta on bat da, bainan ez da sartzen bertzeak bezala % 100 europar direnetan, zeren eta Gaztelan kultura' bethi arabitar kulturarekin harremanetan egona bait da, eta garaikoen influentzia Gaztelara zuzentki ez bait zen ethorten Athênetatik edo Byzantiotik, baizik eta araboen bidez: a.bz. Jakina den bezala Ibn-Ruxd edo latinez Averroës Kortobako semea zen. Bainan gaztelar kulturaren ez zen bakharrik sartu garaikoen kultura hori, baizik eta askotan arabitar kulturaren izpiritu erleginotsau ere, batez ere: intollerantzia kultur arazoetan.

Huntara hemen' gure tituluaren bertze hitz baten deffinitionera heltzen gara, *zer den ethorkizuna* delakora. Entzun dukezuen bezala Physikê Berria sorthu da Relativitatearen theôriaren bidez, Hunela lehenago onhartzen zen deffinitione kartesiarra, zeinen araura denpora nolabait minus-x punktuaren sorthurik; o-puntuaren barna pasatzen, plus-x puntuera joaiten den dimensione simples bat bait lizateke. Huni aitzî' Physikê Berrian' denporaren ibilzentzua, objektuen bidez juddatzen da, eta futura' (ethorkizuna) posible eta probable dirateken objektuen lekhua dela erraiten da, eta objektu hauk objektivakuntzaren leiho batetik sartzen direnean «orain-al-dian» sartzen dira, bainan hemendik aurrera heintzat bertzelako «gero» bat legoke, eta lekhune huni euskaraz «joankizuna» hitzaz ezagut-araz genezake.

Hau erranik, ikhusten ahal dugu, nola graiko literatura, eta hortik sorthurikako literaturak bethi izan diren «ethor-

kizunari» begira egon diren literaturak aitzitik gaztelaua, no-la *verista*, (edo *egiatista*) bait zen, objektivatut egokerei buruz mintzo izan zaiku, eta huntan bere personalitatea bait datza, joankizunari begira egoiten dateke, eta hunelako kulturaz bere personalitatea kreatzen duen persona bati egokera hau batez ere, gaur egunean egiten ari zaiegun iraultza kybernêti-koari begira osotoro hondikozkoa izan lekidikeo. Gaztelaua ama-hizkuntza dutenei hala ere egokera hau ezinbertzea zaie, beren ama-hizkuntzaren egiazko personalitatea hola erditu duten ber, bainan hemen euskaldunen egokera bertzelako bait da, mementu huntan gutzat orain-arte gaztelau kulturarik ez egitea faktu negatibua izaitereen orde, oso positibua izan lekidikegu. Lehenik Renaissancean euskara ere' bertze eurôpar kultur hizkuntza bezala' bere vehikulutasunean behintzat graikar kultur karga bat eraman zezantzat pentsatu zela bait zatekeen.

Bainan ahanzi behar ez genuke ezen gure kultur vehikulu hunek bere spezialkuntzak zituela, zeren eta vehikulu hori laburdara klassikoa izanik bait da. Hizkuntzaren forma hau, luxus-karroza bat izaitekoa zen, bainan hartan ez dugu sartu beharrezkoa zen edukia, aitzitik, haren kontra ari izaiteko, ethorri zaizkigu vulgaritatearen maithaleak, eta luxus-karroza baten orde, nahiago karretillak maitha zituztela erran zeraukuten. Berhain karretila batetan ezin liteke eraman berez luxus-karroza batetan aurrera eraman behar den kultura, no-la bait da goi-kultura bat, graiko-europarra lakoa.

Eta euskara «batua» izenekoa' izan ahal lirateke, karroza hunen forma berria?. Nire aburuz osotoro ezetz erran behar dut, eta batez hau ezina da kultur kreatzekotz. Lan tekhnikoentzat, behar bada nolabaiteko euskal-esperanto edo euskal pidgin hizkuntza baten modura, Tekhnikêan eta Mathematikêan erabiltzeko ez du ukhanen ezain ere oztopo ezain ere empodisma... bainan bertze gauza bat da, kreatzaile baten burufuinaren zelulak zizatzeotz, zeren eta literatur hizkuntza batuak sortzen bait dira, literatur tradizione baten bidez, lan klassikoen bidez. Ba dakit euskara batua zentzu huntan % 90/an ia laburdara klassikoa bezalakoa dela bainan falta

zaion portzentaie ttipi hunek beharrezkoa den *quid* hori da. Eta behin eta berriro aipatu behar duket zein important den egiazko euskal tradizioe hizkuntza batu bat bultzatzea, eta ez nehoiz ere bere bizian euskaraz iratzi ez dutenen erabaki «szientifiko» bidez eraturiko pidgin-euskara bat, zeren eta gure gizarte pyramidearentzako goi-euskara tradizional bat eduk ez ba geneza, egin ahal genituzkeen esfortu guztiak vanoak izaiten bait diratezke ezen edonun ere Gizartearen Pyramidearen Goiko puntuak exemplua emaiten bait du, eta herri batentzako modeloa bait da, eta orobat modelo klassiko eta kultivatuhori eduk ez ba geneza, euskararen zoria eta Euskalherriarena batera jadanik galduak bait liratezke, eta orduan guztiok euskararen monumentuaren gainean, eta harekin Euskalherriaren epitaphioan jadanik Requiescat in pace bat iratz bait genezake. Beraz gaur egunean gure eskuetan dagoke, ala gure literatur ithurburuetarat itzul, eta klassikoetara, bi zentzutan ; euskarazko hizkuntzazko forma klasikorat, eta Graikoen literatur modelo klassikoetara itzulzen gara, eta haren bidez geroagoz, italiaraz, frantsezaraz, angloaraz eta alemanaraz iratzitako lan quasi klassikoetarat, ala bertzenaz, gaztelarazko klassikoetarat itzul ba gintez, bidaie huntaz batera epitaphioa ere eramaiten dukegu. Eta geuk gaztelarazkoen influentziaren bidez nolabait euskaraz egiten dukegun orain bezalako erdal gaztelaren influentziaren azpiko literatura egitearekin aintzina joan ba gintez, euskarari eta Euskalherriari graikaraz *kôneion* eta latinez *cicuta* izeneztaten den ponzoina emaiten generaukete eta ehotzen.

G. ARESTI ZENAREN LANAK

Aurreko zenbakian G. Aresti zenak euskaraturiko Danteren komedia, «Infernua»-ren lehen zatia argitaratu genuen (guk dakigunez hor bukatzen da Dante-rekikoa), Jokin Zaitegi zenaren paper artean aurkitua, sarrera oharrean aditzera eman genuenez.

Baina paper horietan besterik ere etorri zaigu eta horiek argitaratzeaz arduratuko gara, orainarte egin dugun bezala, gure idazle emankorraren ohoretan eta literaturaren onetan.

Paperok, esan bezala, gaur egun Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan gordetzen dira eta erakunde horri eskertu beharra dugu *Egan*-en argitaratzeko gure eskuetan jarri dizkigulako.

Oraingo honetan «Hasarre-dantza» eta «Prélude à la musique de la dance» hautatu ditugu elkarren kidekoak direlako. Badirudi «Godalet-Dantza» zeritzanakin baduela jarraipen gisa zer ikusirik. Bestalde, parentesi artean jartzen dituen hitzak lehenago ere erabiliak zituela aditzera eman nahi dugu (ikus, *Obra guziak*, Poemak, I. tomoaren 102. orrialdean). Horiez gainera, hiru bertso bi poema ere sartzen ditugu, Olerkiak sailean. Aldizkari honen ondoko zenbakietan emango ditugu beste bi poema luze eta kontakizun bat.

Lanok argitaragabeak direnez, egilea eta bere lana zehatzago ezagutzen lagunduko digute.

Esan beharra dugu Aresti eta bere lanari buruz zerbait gisa azterketak egin nahi dituztenek, besteak beste, aldizkari honetan bildu ditugun lanetara jo beharrean aurkituko direla¹, bereziki azken bolada honetan emanak ditugun hainbat ohar, itzulpen eta zatiren bila. *Obra guziak* (1976) deritzan bi tomoak argitara geroztik *Egan* honetan ikusi bai dute argia honako lan hauek:

1982. urtean:

«Gabriel Aresti: Bere poesien Antologia laburra», hitzazurrez, oharrez eta argitaragabeko zatiz (1-2 zenb., 13-57 orr.).

1983.ean:

Aresti eta Tauer-en arteko harremana», J. M. Satrustegi (1-6 zenb., 23-48 orr.).

V. Paz Andrade-ren itzulpena, *Pranto matricial*, Coruña-n 1975ean argitaratua, baina gure artean ezezaguna, (1-6 zenb., 59-67 orr.).

1985.ean heriotzako hamargarren urteburua betetzean:

(Bere oroitzakozko lanen artean ditugu).

«Gabriel Arestiren 200 puntuak», A. Zelaietaren azterlana (1-2 zenb., 41-53 orr.).

1. Gabriel Arestik bizi zelarik *Egan*-en argitaratu zituen lanak ezagutu nahi dituenak, ikus bere *Ipuinak* (1979) deritzan liburuaren hitzaurrean K. Mitxelenak eman zituen berriak, «Gabriel Aresti eta *Egan*», 11-16, orrialdeetan.

F. García Lorca-ren itzulpena, *Seis poemas galegos*, Madrid-en 1974an argitaratua (3-4 zenb., 83-89 orr.).

Adabakiak, J. S. M. (3-4 zenb., 191-192 orr.).

Dante-ren *Infernua*, lehen zatiaren itzulpena (5-6 zenb., 79-84 orr.)².

Eta horien jarraipenez datoz oraingo hauek, irakurgai eta era berean aztergai. Eta, arestian esan bezala, ondoko zenbakietan argitaratuko ditugu beste bi poema luze eta kontakizun bat.

J.S.M.

2. Lan horren bukaeran G. Arestik bere eskuz jari zuen: «Euzkogoan argitaratzeko eskariarekin. Infernuko bigarren kantua, datoren astean bidali izango zaitzu». Ez du inolazko datarik eta ez dugu ezagutzen lan horren jarraipenik (J.S.M.).

HASERRE-DANTZA (From «ZUBEROTAR MASKARADA:

Suite de danses souletines et mixaines»)

Birgina-begitarre genuen deitzen, hain zuen bere mosuak italitar arrasortzearen pintore batek egindako Gure Ama baten tankera, kara eta irudia. Hartan elkar batzen zen xahuz eta satsuz nuen guztia: haragiaren ustela, eta izpirituaren zindoa honen harroa eta haren apala. Mutirikeriaren bat ilki izan baliz beraren ezpainetarik, irudi dakidikedala munduak galdu ukan zuela ardatzaren zehatza, eta urak eman zukeela bero haundia eta erre zukeela hartaz burua ikuz dezana, eta suak berriz zeraukeola egarritsuari edanzalea irauungiko. Horigaitik guztiegaitik maite nuen —atsegin likits (uholdeak bosatu eta lurrutu) bat emanen lerauket, heurk— kolonbina apaingarri baten arauera— ukan heukeela garbi-itxura hori, mila hits, orban eta bekatu nardagarriren estalkia eta tapagailua. Eta trukezko amorantekin, puta inhalozkatu, emagaldu eta urdanga. gau baterako ohakideekin nengoela, oldozten nuen eta pensatzen nuen: «Biz honen artean bat —bat baizik ez, batekin edukiko nuke pagu naikoa —nire birgina-begitarrearen xahutasunaz moment batetan ez-izanik ere, xist-mist baten dirdiratzeta, trumoi baten azken burrunbaren luzea ez-iraunagaitik ere, eta poz-pozik, berze egitekorik, betebeharririk eta obligazinerik ezpainuen ere izate hontan, ongi, olenzaro-bezusa baten, urteberrikari baten bezala, eramanen nituke infernuko eternitate bateko oinhazeen eta larrialdien kateak.

Hola erakutsi nuen ene amorioa.

Aldare zuri eta dundu (1) ganean, zilharrezko kanderailuak (2) zituen Birginari, aboztuko bederatziurrena egiten ze-

raukon eta begiak belz-sakon zituen neskame baten memo-
riorekin...

Hire buruan iduri itxurga margul batzuk baititun,
negar egiten drautan;
herstegia (3) iauzten, eta legea (4) hausten bainakusa
negar egiten drautan.

Baina eztun ulerretan,
negarra, dihoazen arimen tema gogorra dela,
nire zortasunaren iturriak,
aize lizunki garbi batetan
lausatzen direla.

Hire lerdenera hotzean ikaritzen haiz,
bularren beirazko loratzea
lausengatzen draunadanean.

Eta hire begi politek,
negar latz ondoan,
erakusten diraudaten, nire pairuen gurutzez,
zelatak damainan
beldur eta maitezko
nahaste bat.

- (1) Blue of Mary's colour. Hautserre-eguna. T. S. Eliot.
- (2) Ihoannes Theologianoaren Apocalizsea edo Rebelazio-
ziona.
- (3) W. Shakespeare. Hamlet: prince of Denmark.
- (4) Georges Orwell: 1984¹.

Aresti S. Gabriel

1. 1984, Georges Orwell (Eric Blair, 1904-1950) ingles idazleak
diktadoreen aurka eztenkadazko kritika baten titulua da. (J.S.M.).

PRELUDE A LA MUSIQUE DE LA DANCE

(From «Suite des dances Souletines et mixaines»)

Nola gertatzen baitzait mementu guztietan; nola aspertzen bainaiz soinu berri batez-edo, zein, hastapenean behintzat, irudi baitzait barnerakoi eta liluragarri, hamaitu baino lehen-ere; nola gogaitzen bainintzen dantzarik zorabilagarrienean, atsegin zitzaidan neskaila besoetan edukiagaitik-ere; hala, bada, aspertu izan naiz argi eta zabal aintzinean nuen bide malgu eta faunaz. Sarr nendin ene etsean, ilhun eta armarme-sarez eta hautsez beterik zegoen nire etsean, eta nehoi ezer erran gabe, lot nitzan ene liburuak, harr nezan orduan nuen ianzki apurra, eta arbuiozko keinu atzipekorr batekin ene ezpain bihurrietan, padutarantz ihoaten den bideari ekin niezaion, beldurrezko aieru edo azterrenik bat-ere gabe, aboro-nahizko utzikin edo hondakinik bat-ere gabe.

Bideko harrixka zorrotzetan behaztopatzen nintzen artean, nire hauzoen soak nituen nabaritzen, nire lepoan, iltze-mai-luaren azpian, gabiaren azpian, zerraldo beltzeko zur-oletan sartzen den iltze bat bezala (zurginak, zur-arotzak, igarten ditut, haien lantegian erabilten dutelarik nire katabutaren egitean, hobitegian izanen zaidan, buztinezko lurr azpian ehortzirik, apurbanaka ianen nauten nire haragiaz elikatuko diren arren kafau furrundatsua) finkaturik, nola baita ezarri Iainkoaren kopeta ukigaitzean gizonaren asturuaren problema. Nitaz oldozten direla badakit. Zergaitik, ene Iaun betikorra, eman drauek gizoner oldozmena? Iauna, zergaitik? Egiaz erraiten drauat, hobeki zerbitzatuko hautela, deusean emaniko bezuza hori gabe. Eta dinotela:

—Zoro da; bai, zoro. Egiten du alde bere familietarik, guztiziatu ahal dezakeien onura eta probetxurik desiragarriena eskeinten draukotenean.

—Zoro naiz; bai, zoro. Eta nitan egin izan den zorotasun hau ene familitik heretaturik dut. Ene amona biak, eta ene aitaren osaba bat, bereterr zen bat, izan ziren hil zorategietan, eta orain-ere izeba bat dut zoro. Eta eznaiz kupidatzen zuetaz, iraintzen nauzelakotz, baina zoro etzaretelakotz. Eztakizue-a, agian, bakerano helduko etzaretela, zuen zuhurkerian irauten baduzue? Umantasuna, poetatasuna, martiritasuna eta saindutasuna dituzue bakearen eta loriaren ateak irekiten dituzten gakoak. Eta ilhuntzen zait kopeta, zuen iraina ezin barka diezazuekedalakotz, betarik ukanen eztuzuelakotz, zuekin nehoiz-ere egonen eznaizelakotz, bi mundu berezten dituen pareta guen artean baitago.

Irauten dut bidean, ebiltan eta ebiltan, bustirik ene adatsa goizaldean erori den euriaz, irakiten ene burua eguerdian galdatu den eguzkiaz.

Maurtuan ezker, edireiten dut, uste nuen baino laketgarriago, gorkugarriago dela. Igeritan dut haren gelditasunean, haren eihartasunean. Ikazten naiz han eztagozin zuhaitzetako enborretarik, aspalditik ebagi diren adarr kimudunetara igaitzekotz, zumarr batek ezin iasan ditzakeien madari, marrubi, gerize eta mertxike, umo, zorhi, gozo eta ezti batzuk dastatzekotz. Han dut gonburua, mukarua.

Eta agorrik dagoen lats bateko errekatik ikusten dut, eneganatzen, emazteki-tankera bat, paduaren pairuetako ezagugarriarekin haren begitarte erdi-zimurtuan (behin bolizkoa zena), aize kiskaltzailearen sakiakin haren kaderetan (behin behorr batenak bezaen mehe eta azkarr zirenak). Haren oinak ortutsik, haren adatsa burutsik, haren gorputza bilutsik. Bekatu bat dirudi mila bertute artean. Larrosatze ernai-berri bateko lehen lorea dirudi, mila urtez beilegitutako, eta anthropologiaz eta arkheologiaz minzitzen diren paper urratu asko artean.

Etorten zait eta irriparre hezi batekin:

—Hemen niagok —dinost—. Baldin maurtuak atsegini emaiten badrauk, neuri-ere emanen diraudak; baldin ba-kea eta mukurua kausitzen badituk hemen, neurk-ere kausituko ditikeat.

Bat-batean, eztakit nun otezegozin soinulariak, zisneen aintziraren balleta hasi zen inardukiten, eskuragarri, errax, edozein zentzutarako egina bezala, zisne gabe, aintzira gabe, ilhargi gabe, oihan-abarrotsik gabe, kulunkatzen genduela haren rithmuan. Besarka nezan gerrian, iarr ziezatan besoa sorbalda gainean, eta eskuak elkaturik, abia ginten dantzatan.

Mihia eta aho-sapaia garratz, mingots nituelarik (nire ezpainak haren belarri eskuinean), minzo nintzen, erraiten neraukola:

Zerarren etorr hendin nire bakartegira?

Hemen, eremuaren elkorrean egunaren

zigorrian, gauaren hotzean,

ezi tiagon aterperik.

Zerarren etorr hendin?

Gose eta egarri izaitekotz?

Ezaiz nekezalea.

Maite naunala...

Baina, gero?

Ihoa, ihoa, laisterr, hadi itzul lehen-baino-lehen,

hire huriaren ugaritara, nire huria eta ugaria

lehen zanetara, huria inguratzen duten zelaietara.

Igarri dun-a, hemengo urrikeriaz

asper hadinean, gertatuko dakinana?

Zoriona eta dostaldia iraun-ahal;

maitetasuna ezin-iraun.

Eztun iasanen beti.

Buru-indarrik ezpaitun.

Buruaren indarra elkarrena baino

iraunkorrago dun.

Bihurr hadi orain.

Oraintxe dun haroa.

Errumesa eztun orotsaren baizik abaroa.

Arestiarr Gabirel

BITINA BAT ARRATSALDEAN¹

(Soinua: «Ezkongaitan»)

Ortuetako abere artean,
bat dago gustir ederra.
Dotorezian dirudiena,
mahats arteko eperra.
Baldin itxuraz ederra bada,
usainez berriz okerra.

Egurdiko bero pisutik,
pasata gero aberera.
Gorri bititik zuri minera
Mota mota bitinaren bitinera,
orruz bere kolorea.

OLERKIAK

Azken orduko bitina motza,
ederra zinen goizean.
Kiautsa zeunkan ama-sabelak,
jaurtiki zinducanean.
Urrin bigunez lito zintezan,
alperrik arratsaldean.

G. Aresti

1. Honako hiru bertso hauek beste paper batean «Maria Ezkain» izenburuz agertzen dira, arpinan eskuz 1939. 3. 13. idatzita.

BITINA BAT ARRATSALDEAN ¹

(Soinua: «Ezkongaietan»)

Ortuetako abere artean,
bat dago guztiz ederra.
Dotorezian dirudiena,
mahats arteko eperra.
Baldin itxuraz ederra bada,
usainez berriz okerra.

Eguerdiko bero pisutik,
pasata gero aberea.
Gorri bizitik zuri minera,
ezagutu ta morea.
Modu tristean aldatzen zaio,
erruz bere kolorea.

Azken orduko bitina motza,
ederra zinen goizean.
Kiratsa zeunkan ema-sabelak,
jaurtiki zinduenean.
Urrin bigunez ito zintezten,
alperrik arratsaldean.

G. Aresti

1. Honako hiru bertso hauek beste paper batean «Maria Zozia» izenburuz agertzen dira, azpian eskuz 1959. 3. 13. idatzita.

ZEZENAK EGUNSENTIAN

(Soinua: «Ezkongaietan»)

Arrokapean daude zezenak,
itxadoten egunari.
Gorputzez egin omen diote,
otoitze bat Jainkoari.
Baina intentziaz gau-azkenean,
agertu dira arnegari.

Nik eztakidan leku batean,
beiak dirade akabatu.
Bakartadean ezin liteke,
fedea gaiztorik bilatu.
Zezen motzeri beren hobenak,
egin zaizkie parkatu.

Arratsaldetik animaliak,
ibili dira bei bila.
Iturri siku baten moduan,
joranez daukate zila.
Zenbait birtute edukiarren,
pekatuak dira mila.

G. Aresti

POEMAK

Jon Iriarte

—Bide ertzean datzan
kirikino burugogorraren gorputz odoldua
ikusiz
atzeratzen da kelebetoa.

Dirua ote daraman jakiteko
eskuak poltsikora sartu
eta
(instintiboki edo)
oinezean jarraitzen du.

* * *

—Orbela eta putzuak hainkapean,
tristezia eta bakardadea
bakarrik udazkenean.
Udazkenean bakarrik
bakardadea eta tristezia,
hainkapean putzuak eta orbela.

* * *

—Etxaurreko putzuko uretan
nabari haunat garbiki.
Harri bat
heldu zunan
sakonera,
abaildu ere
irudi ederra.
Ikaraka zebilen urak
mamutzar bat egin nahiean,
ikarak ugarituz
putzuaren iluntasunak busti nindunan.
Begiak jasoz ha zunan galera.
Nun hago maitia?

* * *

—Zu gaitz
bihurtuko bazina
zuhaitz,
suz agur mina.

ERREPIKETAN

Luis M. Mujika

*Txalaban, batxalan,
txabalan, latxaban
igeltxo tipia
hilargia jaten,
txabalan, latxaban,
batxalan, txalaban
hilargi zuriak
putzuan bi laurden,
batxalan, txalaban,
balatxan, labatxan
(aih, bere mamia
zein ona dagoen!),
latxaban, batxalan,
txalaban, labatxan
astotxoa ere
gose hilargiaren,
balatxan, txabalan,
latxaban, txalaban,
orain beste erdia
igela zanpatzen,
txalaban, batxalan,
txabalan, latxaban
ah, hilargi gehiago
ia ez gelditzen!!,
txabalan, latxaban,
balatxan, labatxan,
txalaban, batxalan.*

ZORO-MORO

Zoro-moro,
moro-zoro.
koplak kantatzen,
penak botatzen
nabil samintsu,
moro-zoro,
zoro-moro,
arrats gaitzaren
pena nabarmen,
zotinez itsu,
zoro-moro,
moro-zoro
—gau zahar, gau gazte,
hainbeste kalte,
zeinek dagizu?—,
moro-zoro,
zoro-moro,
ene hatsaren
hitzak dudamen,
bihotzak izu...,
zoro-moro,
moro-zoro...

Zoro-moro,
moro-zoro.

DANGA, MANGA, GANGA

Luis M. Mujika

*Danga, manga, ganga,
ganga, manga, danga,
menditik Hernani-runtz
Urumea hitzak bilduz,
manga, danga, ganga,
ganga, danga, manga,
ur berdoxtetan kizkur
amorraia bi kinuz,
danga, manga, ganga,
ganga, danga, manga,
morroiak ezin bildu
jabeak hainbat diru,
danga, manga, manga,
manga, danga, ganga,
pobrearen katiluz
nagusia okitu,
danga, manga, ganga,
ganga, danga, manga,
behartsuaren zitu
onak jaunak jan ditu,
ganga, manga, danga,
danga, ganga, manga,
zirkin-zirkun-zirkilu
bertso hauek finitu,
manga, danga, ganga,
ganga, danga, manga.*

Manga, danga, ganga...

FIRI-FARA

Josu Baez

*Firi-fara,
fara-firi,
hilargiak farra,
igelak intziri,
uren ispilutan
udazkenak irri,
fara-firi,
firi-fara,
negua pasatuz
ba ote udaberri?,
firi-fara,
fara-firi,
nagusiak ohostu
uzta maizterrari,
fara-firi,
firi-fara,
inork ez ematen
zortzitan beatzi,
firi-fara,
fara-firi,
eza eta gosea
pobreak afari,
fara-firi,
firi-fara,
igel-igeltoa
askan zurrupari...
firi-fara,
fara-firi,
firi-fara,
fara-firi...*

DAURRERA, BIHOTZ...

Aurrera, bihotz,
penak zanpari,
aurrera, arima,
saminen gaindik,
urre egositan
babak ta gari,
aurrera, gogo
(arren, lasa adi!),
gauetik haruntz
egunak argi...

*Harara, hara,
harara, hari,
zangara, zara,
zangara, zari,
aurrera bihotz,
penak zanpari,
harara, hari,
harara, hari,
aurrera gogo
(arren, lasa adi!),
zangara-zara,
zangara-zari,
aurrera, arima,
saminen gaindik...*

GAITZA

Josu Baez

Negarrez,
samiñez,
nola ez?
orduan ere, hi
hi azaldu behar
hain eranskorra.

Gaitza,
badirudien nigan itsasitako landare sestraka.

Ni ezagutzera etorri hintzela;
hori ez baiña,
nere zauria haunditzera.

Gaitza,
nere esteak zimeltzera,
nere prakak sistu;
Hortara.

Etsaia,
mamirik ez dukana.

Gaitza,
geza hiretazat nekeza,
batereza.
Hiretzat ezetza,
geza hiretzat mikatza,
pozik eza.

IKUSEZINA

Josu Baez

Nere negarra,
hire aberastasuna.
Nere odola,
hire egarri.
Nere biguntasuna,
hire gose.
Nere samiña,
hire gozotasuna.

Egarriaren soka luzetik jeisten naiz,
oinazedun bertso lerroetatik,
zeruaren karitatezko ezkontzi argiarekin.
Aingeru beltzetan hegotek eragitzen naute,
hitzezko espatak oinak ebakitzen dizkidate.
Baina urak salbatzen ditut nere deserturako.

JUSTIZIA KONTU BATETAN (R. Campoamor.

Jon Iriarteren *Itzulpena*)

Agurea eta eskekoa

Osaba Blasek, jendez inguraturik, zera zioen:

«oraingo honetan, hara kontu bat».

Igaro ziren hiru ordu laurden bat

eta, ahaleginean, han ziharduen:

«epaile zuhurrak, txiroa izan arren,

justizia egin zion ba!»

Eta adi zegoen txiro batek zera

osaba Blasi, maltzurkeriaz: «kia.

Txiroa izanik justizia?

Ondo diozu: hori kontua da.»

ZEZEN LARRUA

(Jarraipena)

*(S. Espriu-ren La Pell de brau
Otsalarrek euskaratua)*

XLI

Gutaz barre egiten duzu, haietaz
beti begiak idekirik ames egiten dutenez.
Baina ispiluaren sakona behatzen duzunean,
beldur zara logabeturik zaudenean.

Biluzik errautsetan, dago legenduna.
Hiru adiskide onbera, eta beste bat berantago,
nahigabeen gainetik pozezko negarrez.
Milaurteko hautsak ez du jantzi ahotsik:
«Gizona Jainkoa baino justuagoa ote den esango didazu?»

Armiarma hurbildu zen poliki-poliki,
hotz-hotzean heldu zen putzu zulora.
Hanka finak marratuz, zaratarik gabe,
haize, kristal, bizi, presondegiko denbora.
Horma ilunetan izen bat irakurriz noa.
Etzan ahal dudanean, ah ze burkoa heriotza!

Egarriaren soka luzetik jeisten naiz,
oinazedun bertso lerroetatik,
zeruaren karitatezko edontzi argiarekin.
Aingeru belatzen hegoek eragitzen naute,
hitzezko ezpatak oinak ebakitzen dizkidate.
Baina urak salbatzen ditut nere deserturako,
ezpain sutsuen esperantza larrirako.

Itzultzen den seme izutiaren jateko gogoa
musturkatuz zerriek nahi ez duten itzalean.
Aitak barkamenezko harriak jaurtzen dizkio,
dotrina sopa hitzezko mamiz.
Hasten da hondatzailea hileta samurrez:
gosez bazara, saiatu jadanik onaren itxuraz.

Itsuena lagun dela, itsuak aurreratu
ankerkeriaren amiltegiatara.
Zelan geldiarazi zalantzazko pausoak,
libreki gaitzean eroriko direla igartzean
egonezko begirada honen gelditasun zuria?
Oihu izugarriak itzulikatzen diren artean,
errenkada berri bat dator bidez haztamuka
betiko irentsiko duen ilunera.

Zahar aberats, bakarti, jarraitzailerik gabe,
alperrik zaizu kontsolamentu apur bat aurki nahia
gehituz urre metazko zure eremuak.
Ezin dezakegu eros azken ohandzako atsedunik.
Inoiz ez da iritsiko gau horiaren egunsentirik,
ez da ere ezingo duzu ikasi oihuaren ikasgairik.
«El-Elohe-Israel!
Behatz gazte batzu bakarrik, oraindik garbi badaude,
sendatuko lituzteke larru zabalduaren zauriak.»

XLII

Esku gazteak
—hotzak, azkarrak, garbiak—
jakin dezatela kontatzen.

Oinordeko zera
gorrotozko egunena
eta desgobernamenduarena.

Zaindu ernai
non dagoen gorderik
dirudun eltzea.

Poterea maite baduzu,
zure egin zazu
eta agindu gero.

Argizko sokaz
goaz amets
sakonen amiltegitira.

Eztiki doaz
hondoratzeko ontziak
itsas urrutietara.

Gaineratzen ziren begiak
itsu, amiltegitik,
keedun eskilaraz.

Bizi labur, lora:
esperantza nahian,
zeren amorratua.

Egarria neronek ase nuen,
eta inpernua barrezka
karitateagatik.

Munduko printzeak
jartzen gaitu mahaian,
herioaren ondoan.

Solomoak irentsiz
eta beste zerri
ohoragarrien saihetsak.

Eta ondo gizenduak,
laster pasatuko gara
jarlekutik platerera.

Hortzak iristen ziren
pentsamenetatik
barne-muinetaraino.

Hortzak hausten zuten
bizkar hezur gogorra
hainbeste umildu zenez.

Arima, Aire
putza baizik ez
haizeak zeramana?

Galderak. Izenak
abail bitxiak
jaurtitako harriak dira.

Zure kontra itzultzen dira,
lurperatzen zaituzte,
gatzelu erori astunek.

Buztinezko bidetxiurrez
daramagu zenbakia
baterakuntzara.

Eta nekeak uzten
gaitu galdurik,
ez artalde ez artzat.

Zergatikorik gabe?
hitzak estaliz
ezaraz hutsa.

XLV

Itzultzen gara oroitzapenez bide honen
pauso zaharretara. Baina batere ikusi ez
iturri berririk, uraren arrastorik ere ez,
alaitasunaren putzuan.

Belabeltzen zerua. Bihozgabedun
oihuzko kanten lehortean:

«Herri bategatik gizon bat hiltzen bada,
gure herria hutsaren trukez hiltzen da.»

—Aleneak bilatzen naute
igaruzko berunen.
Baina ez da uzten
urkamendiko odo.

—Kantaren kolpeak
gogaitzariaraz urteko
ez da inolako iristen, harririk
etorkizunik gabeko mundu.

—Ereintzan ez da garirik erretzen,
zeren ez baita garirik Sepharad-en.
Alorrak idortuz, lurra lehor dago.
Bista altatuz, eguzkia begirutzen dugu.

VLLX

Ezuzki kontur
urdina,
enbot hau
xuhartz hiltzena,
Suaren gainean
apartak,

hezatzada zapala
belatzena,
Sasorik ez

PATU ASMORIK EZ ASMA. BIHAR-ETZIA OSTADAK ZEIN LABEZOMORRO

Jon Iriarte

* *«Estandeu a sua mãe temerosa,
a sua mãe apenas humil,
timidamente aberta como um aza
que quixera voar e non poidera.
Non podia, daba.
Daba as suas razões, as más antigas;
a injusticia da fame, a tristura,
a absoluta soedá...»*

KONTU KONTARI

Neska multikoak arratsaldero liburutegian ikustea porzarria izan arren, ez lituzkete sikieran santuak bakarrik begiratu ondoren liburuak edozein bota behar; liburu bakoitzak bere txokotsua daukalako, haur bakoitzak gauero erretiratze-ko aterpe bat daukan bezala; baina gomendioak eta nolabe-hinkako haserraldiak gomendio eta haserraldi putzak besterik ez.

Zena zela lana eroso zenik ezin uka; gainontzeko orduetan ikasketak ateratzeko bidea eskeintzen zuena gainera.

Liburutegia, auzotarren zerbitzurako moldatu eskolatxo huts batetako gela txiki bat besterik ez zen. Sarreran harrizko eskailera zabala handigura erakusten zuen balustrada ingenuo batez apaindurik zegoen; bere buruan bi ate, arestian

XLV

Itzultzen gara oroitzapenez bide honen
pauso zaharretara. Baina batere iturri ez
iturri berririk, uraren atzatorik ere ez,
alaittasunaren putzuan.

Belabeltzen zerna, Bihozgabedun
suhuzko kanten lehortean:
«Herr-**KONTU-KONTARI**
gure herria hutsaren trukez hiltzen da.»

PATU ASMORIK EZ ASMA. BIHAR-ETZIA OSTADAR ZEIN LABEZOMORRO

Jon Iriarte

*«Estendéu a súa mau temorosa,
a súa mau apenas humá,
tímidamente aberta coma un aza
que quixera voar e non poidera.
Non pedía, daba.
Daba as súas razóns, as máis antigas;
a inxusticia da fame, a tristura,
a absoluta soedá...».*

(Celso Emilio Ferreiro)

Neska mutikoak arratsaldero liburutegian ikustea pozgarria izan arren, ez lituzkete sikieran santuak bakarrik begiratu ondoren liburuak edozelan bota behar; liburu bakoitzak bere txokotxoa daukalako, haur kakoitzak gauero erretiratze-ko aterpe bat daukan bezala; baina gomendioak eta noizbehinkako haserraldiak gomendio eta haserraldi putzak besterik ez.

Zena zela lana eroso zenik ezin uka; gainontzeko orduetan ikasketak ateratzeko bidea eskeintzen zuena gainera.

Liburutegia, auzotarren zerbitzurako moldatu eskolatxo huts bätetako gela txiki bat besterik ez zen. Sarreran harrizko eskailera zabala handigura erakusten zuen balaustrada ingenu batez apaindurik zegoen; bere buruan bi ate, arestian

neska mutilak nahasbuirik izan ez zitezen pentsatuak «Liburutegia mutikoen gela-ohian zegoen, egokitua zelanbait, erabe-rritua, eskola itxura disimulatua: ez pupitrerik, ez arbelik, ez kolgadorerik, aldiz, liburuz bateriko apal ilada luze bat eta lau pertsonak eroso irakurtzeko moduko mahaiak; bakoitzaren gainean irakurleari hurbiletik argitzen zioten lanpara borobilak. Edozelan ere toki hark eskola antz ukaezina zeukan.

Lanbide patxaroso hau aurkitzeak poztu eta Parisera etortzea erabaki zuen. Baten esan zidanez arnasa nunbaiten hartu behar delako eta hain leku populatua oxigenoa bizkorro akabatuko delako zorionez; baina nik benakien neuk beste ilusio ekarri zuela eta Austerlitzten jetsi zenean esku bietan zeramatzan maletak baino hura desorekatuago garraiotzen buela kaskarrean. Niri gertatu ez balitzait ez nuke hori pentsatuko agian, baina jende guztiak uste du hiri honek gauza erakargarriak dituela eta horregatik etortzen da horrenbeste turista uger.

Joan Marik gehien jota hogeitabost urte izango zituen honunza etorri zenean. Ez zuen Paris ezagutzen liburu eta ezagunen bitartez ez bazen, baina ikusgarria zeritzon hortarako erizpide handirik izan ez arren. Trenegun egin zuen gau osoko bidaia burutu aurretik gorputzen zekarren logura astindu eta estazio itzelean trenbideak konpontzen ari ziren langile batzuk geltokiaren enormetasunean galduta ikusteak gizonak zelango hutskeria diren ziutateetan gogora ekarri zion.

Trenetik bajakeran jendea bizkor zihoan maletak eskue-tan eta, ni etorri mintzenean ere guztia zen antzerakoa eta zorionez gaur egun baino badaezpadako beltz gutxiago zegoen.

Etorri berri zenean lan aurkitu zioten lagunekin bizi zen jendez sapairaino zegoen pisutxo batetan, pentsiora joan arte. Pentsioan dena iluna eta motela zen, arduraduna atso alar-gun bat. Joan Marik eroso ordain zezakeen hark eskatzen zion hutskeria liburutegiko lanak ematen zion soldataz. Hala ta guztiz ere han bizitzearekin aurreratzen zuen dirua ez zitzaion Afrikar eta eskeko bidean zeudenen artean, arkakusu eta txintxeekin nahasturik egoteko arrazoi sendoegia iruditzen. Kokoak etengabe haginka eta pupiloak dirua noiz ha-

rpatuko erne. Bizilagunekin konfiantza lortzea ezinezkoa zitzaion, gehienek beraien izenak jakitera eman orduko ihes egiten bait zioten. Gehienak bide batez zeuden eta bazen egunez nahiko diru batuz gaua espezial igarotzen zuen eskalerik.

Gurea ere bada tamañokoa, herri bereko bi euskaldun Paris terrible honetan eta elkarrekin topo egin behar.

Ni neu ez nintzen Joan Mari beste segurantzaz etorri. Lanposturik ez neukan, baina lanerako grina eta kemena oraingo etsipena eta ustelkeria baino sakonago sarturik. Orduko bizitasun guztia galdua daukat, baina jakin, guzte jendea, denok izan garela mantarreko ume eta denok denbora pasa ahala aurpekiko leuntasuna eta gorputzarekiko agintea galtzen dugula, torpetu egiten garela, sortu. Gaur egun gaztea ez naizelako, bestela ezin izango nuke jasan nire azala plastiko errearen antzera potriltzen ikustea, ezta nire gerri, esku eta hankak egunez egun geldotzea. Erretratatzeko makinaz morralean nenbilenean ez zen holakorik, orduan zimurrak dotoreak ziren, gosetientzat egi zuria gozoa den bezelaxe.

* * *

Mutikotan, bi urtez denda batetako mandatu-mutil ibili nintzen makina dexente bat erosi ahal izan nuenerarte. Etxeko eta senitartekoie erretratoak atereaz hasi nintzen zerbait ikasten eta apurren bat irabazten. Handik pare bat urtera makina berria erosi nuen. Argazkiak egin eta minutu gutxitara errebelatu zitezkeenez, Gipuzkoa guztiko jai eta peria handienetara joaten nintzen tramankulu guztiekin.

Lehenegotan heuren buruak zerbaitetzat zeukatenek eskatzen zizkidaten argazkiak, askok muturrak hurreratu arren. Bizkor ohizkoa egin nintzaion guztiei eta baserri punta hurrunenetik jetsitako mutil zahar ketoenak ere hurbiltzen zitzaizkidan erretratatzera. Hainbat eta hainbat fameli euskaldun eta beste hainbat plazamutil arro neskei gerritik helduta erretrataturikoa naiz. Azken hauek beti ematen zidaten barregera eta pena pixkat, hor ibiltzen ziren dantzan eten arte eta

kertenkeria ikaragarrienak egiten neska laguntzera joateko iluntzean. Gizajoak, zerbait zirelakoan hor ibiltzen ziren hankak arin eta paparra handituta jentaurrean eta neskatila bakarren aldamenean kokoturik zer esango eta haien «hurrengorako» aginduetara makurtuta.

Bai Gipuzkoan bai Bizkaian ospea irabazi nuen pixkanaka eta horri esker pasa nuen banaka bat urte handikien etxez etxe; Deputatuak, alkateak, eliz gizonak, osagileak eta maisuak erretratatzan ibili nintzen. Aldiberean, orduan neukan motorbizikletan traste guztiak lotu eta eguraldia egokia bazen, batetik bestera hango eta hemengo eliza, jauregi eta enparauak erretratatzan. Hiru hanken gaineko kaja edo traste zahar hartara begia hurreratu zapi beltzaren barrutik, botoi bati sakatu eta zenbait likido behar diren moduan erabiliz, argazkia ateratzen nuen. Ikaragarria zen edonorentzat eta inguratzen zitzaizkidan ezjakinentzat areago, baina etxeak eta ateratzeaz ere erdi gogait egin nuenean, geldi zegoena baino ez ateratzea lastima zela pentsatu nuen.

Bilboko Uzturre dendara joan nintzen halako batetan eta nire makina erosi nuenetik ordura izan ziren aurrerapenak begibistakoak ziren; makinak askoz arinagoak, diafragma eta obturadoredunak eta zer esanik ez oso garestiak, ia Ingalaterrako Erreginarenean pitxiak baino garestiagoak. Diez. Bastante diru aurreztua baneukanez eta aparato haiek aukera pentsaezinak ematen zituztenez, erosteko erabakia hartu nuen, eskaparateko zenbait kale instantaneak sendoturiko erabakia. Modeloek ez zuten geldirik egon behar, arnasari eusten; makinak kaleko ibiltariak, tranbiak, automobilak eta argi baino argiago ateratzen zituzten. Egun hartararte egin nituen argazkiak ez ziren naturalak; barreak minutu erdiko jestu hotzak ziren eta agintariei duintasun keinu ahaltsuak denboraren poderioz izotzak tentetasuna galtzen duen moduan biguntzen zitzaizkien... enfin.

Ordutik aurrera Kontxan zebiltzaten aiñak, harrijasotzaile ospetsuak putz hotska, ezpatadantzariak, karroetako ijitoak eta gogora zetorkidan edonor paper marroituan paralizatze-ko gaitasuna neukan. Eta horrela hasi nintzen, oraindik gaz-

te, kementsu eta buru bero, bazter guztiak eta mota guztieta-ko lagunak erretratzen.

Agudo kolekzio mardulak osatu nituen.

* * *

Garai hartarako Espainiak eman zuen argazkilari onik: erretratuzaleak, paisajistak, publizitatean aritzen zirenak... guztirakoak.

Urte baatez Bartzelonara joan nintzen; bertan argazkilari arituen ezagun egin eta ugari ikasi nuen.

Han burua majo haizetu zitzaidan, honunza etortzea erabakitzeraino.

Antoni Prol nuen hemen ezagun bakarra. Berak zertxobait bilatzen ahaleginduko zela esan zidan. Pertsona ona zen eta fotografo dexentea nire ustetan, baina bere adore artistikoak auspo bete bat behar zuen akabatuta gelditu ez zedin. Artearen hesia gainditzen egun egunero saiatzen zen baina atzetik laguntasunik ez zeukanez, miseriaren alanbradetan Kateatuta gelditzen zen, bestaldeko sasitzako jakintsuen onespenerik gabe eta urdail hutsaren zauri minberaz. Beste hainbesteren antzera.

Nola hala konpondu nintzen hasieran eta gero Antonirekiko hartu eman guztia galdu nuen, bizitzan ezagutu bezain aguro ahazten diren hoietako adiskide jatorra izan zen niretzat.

Lanean jo ta ke arituz pertsona normalen antzera bizitzea lortu nuen: goizero gosalduta, eta beti bazkari eta afari behar baino astunagoetara ohitu nintzen. Noizbehinka mozkorraldi alairen bat eta inguruko neska ezagunekin izara arteko ardua galtzeak.

Fotografo gutxi genbiltzan kaleetan, askok eta askok dendak zituztelako, eta beraz pintatzaileen arteko beste konpetentziarik ez zegoen. Sacré-Coeur tontorrean edo Pompidou inguruan izaten nitzen jai ta aste turista erretratzen.

Astean behim edo ofizioari kale egin eta hirikoko zoko guztiak gegiztatzen nituen zer erretratatu. Kaleko pintatzaileak eta soinu-joleak, metro galerietako mogimendua, Boloniako basoetako prostitutak, fakirrak, praka estudun gazte grina-suak... erretratorako motiboak berez zetozkidan kasi. Baina galerietan argazkilari potrozorrienen lan topikoak zeuden zintzilik eta hasten zeuden gaztetxoek handik ikasten zuten, eta hala izan behar zuelakoan han hartzen zuten oinarria: argia nola erabili, zein joerak zeukan irtenbidea... eta nire argazki gehienak etxeko gelan amarauek irabazten. Honek amorrarazi egiten ninduen, baina honez gain etsita mengoan, lur jota.

Burua borbor zebilkidan egun guztian eta egun guztietan. Nik egiten nituen gauzek ere gero ta zirri gutxiago egiten zidaten; lanetan ez nuen aurrerago bezala lilurarik aurkitzen, ondo eginak edo txapuzeroak ziren eta listo.

Kreazio lana gero ta norabide ezezaguneko kamino atsekabeagoa egiten zitzaidan. Zertarako nahi nuen, bada, pertsonaje estrabagante gehiago kolekzionatu? Zertarako nahi nituen modelo polliten irri falseatuak? kamararik gabe haietako bat gero ta zailago egiten bazitzaidan lortea. Zertarako agureen zimurrak ikaragarriak irudituz nireak egin? nik neureak urte gutxieren buruan eduki behar banituen eta mozorro-tuak bezala ibili behar banuen ordutik aurrera, aurpeagiko azala zintzilik. Gogorra da norberaren edertasuna galtzen ikustea eta gogorra da baita ere sasoi batetan ederrak iruditutako gauzak etsai, eroimen soil edo kopla iruditzea. Zertarako, beraz, Tulleries parteko zuhaitza erretratatu, edo bo-degoi bat, edo garaiko jakintsuak?

Nazkatuta nengoen. Jateko beste bakarrik saiatzen nintzen eta lanbide berdinean zebiltzatenek ez ninduten lehengora bideratu; denek nahi zuten beraien buruak aurrean ikustea eta, noski, ni horretarako etsia nintzen, beharbada bideko lur-mokil bat besterik ez, baina dena dela estrapezua. Bakoitzak berea bakarrik ikusten du eta benetako lagunak gutxi izaten dira, hemen eta bazter guztietan.

Lana bukatu ta gero taberna zahar batetara joaten nintzen garagardo banaka bat hartu eta egunkaria jabearen kontura irakurtzeko. Taberna ilun eta tristea zen, barruan biltzen ziren edale bakanen parekoa. Marmorezko mostradorean uzten nuen edalontzia eta egunkaria zabaltzeaz bat tabernari koipelustrea aurrez aurre jartzen zitzaidan eta, bateko hau besteko hori, ez ninduen baketan uzten. Konturatu nintzen, baina, ez zela berriketazalea, haren gogoa ni mahaian jarrita ikusteaz zen, gero txanpona eska ziezadan.

Edanean zaletu nintzen eta ondorioz nagitu. Beharrezko nuen lanerako kemenik ezin nuen atera. Biharamonek eguerdirarte ohean kateatzen ninduten. Banekien bide hura ez zela komenigarria katekista majaderoen aholkurik gabe ere, baina... Etxearen alkilerria ordaintzeko beste ere ez nuen ateratzen eta jabea diru eske zetorreanean beti aitzaki sinestezin batez bidaltzen nuen, poltsikutsik. Onegia eta lotsati xamarra zen negozioetarako eta nahiz eta nik bere kontura bizi nahi ez, egoera hilabete mordotxoan luzatu nuen, agurra atondoan utzi nion arte. «Pascal, badakit diru asko zor dizudala eta zuk ere askotzarik ez duzula ni halakoak mantentzeko orain arte bezala. Papertxo honen bitartez ematen dizut nire azken agurra, atzeratutako hilen ordeaz ezinik ere. Zure aurrean jartzeko ez naiz gauza, baina tori besarkada bat». Pascalek doenerdi zotintxo kontrolatu ezinak Gin botilari kenduriko etiketaren atzekaldeko agurraren aurrean egingo zituela seguro nago.

Etxean epeltasuna neukan bederen eta konortea galduta nañun jausirik ere lo egin nezakeen trankil. Kale bazter haue-tan ordea, zezen baten adarren aurrean ibiltzea bezain arris-katsua da. Farol batetik bestera albo albaka zoazela, estrepozatu eta muturrekin aurrera jausten bazara ez uste laguntze-ra inor joango zaizunik ... eta negua bada ba badakizu ... eta eskerrak lapurrek gu izorratzea baino arlo emankorragoak dituztela.

Ohizko tabernan babesten nintzen diru apur bat batzen nuen guztietan, ahal izan ezkerro aspaldiko ezagunen kolkotik edan eta lo pixkat egiteko. Baina tabernaria kexu jartzen zen

lo arramuzkadak egiten bait nituen nonbait. Arramuzkadak bai ... banekien nik nire arramuzkadek baino Zerk ateratzen zuen zarata nekegarriagoa mostradore ganean, baina burdin hotsak ez zuen lehenengokoan aseretuko ... txanpona pilatzen zuen txolopotea beti eskuetan zerabilen ikaraka, espatadan-tzariak txilinak beste ... atera kontuak hortik. Politto xurgatu zidan balioko guztia, odola eta arima. Ez neukan lehen bezela Sain Denisera joanda kapritxotan ibiltzerik, pasioan (paseadan) akabatzen zen guztia. «Instintoa» urte batzuk lehenago baino nekezo garatzen zitzaidan. Atari estu luzeen aintzineko emakumeek ez ninduten, ez kiñu ez inolako insinua-zioz, gora igotzera gonbidatzen. Guzti hau ahaztuta, lanik eta dirurik gabe, gosoez eta edariaren agindura, ahul baino ahulago nenbilen.

Tabernariak errukigabe kalera ateratzen ninduen lepotik ebatuta negu gorrian ere. Norberaren aterperik gabe zeuden askok eta askok, nik bezala, metroko aide karbonizatuaren babesean beraien begi etsituak ixten zituzten, atsedenaldi laburtxoak hartzeko, pinpilipausa geldiek hegalak batzen dituzten samartasun hauskorrez. Gendarmeeek gauero geltokiak errekestatu ondoren, kanpoko atea ixten zituzten.

Mozkor, eskale eta eroek negu oro metroko galeriak dauz-kate bizileku. Kaleak eguzkiz urri eta nagusiak neoiz gainez daudenean, jende gutxi ibiltzen da metroan. Ibiltari bakartiak bere zapata hotsa eta makinaren minuturoko tutada bes-terik ez du entzuten. Galeriek mila bihurgune dituzte eta ba-koitzaren amaieran ezkutatuta egon daitekeenak larritu egi-ten du, kartera hutsik eraman ezik.

Beldurgarria da itxura ona ez daramaten taldetxoak aurretik nahiz atzetik datozela ikustea. Baina badiotsuet, niri or-durako ez zidaten beldurrik ematen, zer kendu ez neukan eta. Honek baino gehiago ganberro kuadrilek estutzen nindu-ten, egia esan ez zebiltzatela asko, baina ez da ejerzito ika-ragarririk behar ni halako bat, lepoko amistoso batez lurre-ra doana, jostailutzat hartu eta kertenkeriaka erdi zoratu eta hiltzeko. Noizean behin jakiten genuen holakoen berri eta ka-suak gutxi baziren ere, basta norberaren ezagun bat horrela

hiltzea, beldurra aldetik ez kentzeko; eta gazterik hil zuten Rene gizajoa. Marinel baten semea ei zen. Nik Gabonak Champagne botilak posez ireki eta urdailak ohi diren gisan haziak telebista denda baten eskaparate aurrean laugarren urtez ikusiz ospatzen nituela ezagutu nuen Rene. Eskekotu berria zen; gizartean jazten zituen arropak zeramatzan oraindik, traskil eta pekoztuta baina ez eskale ibiliaren uniformerik; zerabilen bizarrak ez zuen bizar erdi zuritu eta takarraren atzerakadarik eragiten; baina edozelan ere eskalea zen eta ardozalea, bere begi humel eta koloratuek aditzera ematen zuten. Badut motiborik, nonbaitetik zekartzan ardo botila erdi beteak eskeintzen zizkidalaz gain, patxadazkoa zela jaiteko. Baina patxadazkoa izateak heriotzaren derigorra ezerezten ez duen arren, hari tokatu zitzaiona demonioak berak ez lioke Jaungoikoari opatuko zaparrada batek inpernuko suak itzaliko balitu ere. Lau bost mutilek lagunoni, lo eta betetxo zegoela, praka barrenetatik sua eman zioten. Esnatu zenean makarra putok eskuan zeuzkaten garagardoekin bonberoenak egiten hasi ziren, barre algaraka zutunik buruak eutsi ezinik mozkorrenaren mozkorrez. Gero bultza, ostiko eta ukabilka hasi zitzaizkion, hartzea besterik ez zeukala. Metro bidera bota zuten makinak harrapa zezan eta andenean ilaratu ziren igotzea galerazteko. Reneri, tunel ilunean barneratuz, estaziotik hanka egitea bururatu zitzaion. Makarren biraoen artean iluntasunean galdu bezain laister, makina batek zapaldu eta geltokira buelatu zuen narras, birrin birrin eginda. Arlo tristee-giak, baina zer ez da tritea gero?

* * *

Saihetsak kanpaia baino ertenago nituen, matrail hezurrik bistan eta eskuak taket igar. Makar nengoen ama defuntak esango lukeen moduan, penagarri, erruki emateko; gainera itxaropena eta poza ustel.

Almazen batzuen atzekaldean, haize beroa jaulkitzen duten zulodun estolda burdinezko baten gainean epeltzen nintzen beste zeregin barik, barruko getetako beroak etengabe-

ko estula kenduko zidan uste okerrean, osasungabe eta triste. Kartoiak azpi ta gaine, lo egiten nuen zakur, katu eta poliziek koplarik ez bazuten. Txikitan hanketarako ohera eramaten nituen ladrilo labaratuak ekarten zizkidan gogora burni hark, momorroak despistatzeko buru ta guzti mantapean ezkatzen gineneko sasoi alaiak.

Gogoetak buruan sortutako lurrun iheskorak besterik ez zirela pentsatzen saiatuz, leku hura eroso bilakatu zitzaidan. Zokotxo batua zen leku lasai hura eta ez zen jende mordorik ibiltzen inguru hartan, baina ia egunero ikusten nituenetako bati euskaldun traza antzematen nion. «Hori euskaduna izan behar dek» nenbilen neuretan, «euskalduna izan behar dek ba». Beti zerbait esatekotan baina beti ixi, pasakeran begiratu zidan batetan «gabon» esateko beste indar batu eta txua balitz bezela bota nion arte: «gabon». Mutilari begiak zalan-tzaren zirkuitoan higitu zitzaizkion, inon gelditu gabe, inora begiratu gabe, gabon hura nondik etorri ote; kointzidentzia handiegia kale zulo hartan, turista ibilbideetatik aparte, beste euskaldun bat egotea irudituz. Kasualidade edo kasualidade ondo baina hala zen, euskaldunak eta donostiarrak gainera. Joan Mariri nire itxurak mingaina geldotu zion normala zenez. Nola hasiko zen, bada, Parisen zer egiten nuen galdezka edo nola demontre poztuko zen ni halako gizon desegin baten aurrean herri berekoa izan arren. Ni hasi nintzaion jaioterriko parajeez hitzegiten bere onera etorri zen arte. Nire barrutik hitzegiteko aspaldiko adorea atera nuen eta, bera ere pozik, berba ta berba gero. Biok geure bizitzak perfilatu genituen. Ez nion ninerik zehatz kontatu, irakatsirik banekukan arren. Ez nuen mutikoa behingoan urrikalmenean eta etsipenean azkenez, heustatu utzi nahi, horregatik axolik ez zidaten komestazioetara bideratzen nuen interes handiko plantak erakutsiz, salda berorik aspaldian hartu ez duenarentzat gorabehera bako gauzetara azken baten.

Niretzako ere egun espeziala izan zen ordukoa. Handik aurrera sarri egoten ginen elkarrekin toki hartan eta lehen eguneko bizitza sintetizatuak egunez egun destolestean genituen, pentsioan eskatu afari ordeko ogibitartekoak erdibana jaten genituela.

Ez nion ohe edo era horretako eskaririk egin, ez premia-rik gabe nengoelako, baina berak hartu zuen ardura eta pen-
tsioan ezin ninduela sar esaten zidan beti ezintasunak amo-
rratuta. Lehen egunetik ni kalean utzita ohe epelera sartzeaz
erru zera bat logura uxatzen zebilkiola aitortzen zidan. Askot-
an entzun behar izan nion baita ere Donostiara bueltatzeko
gogorik ez neukan, berak ordainduko zidala bidaia eta. Bai-
na gutxi ikusikoa zen eta ez zuen ulertzen nik ez neukala ezer
Donostian, ni ez nintzela inongoa, ezta Pariskoa ere.

Liburutegian egin nezakeela lo esatera etorri zitzaidan
behin, bere burua madarikatuz ordurarte ez zitzaiolako bu-
ruratu. Baina plateretik jan eta ohean lo egiten duenak gaztaia
hain mugatua izatea gauzarik korrienteena da. Gauetan etza-
teko solua ahalik eta bigunen egokitzen genuen, egunez tra-
mankulu guztiak gorde eta liburutegia liburutegi bihurtzeko
jendeak ez zezan ezer susma. Uda balitz ez nuke halako alpro-
jarik beharko baina neguan edozelango laguntzak eskertze-
koak ziren.

Joan Marik nire egoera hobetzeko eginahalak egiten zi-
tuen; jantzi itxurosoagoak erosi eta nire moteltasunaadore
eta bizitasunagatik trukatu nahi zituen. Lanbidedun gizon ar-
duratsu eta «alalaia» egin nahi ninduen atzera, inoiz zorionsua
izan badaiteke, ezinezkoa zela ulertu gabe. Nire bideak ez zeu-
kan uste zuen bezain itzultze errezik, kardenalak monagilo
nekez izanen diren bezala edo baserritar aguretuak erregetza-
ra kostata heldeko diren bezala. Dena dela elkarrekin egune-
ro egoteak eritzi asko bateratzen ditu eta bestearrekiko antze-
kotasun pixkat ere badakar. Pizti gogorrenek ere ikasia dute
amore ematen gutxi badabe eta irakasle serioek ere noiz be-
hinka beraien menpeko umeen keinu txotxoloak egiten dituzte
konturatu gabe. Nire egoera negargarrian, bada, nola ez nien
eskeintza guzti haietatik behar beharrezkoenei amen egingo?
Hala apurka apurka eskale itxura galdu eta emigrantearena
hartu nuen, hainbestekoa eze Burdeosko mahastietatik etorri
berria nintzelakoan batek baino gehiagok erretratatu ninduen.

Burua Senara botatezeko besteko gosea, ahaztu ez nuen arren, aspaldi ez neukala eta aspaldiko etsipen eta tristura adiskideari esker ia guztiz ezorizatua neukan. Kakoarteko zoriontasunaren jabe nintzen eta negu erdiko egun haietan eguzkiak laino artetik kuku egiten zuenean pasiada motxak egiteko poza etorri zitzaidan.

«Gabon» harez geroztik, ezagutu genuenokotik hobe esan, ez genuen gure artean haserrerik ezagutu eta askorentzat errietarako motiboak eduki arren, liburutegian uzten nuen zakur usaiaren betiko adarjotearena adibidez, irriño batzuk erdibanatuz amaitzen genuen, bare bare. Lagun minak ginen eta batak besteari hoberena opa zion. Niretzako lan baten bila zebilen koittaua, ni gizarteratzeko azken harmaila non aurkituko... pentsa beraz zenbaterainoko laguna zen zimaaur artetik nola jaso ninduen ikusia.

Negu garratzeko egun batetan betiko ordurako ez zen azaldu eta alferrik itxoin nuen iluntzerarte, gixajoa ez bait zen ikararik egiteko gauza. Pentsioraino joan nintzaion bila eta atarian grapaturik iragarki mutugari batek Juan Maria Iturriaga Aldi izenekoak jasan beharrekoak jasan zittuela pregonatzen zuen, hatsak agur egin ziola. Alaboa. ... Ezin zitekeen egia izan... Gazte osasuntsu hura... Nire adiskidea...

Begirada izenean pare bat minututan eduki ta gero alde egin nuen pisura igo gabe. Kaleetan ibili nintzen mozkor deslaien moduan, nigarrari eusten garunak minduta. Lurpeko isiltasunean artxibatuko zuten haren jakituria, haren asmoak eta bihotz ona. Uste gutxien denean kaput, munduan bizitzetik ez dago eta zeruan bizi nahi dutenek ere ederrak kontuak.

Berrero nengoen bakarrik, goibel eta laister baten goseti. Begien aurrean neukan etorkizun itxaropentsuak auspez egin zuen eta miseriaz kondekoratu ninduen berriz.

1964. urtea. Urte zoriontsua, hura ere, pozik bizi zirenentzako.

ASTO PORNOGRAFIKOARENA

Feliciano Peláez Arregi

Ba, zen ibiltzen Jazinto astoa, astoa —Jakintsua—, ez jendeak dioena, gau argi hartan bere txalupa txikiko orduan itsaso lasaian. Zerua bere iluntasun osagabeen liluraz amets eta ipui guztiekin isladatzen zen ur urragaitzean ilargi txuri tristatu malenkoniatsu pentsakorraren argietan, lasai bere simbolismoan. Era berean, hola behar zuen egon ba gure Jazinto bere gauroko paseoan, pentsakor. Dirudienez ez zituen oraindik izarrak nabaritu.

Uraren olatu garatu desesperantzatuena musika musika itsa-soa, ez lorik hartu. Leka itxurako belarri haundiak gauza guztien gainetik, bere jakintasun guztia. Ari zen errefleksioan: —...eta gizakia hain txikia eta garrantzirik gabekoa izanik berak bere burua handiena, garrantzitsuena eta kreaioaren gune, agintari nagusi eta beste gauza guztien izatearen arrazoi bezala ikusten duela frogatua daukagu. Zergatik ote? Beren burua ingurugiroan nagusi sentitzen direlako, beren neurri eta legeen barrenean nagusi, gauza guztiak beretzat eginak bere zerbiturako. Noski, izaki guztiak eta bakoitza bait da berak sinisten duen ingurugiro guzti horren neurri eta arrazoi garrantzitsuena, dena bere inguruan bueltaka, egozentrismoa da dena. Ni naiz esistitzen den gauza bakarra, eta guzti-guztia nere inguruan neretzat egina dago. Ba ni naiz unibertso deitutakoaren gune zentru izateko arrazoi... —pentsatzen zuen astoak.

Baina gure astotxo maitemindu egin izan zen. Emakume eder batetaz maitemindu ere. Uste zuen aurkitu zuela be-

re aitak bezalakoa betirako laguna desberdina. Hezi izan zioten arabera. Bere maite beti utopikoan pentsatzean, makil gorri handi bat tentetzen zitzaion bere ile gris zakarrez inguratutako hankartetik. Geroztik gure Jazinto espeteratuta, mugatuta eta behartuta sentitzen zen; Lotsa izugarria ematen zion edonork ikustea bere gauza hura, horrela, tente. Gehienbat berak sentitzen zuenagatik orduan; zerbait oso arraroa, atsegin eta desira arraroa, behar eukiezina, bere indarrak baino indartsuago, ezezaguna lizuna debekatua bekatua, lotsazkoa. Hezi izan zioten arabera.

Orduan ba eskapo egiten zuen denetatik ez zezaten ikus dena eta bere asto lotsatu aurpegi hura, ezin bait zuen burutik kendu bere maite desiratu haren imajina. Nahigabean bizi zen, kezkatuta, triste beti.

Ez zekien zer pentsatu, nahaste izugarria zuen buruan.

Bere jakintasunean... emakume sinple nazkagarri batek egiten zion meneratu gainditu nahigabetu. Eta zer egin behar zuen ba.

Hor zebilen gure Jazinto bere pentsamenduetan murgilduta, bere deskubrimenduetan, bere lepra birus gaitz ustelarekin beti bakar-bakarrik, denetarik aldenduta beti, ez zen ondo sentitzen kobazulo ilunean bere norberan misterio hartan etsita hesita hertsita. Gauzez izarren batzuk ikusi dituen zeru ilunean, bere obsesioan gora begiratzean emakumearen adertasunaren irudia gorpu miragarria bere misterio instintiboaz. Leunkiro, makil handi gorri horretara eraman zuen eskua begirada jetsi gabe. Zelako gozamina! Zelako gozamina hura... ikuitzen jarraitzen zuen mimu handiangoarekin leunkiro, gozamina handiangoa zen eta handiangoa, eta astitzen salbajeago leku aproposean organo harrotu hura indartzen eta gauzatzen joaten zen bitartean. Gozamen handiangoa, handiangoa, ez zekien gure Jazinto gaixoa zer egiten zuen deabruaz gidatua eta kontrolatua, baina zein ondo AAAA, AAAAAA. Begiek, hertsiaik baino irekiagoak orain izar beroak, gorpu liluragarria zekusaten kurba leunetan gloriosoetan hara zuloa, anatomia (leen aldiz eridenik) eta ipurdia eta ditiak tentetuta ikuitzea ikuitzea eskatzen AAAAA, AAAAA. Deabruak.

Bere aho irekiak, AAA, txistu edo baba luzea bota edo erori zitzaion konturatu barik, ez zen erortzen bukatzen, AAA AAA gur indar guztiak. Itsasontzi gainera erortzen zen poliki poliki luzeaa gozamina handiagoo handiagoo, ez zegoen haizeaz aramanaaAAA AAA AAA salbajeagoo gerria ere mugiarazten zion deabru horreeek AAA AAA AAA AAA martxa etengabeen aastintzen zuen astintzen, baina besoa ez zen nekatzen. Beste eskua ba airean halako diti eta ipurdi eta AAA AAA bernak eta zuloak eta gorpu miragarri liluragarri gozogarri gozo garri gozo garri hura bilatzen AA AA AA AA itsasontzi egur berdearekin eta arrauna ondoan, behar ero indartsu burtzoragarri, eskua, konformatzen zen.AA AA muturra ere arraun goi aldea txuputzen musukatzen eta koska egiten zuen martxa etengabeen taka taka taka taka odolbero deabruak bulkatzen indar eukigaitza bukaerarte, azken txanpa, atsegin handiagoo eta handiagoo atsegina. AAAAAA AA AA AAAAAA: Mangerea, tente indarrez eskuaz, eragiteko mugimenduan txorro zuri luzea lizuna lizuna, deabrua, jaurtiki zuen ez dakit noraino, luze luze oso ziztu bortitzean, edozer hondatzen, zartatu eta izorratu zuen gau zatia —«zast»—. Deabrua. Uretara hori dena. Debekatua bekatua hori dena, deabrua! leloa lizuna nazkagarria. —Nik ez dut bada inoiz gehiago egingo.— pentsatu zuen bada gure Jazinto astotxoak.

«Eta arrai txunditu baten aurpegia eta begiak hor zeuden ur gainean aterata ahora betiko mugimenduan arnasten txundituta. Txundituta. Jazinto gorria jarri zen, norbaitek ikusi zuen orain gainera. Deabru nazkagarria... Lotsaz ia hiltzen da gaixoa... Aurpegia ezkututzen du eta arraia poliki poliki badoa.—Zein eroa leloa, astoa. Zer dabil?— galdetzen zen.

—Deabrua dut barrenean!!!— Jazintok.

Asto jakintsuenak.

Es Kerrak ez zuela mementuan burubiederik hartu. Hain lasai zen gelditu... kezkek aldendu ziren. berriz ere ikusi zuen itsasoa eta zerua eta ilargia eta bestaldean lurraldea berea, Hodei gauean gris pasakor batek estali zuen izar konstelazio hura gure begietara... Eta kontradikzio bezala oportunisto izugarriekin:

Baina Jazinto ez, han zen oraindik errefleksioan. Unearen errealtateari buruz. Bere burua edo adimena edozeretik at zegoen, unean, sentimenduak. Ezta sorgina, zentzuak puskatuta zituzten, endurtuta obsesioa beharra bulkada uxadak eskatzen zuen tentsioa gozamina. Hankarteko alua gorria kanporuntz irikita zuen... gosea bakarrik astoarengan, mangerea hura zuen buruan bakarrik Jazintoruntz.

Jazintoren txalupara altxatzen zela sorgin madarikatuak ipurdiaa hankak irekitzen zituen eta zuloa zuloaak aaa puta puta puta.

—Ipurdia, ipurdia erakutsi zigun gu guztioi. AAAI! eta gorputz liluragarri guzti hori AI! ilargiaren eskuetan argi txuria erdi urdin edo baina baina AAI! zein ederra leuna borobila astina harroa, haragizkoa haragizkoa. AAAAI!, zertarako dauzkat eskuak eta gorputz material fisiko hau eta dena. Puta alena!, hau hestura! puta!, holan gu guztiok meneratzen eta nahigabetzen... erahiltzen.

Ezin ezerk gehiago jasan presio hura, disakordio hura. Indar, behar sexual hura ezin askatu; —legeak dio! Zuek, geldi hor! nagusiak. Han emakumea. Ezin jasan ezin jasan ezin jasan kontradikzioa...

Gorritu handitu hautskor lehor gaixoak gaixoak gaixoak puskatu suntsitu amildu gloriara ba.

Izaki haren indarra izaki haren indarra izaki haren indarra, garrantzi eza. Ezerk ez du garrantzirik. Dena da berdin. Deskripzioa? Ba dena joan zela pikutara errotik. Bizia gauza hil haiek inorentzat dena, pikutara joan zen dena, inorentzat. Dena bai dena, den-dena guzti-guztia eta nagusi delakoa eta animala bizidun deiturikoak guztiak. Unibertso guztia eta unibertsoetik at, pikutara bai. Halako garbi.

Halere gauza guztiak eta bakoitzak bere mundutxoa zuten. Orain oraindik dena berdin erro eta desberdintasun guztietan. Ez zen ezer falta.

* * *

Ba kalaka da ezerezean, bakar-bakarrik zeudela gure Jazinto eta sorgintxoak. Sorgina berean ziharduen; Zein ondo pasatuko zuten gau hartan hain leku romantiko eta orijinallean, zentzazio berriak asto harekin. Oso beroa zegoen. Gure astotxoa berriz erdi lotan esango nuke. Hain lasai eta arazorik gabe...

Emakume sorgina poliki poliki hurbildu zen ontzian Jazintorengan irrifar zabala zuela aurpegian. Beldurrik gabe. Imajina! zelako egoera, hain bero neskatxa Jazintorekin, bakar bakarrik eta bere biluztasunean!! Jazinto lotan zen bai, baina sorgintxoak asto mutur zikin hura besarkatu zuen esna dadin. Bere gainean dago, bernak irikitzen dizkio martxan jar dadin... baina ez. Izugarritzko inbidia diote ondoko ikusle geldi ixil guztiak eta urrutikoak, gaizki jasaten egoera, zerbait esateagatik. Hotza... Ez dela gure Jazinto esnatzen.

Hara, hara! begiak irikitzen hasi da. Ikusi! Ez. Begi izutiak dira irrifar haren aurrean. Jazinto leloa ez dago prest eta ez daki zer egin, nola egin. Ikara terrorea paniko bihotz hura, nahastea, azkarrago doaz taupadak erreakziona nahiean. Jazinto hotza kontzientzia aurka du bere orduko ametsa eliza sorgina. Azkarrago bihotza pumpumpumpum lizuna debekatua bekatua txuria eta gorria aurpegia, ez da martxan jartzen sorgina besarkatzen ikuitzen dio edonon organo hotza esnatu nahiean. Azken arnasarik ez zuen, berarentzat, ARG pum azken taupada. Animalia bai leloa pepelerdoa ergela eroa ere. Hila, sorgina nazkatuta dena madarikatzen du. Txalupa iraultzen du Jazinto inozoa beruntz doa. Edo goruntz sexuaren gozoak dastatzera, nahiean gutxienez, mundu puskatuan berrian, gauak galdu du dena iluntasuna ezik itsaso berrian. Sorgintxoaren dezepzioa animalia minik gabe mindua; —Ar guztiak berdinak dira. Zein leloa!

—Jesus, Kasimiro. Ez esatu hori bromatan ere alpetu.

—Juan Soldado, bulartsua eta sendoa bera, jakin nubes bete zen:

—Zergatik dituzu hori, andrea?

Ba kalaka da zerezoan, bakar-bakarrik, zuebela gure ja-
 xingo eta sorgintxoak. Sorginaren berran xilarberru. Nein ondo
 pasatuko zuten gau hartan hain leku romantiko eta orij-
 nalen, scintzako bertak asto, harekin, Oso beros zerezoan
 Gure astotxoak bertak erdi lotan esango buke. Hain lasai eta
 atarokik, hapezotak kirakab azog, anuz atikiri zintropak
 - Emakume sorgina polki polki hurbildu zen ontzian ja-
 xintzerian iriller, zebela zula auzpegian. Belburrik eabe.
 Imaginal, zelako egoera, hain beru gaskatza, jaxintokian,
 bakar-bakarrik eta bere diluztasunean! Jaxinto lotan zen
 bai, baina sorgintxoak asto mutur xikin hura besarkatu zuen
 esna dabur. Bere gainean dago, berrak irailzen diktio mar-
 txan jar dabur. Dama ex, lagaritzko irribidiz-bidiz ondoko
 likilek geldi xil gutiak eta urrutikoak, gaitziki jasaten egoera,
 xerfain, emategarrik, Hoxa. Ex dela gure jaxinto esanzen,
 eta uad oxilak lantzen datur eta kaxak jakand olatat
 xilata, hata, bertak irilitzen, hasi da ikusi. Ex, Basi jax-
 tik dir iriller haren auzuan, jaxinto jela, ex dano prest
 eta ex daki xer egin, nola egin. Ikara terrota paniko dibotz
 hura, nabarret, akzarago, doz tapadak, erreakzioa na-
 hian, jaxinto hoxa kontzentzia burka du bere ordulo amant
 ta eta sorgina akzarago dibotz pampupumpun hura
 debekatus bekatus txutis eta gortia auzpegia, ex da narxan
 jaxin, sorgina besarkatzen iruitzen dio, ehoron organo ho-
 tza esnatu nahiean. Akzer arnasarik ex zuen, berantentat,
 ARG pum axken tapada. Animalai bai jela pepelerdoz erela
 erda ere. Hila, sorgina narxatuta, dena narxatutakur du.
 Txalupa irailzen du jaxinto inoxo, berrinex doz. Edo gortatza
 sexuaren gozok dastatzeaz, nahiean gutxinez, mandu puz-
 kattan bertan, gaitz, galdu du dena luitatuna, exiz, narxoz
 bertan, sorgintxoaren bezperioz, animalia minik, gabe min-
 dus! - At gutiak bertak dir. Xer lotatuna eta olatat
 idurag ebelek, beru, xer, ta klotatubun eta atzoz

ur, auzubun beru kaxatuta eta kaxin zuzun zela.
 gur-mustatuberech eta xer, minik, auz klotatubun, ur,
 atzoz, xer, ex, xer, atzoz.

JUAN SOLDAU

Xabier Gereño

Orain aspaldi gertatu zen, Espainiako Tertzioak Flandesetik zebiltzan garaiean.

Juan, fortunako soldadua bera, Euskal Herrira itzuli zen. Urteak bere gain pilatu hala, armak erabiltzeko abilezia galtzen zuela sentituz, bizitza arriskutan gehiago ez jartzea erabaki zuen.

Asko ez, baina ba zeukan diru zerbait aurreratuta. Bere asmoa baserri bat erosi eta nekazaritzara dedikatzea zen.

Herrira heldu eta inguruak ibili zituen aukerako baserri baten bila.

Goizean eta arratsaldean hainbat legoa ibili ondoren, iluntzean ostatuan zegoela, eta eskuartean zuen arazoaz mintzatu zenean, bufoi antzeko batek, txantxetan noski, etxe-dorreen, edo dorre-etxearena aipatu zuen.

Ostalarisak, izuturik, aitearen egin zuen:

—Jesus, Kasimiro. Ez ezazu hori bromatan ere aipatu.

Juan Soldadu, bulartsua eta sendoa bera, jakin minez bete zen:

—Zergatik diozu hori, andrea?

Andreak jarraitzen zuen izuturik:

—Etxe hori madarikatuta dago.

Etxekoandrearen izuak bufoi antzekoa dibertitu egiten zuen:

—Baina merke lortu dezakezu, soldadu. Merke baino, dohan eskuratu dezakezu. Aspalditik abandonaturik dago.

Juan Soldadu ez zen aklaratzen. Zer zen etxe hori? Zergatik zegoen abandonaturik? Galdera horiek egin zizkien solaskideei.

—Aspaldiko kontuak dira —argiztu zion ostalarisak—. Zaldunak ziren han bizi zirenak. Krimen izugarria gertatu zen han. Senarrak, zeloak zirela eta, emaztea hil egin zuen.

Juan Soldaduk barre egin zuen:

—Hori da guztia?

—Ez, gehiago dago —jarraitu zuen ostalarisak—. Algoazilak hiltzailearen bila joan zirenean, ez zuten aurkitu. Entzun zezaketen hura hitz egiten, baina ikusi eta ikutu ez. Mamua bilakatu zen. Orduz geroztik, han bizi da.

Juan Soldadu, jenio bizikoa bera, haserre jarri zen:

—Bueno, baina zertan gaude! Lehen esan duzue etxe hori abandonaturik dagoela, eta orain diozue senarra han bizi dela.

—Senarra ez, haren mamua baizik —erantzun zion ostalarisak.

—Zer mamu eta zer mokordo! Nik ez dut mamutan sinesten.

Ostalarisak berriro aitearen egin zuen:

—Ba sinetsi beharko duzu.

Juan Soldaduk, ardo zangada bat edan ondoren, hitz egin zuen:

—Ea aklaratzen naizen, Noiz gertatu zen krimen hori? Zeren ba liteke, mamuaren kondu horrekin, senarrak justu-

ziari ihes egin nahi eta zuen izuaz baliatuz han bapo bizi izatea.

Erantzuna bufoi antzekotik etorri zitzaion:

—Hori ezinezkoa da, krimena orain berrehun bat urte gertatu omen zelako, eta nik dakidalarik, inor ez da bizi berrehun urte. Eta mamuarena, bueno, hori egia dela uste dut. Nik ez ditut entzun, baina ba dago herrian gauez murru haietatik irteniko aieneak entzuten dituenik.

Juan Soldadu zutitu egin zen. Horrela, zutik, bere itxurak errespetoa sortzen zuen, hain zen sendoa eta bulartsua.

—Tontakeriak! Europa erdia korritu dut eta beti garaile irten naiz.

Bufoi antzekoak, delako Kasimirok, hau esan zuen:

—Hor duzu zure kemena eta ausardia probatzeko aukera bikaina. Mamua menderatzea lortuko bazenu, etxea eta inguruetan dituen lurrak zeureak lirateke. Hori dago aspalditik aginduta.

—Egia da hori? —galdetu zuen Juan Soldaduk biziki interesaturik.

—Bai. Hor dago alkatea eta berak baieztatuko dizu.

Alboko mahaitik bost gizon zutitu ziren. Hauetako batek hitz egin zuen:

—Ni naiz alkatea eta Kasimirok esan duena egia da.

—Ongi —esan zuen Juan Soldaduk—. Hori horrela bada, oraintxe bertan noa etxe madarikatura, haren jabetza esku-ratzera.

Juan Soldadu ostatutik irten zen, bere atzetik Kasimiro, alkatea eta dozena bat lagun zituela. Ostalarisak berak ere ez zuen zerbait izugarri ikusteko aukera hori galdu nahi izan eta besteekin bat egin zuen etxe madarikaturako bidean.

Gaua iluna zen. Ilargia eta izarrak ez ziren inondik ere agertzen. Norbaitek komentatu zuen astroak, izaturik, hodei

artean ezkutatu zirela. Hori esan eta gizonezkoek eta ostalarisak joera berbera hartu zuten, handik hanka egin eta Juan Soldadu bakarrik utzirik.

Etxe madarikatua bakarti aurkitzen zen, herritik legoa batera. Galduta ematen zuen, hainbeste urtetako abandonuaren ondorioz. Haizeak mugituz, leiho baten kontraleihoak zarata monotonoa ateratzen zuen erritmikoki orma kolpeia- tzerakoan. Urrunean, txakur baten zaunka entzun zen.

Zerbait gehiago etxera hurbildu eta haizea bortitzagoa egin zen, eta zuhaitzetako hostoak mugitzerakoan txistu berezi eta beldurgarria ateratzen zuen.

Juan Soldadu gizon ausarta eta kementsua zen. Beldurra ezagutzen ez zuelaz presumitzen zuen. «Beldurgabea» deitzen zioten ezizenez Tertiokoek.

Ate aurrera heldu zen. Zabalik aurkitu zuen...

Harrigarria! Batailatan ez zuen beldurrik sentitu, baina orain bai. Ate zabaldutik barrura sartu zenean bere gorputza zerbait dardaratu zen, baina bularra atera, burua altxatu eta Juan Soldadu beldurgabea sentitu zen.

Sartu eta gela ilun eta handi batean aurkitu zen. Urrats batzu eman eta gelaren erditik oihu egin zuen:

—Mamu madarikatu hori! Non zaude?

Erantzuna isiltasuna izan zen. Entzun zezakeen zarata bakarra kanpoan haizeak sortzen zuena zen.

—Mamu ergel eta koldarra! Zatoz zure indarrak nireekin neurtzera!

Oraingoan ere erantzunik ez.

Alboko gelara pasatu zen eta, o gauza kuriosoa! Tximinian sua pizturik zegoen. Sukaldea zen.

Han ez zegoen mamurik, ez pertsona bizi ez hilik. Baina sua pizturik zegoen.

Kezkati, baina beldurrik gabe, mahaiaren inguruan eseri zen. Zakutoa zabaldu, eta ogia eta gazta jaten hasi zen, eta noiz behinka zahatetik ardoa edaten.

Eta gutxien itxaroten zuenean, oihu bat entzun zuen. Oihu baino gehiago, aienea zen.

Juan Soldadu zutitu egin zen. Eskuak ez zitzaizkion dardaratzen. Ez zuen beldurra sentitzen, kuriositatea baizik.

Oihua tximiniatik zetorren. Tximiniaren barru aldetik, goitik.

Hara hurbildu eta galdera bota zuen:

—Nor ari da hor aienea?

Abots misterioitsuak aienea egiteari utzi eta ulertzeko moduan hitz egin zuen:

—Juan Soldadu! Jaurtiko nok ala ez!

Juan Soldaduk sorbaldak jaso zituen axolagabeki:

—Jaurti ezazu, horrek plazer ematen badizu.

Berari bost piper hark. Eta mahaira itzultzera prestatu zen, ardoa edatera. Baina berehala geratu zen, tximinia begira, zeren, une hartan, gizonezko baten eskuin hanka jausi bait zen goitik behera.

—Koño!

Eta hanka begira zegoela, goitik berriro aieneak eta jarraian galdera hura:

—Juan Soldadu! Jaurtiko nok ala ez!

Berriro lelo horrekin! Jaurti zezala nahi bazuen nahi zuena.

—Jaurti, koño!

Oraingoan, goitik behera ezker hanka jausi zen.

Eta zeremonia berdintsuarekin jausi ziren eskuin besoa, ezker besoa, tronkoa eta burua, eta denek elkarturik gizon baten itxura hartu zuten.

Juan Soldaduk ardoa eskaini zion zahatotik.

—Eskertzen dizut, Juan Soldadu. Berrehun urtetan ez dut ardorik edateko aukerarik izan eta eskertzen dizut.

—Beraz, zu zaitugu mamua.

—Noski baietz.

—Eta, orain, zer? Jakingo duzu etxe hau nirea dela. Abandonaturik zegoen, zuk abandonatu zenuen, eta orain neurea da.

—Noski baietz, Juan Soldadu.

—Beraz, etxe honetako jaun eta jabe bezala mintzatuko natzaizu: zoaz etorri zaren bide beretik eta utzi nazazu bakean.

—Barkatu, baina hori ezinezkoa da.

—Zergatik?

—Krimen izugarri bat egin nuen eta haren ordaina bete behar dut.

—Eta, zein ordain da hori?

—Gure leinuaren legeek agintzen dutena: bost urtetan zure morroi bezala jardun beharko dut etxea gaurkotzen eta inguruetakoro eta basoak produkzioan jartzten. Gero, desagertu egingo naiz.

Juan Soldaduren aurpegia alaitu egin zen. Hori bai zori ona berea! Etxea eta ondasunak lortzen zituen dohan, eta gainera moroia, bost urtetarako bakarrik bazen ere.

—Atsegin zait, mamu. Egia esan, hainbeste gerra egin ondoren, atsedenditxo bat hartzea ez zait batere gaizki etorriko, bost urtetakoa bakarrik bada ere.

* * *

Bueno, gainerakoa ez dago kondatu beharrik eta hemen uzten diot idazteari. Nik neuk ere, hainbeste lerro idatzi ondoren, atsedenditxo bat merezi dudala uste dut.

ERRAMU TA ERRAMU

Gipuzkoa'n-da «arrauna» deitzen jakonari Bizkaia'n «erramua» esaten dautsagu, «arramu» ondarrutarrez.

Zubikarai'tar Augustiñ'en antzerkiakaz «Kresala» taldea ara ta ona ibilten zan aldiko kontua da.

Baten Deba'ra joan giñan «Kresaletan» antzezlanana antzez-tutera. Antzerki orretako zati baten arrantzale batzuk urte-ten eben eta itxastar giroa erakusteko euretako bat lepoan erramua eukala egoten zan.

Baiña Deba'ko zinera eldu giñanean, erramua ez genduala eroan konturatu giñan, aztu egin jakula. Alan be ez zan estuteko gauzea. Deba'ko ibaian batel naikoa ikusten zan aldi aretan eta erramua eukenak asko izango ziran. Eta esan genduan zer gertaten jakun eta antzetzoki inguruan ebille-netako gazte bat an joan zan erramu billa.

Lenengotik ez zan bear eta sasoirako ekarriko eban.

Baiña gero, denporea aurrera joian eta ez zan agiri erramu billa joandakorik. Arritzekoa be ba-zan Deba'n orren-beste kostatea erramu baten jaube egitea.

Baiña ¡tira!, ba- etorren alako baten. Baiña, zer ekarren? Bai, erramua, baiña zelako erramua? Besokada eriñotz ekarren.

¡Gabeko orduetan, illunetan, mendian gora, noraiño joan ete zan debar gazte a erramu billa!

A ikusi genduanean ondarrutarrok barreari ezin eutsi izan geuntsan.

Kamiñazpi

Juan Soldadak ardo eskaini nola zahatok.

—Eskertzen dizut, Juan Soldadu, Berrehun urtetan
ardorik edateko aukerarik izan eta ez eskertzen dizut.

ERRAMU TA ERRAMU

—Beraz, zu zaitugu mamua.

—Noski baietz.

—Gipuzkoa n-de «erramu» deitzen jakonari, berrakin n-«erra-
mu» deitzen dauzagu, «erramu» ondarrutuetz.

Xudikarari, Augustin'en antzerkiak «Kriselari» izaldea

eta ta oia jolien kan baidio kontu da.

Baten Debat izan ginar, «Kriselari» antzerkiaren antzerki

tutuz. Antzerki orietako xati baten arintzale batzuk nire

ten ehen eta itxaraz ghor ezizusteko guretsko bat jopon

erramu eukala egoten zan.

—Zergatik?

Baina Deba'ko xizeta eldu ginduan erramu ex gendua

erok konjuntu gind, xatu egin jakula. Alan be ex zan esku-

teko gauza. Deba'ko bainan batel naiko ikusten zan aldi

eretan eta erramu eukamak deko izango ziran. Era esan

genduan xer gortetan jakun eta antzerkiok inguruan bilje-

netako gaxte bat an joan zan erramu billa.

—Denborik ez zan debar, eta sasotako eskarriok eban

Baina gero denboraz aurrer joan eta ex zan auzi eta-

mi dilla jolanderok. Artizokos de ba zan Deba' n orien-

beste kostalen erramu baten jolde egin.

Baina jolde, ba etortzen alako baten Baina, xer eskarriok

Bai, erramu baina xolako erramuz, Besokada erinok

ekarren.

!Gabeke ordutetan, illuntetan, mendian gora, noraino joan

ete zan debar gaxte a erramu billa!

A ikusi genduan ondarritarok barenen ean euzi izan

guztuzan

an izaldi orri-terribelak, eta kuzi «Kriselari» jolde

tut. utu alalok beraz eta orribelak beraz.

ELGOIBARKO AUZO IZENAK (TOPONOMASTIKARAKO OHARRAK).—Elgoibarko auzoak, orain santu izenez ezagutzen direnak, garañ batean heuren toki-izen propioak aldatu zituzten; aintzina hasi ziren santu eta tokiarena elkarturik erabiltzen eta denborarekin santuarenera soil-soilik erabiltzen pasatu ziren. Baina, santu izenetan bertan ere aldatuak ezagutu dituzte. Ohar hauen bidez oroitarañ iraitz ditzugu.

Duela bizpahiru urte Saturnino Ruiz de Loizagak «heremitori Sancti Petri de Idotorbe», 1442ko agirietan aurkitu zuen Vaticano-ko artxiboetan, Agiriak ematen zituen argibideen arabera, «Villa Mayor de Marquina, Eybar, Hermua...», aipatzean, ez zegoen zalantzarik zein ingurutan zen, eta Ruiz de Loizaga jaunaren galdeak erantzun erraza izan zuten historiaz zerbait arduratzen paretontzat: Elgoibarko San Pedro zen.

ADABAKIAK

Historiagile baten antziaz, historiagalea ordea fantasiazko asmakizunez, Saturnino Ruiz de Loizagak ez zuen alperrik idatzi «Los nombres de nuestros pueblos» (Bol. R.S.V. de los Amigos del País, XXXIX, 1983), gal berari jarraituz *Ego*-en (1985, 1-2 zenb., 120 orr.) aipatzen genuena. Hortaz, Jainkoak mirakuluz ordenatzen ez bada, beste norbaitek jarri beharko du.

Elgoibarko auzoeri buruz bada liburu tipi baliagarri bat, egile izenik gabe honako tituluarekin: *Villamayor de Marquina, Elgoibar, 1346-1946*, urte horretan hiriaren sorrera ospatuz Elgoibarren bertan argitaratua. Azken partea euskaraz dakar, Gregorio Mujikaren lana, 1907ko Lora-Jokoetan sarita zena: «Elgoibar-ko albiste kondairatsuak» izenez. Baina parte batetik ez du zer ikusirik bestearekin. Liburu honen erdarazko partean, 13. orrialdean hain zuzen, herriko ermitak auzo izen jatorriaren ematen ditu, Urruzuno deritzan auzoa ez erik. Urre-uzo eta beste bi auzo nagusiak, Altzola eta Mendato.

ADABAKIAK

ELGOIBARKO AUZO IZENAK (TOPONOMASTIKARAKO OHARRAK).—Elgoibarko auzoak, orain santu izenez ezagutzen direnak, garai batean heuren toki-izen propioak zituzten; aintzina hasi ziren santu eta tokiarena elkarturik erabiltzen eta denborarekin santuarenera soil-soilik erabiltzera pasatu ziren. Baina, santu izenetan bertan ere aldakuntzak ezagutu dituzte. Ohar hauen bidez oroitarazi nahi ditugu.

Duela bizpahiru urte Saturnino Ruiz de Loizagak «heremitorii Sancti Petri de Idotorbe», 1442ko agirietan aurkitu zuen Vaticano-ko artxiboetan. Agiriak ematen zituen argibideen arabera, «Villa Mayor de Marquina, Eybar, Hermua...», aipatzean, ez zegoen zalantzarik zein ingurutan zen, eta Ruiz de Loizaga jaunaren galdeak erantzun erraza izan zuen historiaz zerbait arduratzen garenontzat: Elgoibarko San Pedro zen.

Historiagileek ondo dakite lekuizenen garrantziaz; istoriozaleena ordea fantasiatzko asmakizunez. Saturnino Ruiz de Loizagak ez zuen alperrik idatzi «Los nombres de nuestros pueblos» (Bol. R.S.V. de los Amigos del País, XXXIX, 1983), gai berari jarraituz *Egan*-en (1985, 1-2 zenb., 120 orr.) aipatzen genuena. Hortaz, Jainkoak mirakuluz ordenatzen ez badu, beste norbaitek jarri beharko du.

Elgoibarko auzoeri buruz bada liburu tipi baliagarri bat, egile izenik gabe honako tituluarekin: *Villamayor de Marquina. Elgoibar. 1346-1946*, urte horretan hiriaren sorrera ospatuz Elgoibarren bertan argitaratua. Azken partea euskaraz dakar, Gregorio Mujikaren lana, 1907ko Lora-Jokoetan saritu zena: «Elgoibar-ko albiste kondairatsuak» izenez. Baina parte batak ez du zer ikusirik bestearekin. Liburu honen erdarazko partean, 13. orrialdean hain zuzen, herriko ermitak auzo izen jatorrez ematen ditu, Urruzuno deritzan auzoa ez-ezik. Urruzuno eta beste bi auzo nagusiak, Alzola eta Mendaro.

Hara hemen zerrenda jatorra:

Idotorbe (San Pedro)

Ermuaran (San Lorenzo)

Nafarmendi (San Roque y antes San Vicente de Azcue)

Ayastia (San Miguel)

Arriaga (Santi Espiritu de la Piedad de Arriaga, después San Antolín)

San Pedoren agiriak hamazazpigarren mendearen hasieratik genituen, baina *Idotorbe* geroago agertzen zen. Orain badakigu 1442an erabiltzen zela.

Ermuaran ordea Isastik aipatu zuen 1625. urtean idatzi zuen *Compendio Historial de Guipúzcoa* (617. orr.) hartan, baina guk ezagutu duguna eta oraindik ahoz erabiltzen duguna, *Saillubente* edo *Saillumente* da (= San Lorenzo) Latinetik zuzenean euskaratutako santu izena. 1503an agertzen zaigu ermita hau lehen aldiz.

Gaur San Roke-tzat ezagutzen denak, 1597an hartu zuen izen hori; lehen San Vicente de Azcue zen. Bere lehen agiria 1451n aurkitzen dela. Toki ber-bera *Azkue* deituko zen, baina era zabalagoan inguru guzia hartuz *Nafarmendi* omen zen. Elgoibarko *Carta-puebla* delakoan *Lafarmendi* dakar (ikus P. Gorosabel-en *Diccionario Histórico-Geográfico de Guipúzcoa*-ren 681. orr.).

Aiaztia eta *Ayastia* Isastik dakartzki 1625ean (ikus, *Compendio...*, 100 eta 617. orr.), baina San Miguel ez dugu aurkitzen oso berandurarte, 1845a baino lehenagoko agiririk ez bai dugu atzeman.

Arriaga berriz erabiltzen da autopistaren sarrera egiteko San Antolin ermita bota zenetik. Baina, guk geuk, San Antolin erabiltzen genuen auzo izentzat. L. Murugarrenek «Relación de puntos religiosos de Guipúzcoa» lanean (Bol. R.S.V. Amigos del País, XXVIII, 1972, 70 orr.) 1505ean jartzen du

ermita hori Sancti Spiritus de la Piedad de Nra. Sra. de Arriaga izenez.

Ez dut esango Idotorbe, Ermuaran, Nafarmendi edo Lafarmendi eta Aiaztia huts hutsik errekueratu behar ditugunik, ez; ongi litzaiguke santu izenarekin batean erabiltzea. Hau da, idazkietan, ez bata eta ez bestea, hutsik ez erabiltzea.

Duela urte guti bereiztu zen Mendaro eta orain bere Udaletxea du. Arestian aipatu dugun *Carta-puebla* horretan aipatzen zen Mendaro, 1346. urtean, Amberes-en 1584an argitaratu zen mapa batean Deba ibaiaren bi alderdiak azaltzen dira Mendaro izenez. Hau da, Azpilkueta eta Garagartza bereiztu gabe. Eta, Mendaro barruan horiek dira auzorik nagusienak. *Azpilkueta* dakar Isastik, baina P. M. Urruzuno euskal idazleak jarri omen zion *Aizpilgoeta*, zuzenagotzat eta hobe beharrez (?). Auzo hau Mutrikurena izan zen, oraintsu Mendaro hiri bihurtu arte. *Garagartza* ordea, aintzina Deba-Itziar partekoa zen eta *Mendarozabal* Elgoibarkoa. 1882an, biztanlerik gehien biltzen zuen *Garagartza* Debak libre utzi zuen, udaletxe propioarekin herri bezala antolatzeko. Orduan pasatu zen Elgoibarrera, baina mende oso bat igaroko zen 1983an Udal propioa lortu arte.

Bere biztanle kopuruz Mendaroren hirugarren auzoa *Mendarozabal* zen, Elgoibar partekoa, baina azpaldiko urteetan bertako ermitaren izenez ezagutzen zen Trinidad. Elgoibar parteko auzoetan agertzen zaigun joera hori, badirudi noizbait herri-agintari edo eliz-agintariegandikoa zela, zeren beste auzoekin ez bai da holakorik gertatu. *Garagartza* eta *Mendarozabal*, Deba ibaiaren eskubitik, eta ibai horretara bere urak ematen dituen Kilimon erreka bereizturik.

Beste auzo bat, goraxeago eta Deba ibaiaren ezkerretik, *Plaza*. Non zatitzen ziren Mutriku eta Elgoibar Arnoatetik jeisten den erreka, bere parterik handiena Mutrikurena zela. Gaur egun, autopistagatik deseginik dago auzo hau, etxerik gehienak galdu zirenez. *Plaza* honek, behar bada, *-zabal* (*Mendarozabal*)-ekin badu ikustekorik, biak zaharrak eta biak esan

nahi berekoak izatez aparte, oroi hor izan zitekeala erromatarren *Tritium Tuboricum* inon izatekotan ere, ibaiko nasen gainetik eta Aizkoltxo muinoaren babesean. Baina, hau egiztatzeko azterketa zehatzagoa behar han, *in situ*. Zeren ibaiaren bi alderdian *zabal* eta *plaza* aurkitzeak aintzinako zerbait adierazten digu.

Baina, denen gainetik, lekuizena gordetzea agiri zaharra bezala da, eta gutien uste denean beharrezko agiria.

J. S. M.

EZ DA TXORIBURUKERIA.—Azken bolada honetan, Bizkaian eta Gipuzkoako mendebaldean hain oparotsu erabiltzen den *garaun* eta *garun* (cerebro) ordez, hedakunde gutiagoko, *burumuiñ*, Baztan eta Alduden esagutzen dena, gure literaturan zabaltzen ari da, *burmuin* bezala. Hobeago ez den *buruko-muin* eta horrelakoak ere irakurri izan ditugu. Izan ere, hautapen hauek dira gure burukominak.

Arazo horretan gauza bat dago garbi bizkaitarren alde: *muin* (tuétano) gauza bat dela eta *garaun* (cerebro) beste bat. Berezkuntza garbia da.

Donostiarrentzat, aldiz, *burmuin*, itsas-belea da, (cormoran). Baina donostiarrek ez dute ez itsas-txoririk eta ez bestelakorik beren buruan. Kaxkarinak direla esan ohi dute, baina ez txoriburuak.

Eibartarron usterik ez dut agertu gura, zeren armaginen hirian *garun* (cerebro) bai da eta horren tokia edo tegia, buru-kasko barnea, *garuntegia* (cavidad cerebral). Burmuinetik zer irtengo den ezin jakin ordea.

KAIIXO!—Edonorri, edonon eta edonoiz «Kaixo!»-rekin agurtzen hasi zaigu gure giputz jendea. Egunon, arratsaldeon, gabon, agur, ongi-etorri..., edo antzerakoen ordezkoa betetze ustean.

Guk ezagutu genuen «Kaixo!», ez zen hori. Gure ustez «*qué hay*»-tik edo zetorren hitz horrek erdarazko «*jhola!*»-ren balio soila zuen, eta adiskide artean edo konfiantza handiko ezagunen artean baizik ez zen erabiltzen. Edukazorik gabea eta errespetu faltakoa zen edonor, edonon, edonoiz «Kaixo!»-rekin agurtzea. Horrelakorik gertatzen zenean ordea, hitzetik hortzerako erantzuna prest edukitzen genuen:

—Kaixo!

—Ez dogu asko balixo.

Baina, orain, Euskal Telebistaraino ere iritsi zaigu agurtzeko era hori. Beraz, zer da devaluatu dena, euskara ala telebista? Ala, ez ote dugu balixo.

ASMOZ TA JAKITEZ.—K. Bengoetxea jauna, zuk egin diguzun galde bera lehenago ere egina ziguten, baina ez zure deituradunagandik. Egia da Eusko Ikaskuntzak bere iragarritzat hartua: «Asmoz ta Jakitez» zuon deiturako epigrafearen esalditik hartua dela. Otoi, Bizkaiko Aulestia jatorrizko Bengoetxea deituratik, zeren Bengoetxeak jatorri bat baino gehiago bai dute, baina iragarki hori daroana Aulestiko Bengoetxearena da.

Behin baino gehiagotan agertua izango da noski, baina guk inprimaturik ezagutzen dugunetatik zaharrena Juan Karlos Gerrak 1904. urteko irailaren 27an Donostiako Euskal Jaietan irakurri zuen hitzaldikoa da. Hitzaldi horrek argitalpen bat baino gehiago izan ditu. Nik orain eskura aukeran dau-

kadan *Estudios de Heráldica Vasca* deritzanean dator, bigarren argitalpena Donostiako J. Baroja e Hijos-en inprimategian 1910ean agertu zen, bi partetan dator liburu hori eta bigarrenaren «Epigrafia heráldica» deritzan sailean irakur daitake, 319. orrialdean. Armariaren iragarki osoa honako hau da:

Bekoak goikoak eskondu leidi

Ta txikiak aundia benzi leidi

Asmuz ta jakitez.

Badakit hasieran «Bekoa» behar duela, ez «Bekoak»; baina nik dagoen bezala transkribatzen dizut. Ez bai dut uste alderantziz daitakenik, bekoak goikoa ezkondu, baizik goikoak bekoa edo bekoa goikoak. Dena dela, hor duzu liburuan datorren bezala.

J. K. Gerra bera Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetako zenez, behar bada bere asmoaz hartu zen iragarki hori elkar-tearentzat.

Atsegin zait oharrok eskaintzea. Honenbestez agurtzen zaitut.

J. S. M.

EUSKARAZ HAUTSI ZURE MARKA.—Gipuzkoako Diputazioa eginahalakoan sartu da deihadarka jendea bultzaraziz euskaraz markak hautsi ditzan, eta alde guztietan iragarkiak jarri ere bai deialdiaren hotsez: «Euskaraz hautsi zure marka».

Baina gure eritzi apalean lehendik ere bizkortuz zetorren ekintza hori. Markak hautsi? Bai horixe.

Hala ere, bada Gipuzkoako Diputazioari aurrea hartu diotnik. Aintzinatik nafar eta bizkaitarrentzat «probintziano» ziren, baina denborarekin gauzak aldatuz joaten dira eta hara hor Bizkaikoeek mugan jarri duten iragarkia: *Provincia de Guipúzcoa*, eta itzulpenez «Gipuzkoano probintzia». Jaseus!, hau duk kuadrilla! Hortik ikus dezakegu, gauzen aldaketa, haizeak nondik ematen duenari begira dagoela. Zer, norako aldaketa? Hor dago arazoaren gakoa, eta kamino bazterretan irakurria dugu honako hau ere: *Cambio de sentido*, «Norantza aldaketa» eta «Zentzu aldaketa». Beraz, aukera guziak eskaintzen dira: naiz ezkerrera edo eskubira aldatu, modan jarri bai da aldaketa. Patxada ederrean lasai bizi ondorean, denok demokrata eta inor ere ez diktadurarekin konforme, duela urte guti holakorik nabari ez bazen ere. Baina kostako zaie zentzuz aldatzea lehendik zentzugabeak direnei; hor bai ez dagoela: *liberté, fraternité et égalité*. Eibarko Bazterra zaharrak erantzunez ziona: «Liberte, kagalite eta mokordite».

Gero, egunkariak zekarren eta hala izango da: *Un autobus arrolla a un ertzaintza*. Holakoetan intentzioa aski da, naiz AP-tik edo naiz HB-tik etorri; naiz ertzain bat edo naiz Ertzaintza osoa. Hemen, azken gerratearen ondorean hasi bai zen *Feria Internacional de Títeres*, oraintsu euskarara itzuli duten erara behintzat, «Nazioarteko Txontxongilo Jaialdia». Bai, batzuk alde batetik amerikanoen txontxongilo eta besteak bestetik errusoena. Ha! zer nolako txontxongilo jaialdia.

Harrigarrietakoa eta euskaraz marka guziak hautsi dituen, *Oficina Municipal de información al consumidor*, «Bezeroaren udal argibide idazguna», zeren hain iragarki laburrik ez bai da ulertu ahal izateko hain denbora luzea behar duenik. Eta, entzutea dugunez, ulertzera iristen direnentzat sari bezeziak omen daude.

Orainago hor agertu zaizkigu inon diren markak hautsiz hiri, bide, denda, bulego eta beste zenbait lekutan iragarkirik bitxienak, euskaraz zeinek zeinen marka hautsi, norgehiagoka batean. Exenplu ona emateko, Diputazioari ere Aldundia jarri diote. Badakigu hori ez dela era jatorra, baina zer? Aldundia ahaldunez osatzen baldin bada, ahalduenak ahaldueña egingen du.

Aurrerakoien itxurak zabaltzeko, biderik nagusienetan *Zona no nuclear*, «Inguru ez nuklearra». Holako iragarki baten ondoko baserrikoari galdetzeaz ea zer adierazten zuen, honako ihardespena izan nuen: «Nuklearrik edo nukleartu gabarik dauden tokietan jartzen omen dituzte holako iragarkiak horiek ipinten zebiltzan batek esan zidanez. Eta iragarkioekin aditzera eman nahi omen dute nuklear gaienez debekaturik gelditzen dela bide hau». Hara hor «Zentzu aldaketak» dakarren ondorioa.

Noraezean dabilenari norabidea ematea ez da gaizki; baina bada komunikabideetara abiatzen zelakoan komunikabidea hartu zuenik ere, eta gero k.k.... Gure gauzak ere holakoak izaten dira, topaketekin hasi eta ahari talkan bukatu, marka guziak hautsiz. Eta, «Hiri erdia» iragarri, beste erdia lurrikarak harturik suntsitu baliz bezala. Txominek uste zuenez, hiri erdia zela autoz ibiltzeko, eta Manuel-ek ihardetsi bestea erdi-purdizkoa zela.

Trenez ibiltzeko ere baditugu komediak. FF.CC. Vascongados-koek honako iragarkiak ipini zituzten zerbitzuak eskainiz: *Combinaciones de trenes*, «Trenen azpikogonak». Hori ere ez da batere harrigarria; gaur egun edozer, sexi kontuan neurritz kanpo gabiltzanez.

Konstituzioaren kontra ari diren donostiarrek ere «Konstituzio Enparantza» (= *defensa de la Constitución*) deritzan plaza dute. Nork ulertzen du hori? Berriz ere esango dute txaketa aldatzeak egon direla, hor ere marka hausteak izan direnez.

Baina, ez uste dena aldrebeskeria denik, ez; zeren Santu edo Saindu izenean Deunekin hasi zirenen deungadak kanpai hots atsegina dakarte. Abesbatzak beraien esparruetara batzea izango zen ekintzarik egokiena, baina betiko leloan eroriak dira. Holakoa bait da flauta jotzen duenak lumaz idazten duenak baino balio gehiago dutenen herria.

«Euskaraz hautsi zure marka» delako eslogan honek liluratu gaitu eta han-hemenka jarraitu diogu bere inguruan azaltzen diren orotariko iragarkieri; jarraitu ere txorabiatzera arte. Batzuk aisa irensten dira baina beste batzuk ez. Jaso genuen HABE aldizkariaren aurtengo lehen alea, beti bezain txukun inprimatua, baina oraingoan *medium*-ik gabea eta, ah! zer azal polita Cabestany erdi-erdian duela. Azala ez da aski eta barnean zer berri? Huts! Euskaraz markak haustekorik ez dugu aurkitu. Hala ere, ezin uka gure harridura. Gure Xipri Arbelbideri ziria sartu diote edo Xipri bera izan da zirizko «xipristina» bota diguna, zeren 17. orrialdean P. Lafitte zena «moja lagun batekin» adiskidantzan argazkia eman bai du. Baina, baina; zer da gure harridura, lekaimetzat, Lafitte konkistatu nahirik edo, Madaleine Jauregiberri maestra, euskaltzain ohorezko zena, mojatzat harturik ikustez. Pikarena ala Lipuarena, zerena egin diguk Xipri?

J. S. M.

ARDOAZ.—Haro'ko TERETE jatetxean giñan bein bazkalzen. Bertako kupeldegi batean ipiñi ziguten maia. Kupeldegiko paretak azulejoaz beterik zeuden. Eta azulejo bakoitzean ardoari-buruzko esakera bat. Eta onela zion esekara oietako batek:

*El que bebe vino se emborracha;
el que se emborracha duerme;
el que duerme no peca;
el que no peca va al cielo.*

Nere lagunak au esan zidaten bereala: jarriko al'zenduke euskeraz ori...? Papera ta lapitza eskatu nien nik orduan, eta jaten asterakoan onela kantatu nien:

*Ardoa edanda moskortzen da bat,
moskorrak berriz lo egin;
oean etzanda lo dagoanak
pekaturik egin ezin.
Pekaturikan ez ba'daukazu
zerua dezu zurekin;
edan dezagun galanki bada
zerua gurea dedin...!*

Anastasio Albisu

MARTIN DE HOYARZABAL, PIARRRES DETCHEVERRY —
Liburu hauda Itxasoko Nabigacioneoa. Bayonari Fau-
vet-Imprimerian, DCLXXVII. Editorial Txertoa, San
Sebastián, 1965. (Edición facsimil de 350 ejemplares).

Gure artean maiz aipatua baina osorik ezagutzen ez gene-
netakoa zen liburu hau. *Les voyages aventureux de Capitaine
Martin de Hoyarzabal habitant de Cibiqua*, zelakoaren euska-
rako itzulpena, Piarrres Etxeberriek egina eta 1677an Balmako
Fauvet-etscak argitaratua. Parisko Bibliothèque Nationalean
ale bat zegoen, honako zenbakiz (Réserve V. 2596-2), ez hain
ongi konserbatua eta hortik ateratako fotokopiaz egina da.
M. Aramendik birargitalpen honi 131 orrialdean egin dion
oharrean, Parisen dagoen hori ezagutzen den ale bakartzat
jotzen du, baina gauza jakina da Lacombeck beste bat zuela,
gaur egun Donibane Lohizunen Montizonen alargunarean da-
gocna.

Benetan interesgarriak dira txertoak egin duen
faksimilezko argitalpen hau.

Liburu honen edukinez J. Vinson-ek esan zizkigun berririk
aizitz. Seoane markesak Julio Urkixori kopila bat atera zion,
baina honek ez zuen ondo transkribatua zen konfiantzerik eta
inoiz ez zuen argitaratu. Gure egunotan zenbait aipamen ez
ezik lanak ere argitaratuak dira bertako edukinez, berezki
P. Urkizuk *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio
de Urquijo»* (Vol. VII, 1973) argitalpenean «Breve estudio
antológico y léxico del tema marino vasco» zeritzan lan hartan
eta X. Kintanäk *III Semana Internacional de Antropología
Vasca* (II. tomoa, Bilbo, 1976) haretan inakurritako txostena
«Itxasoko nabigazioko liburuaran hiztegi teknikoaz zenbait»
zeritzana.

Horiek lekuko, esan beharrik ez dugu zein garrantzitsua
zaigun liburu hau. Idazkeraren aldetik erudugarria ez bada
ere, gaiaren aldetik interesgarria zaigu.

ARDOAZ.—Haro'ko TERETE jatetzean gifañ bein bazkal-
tzen. Bertako kupaidegi batean ipiñi ziguten maia. Kupaide-
giko parretak azulejoaz beterik zenden. Bia azulejo bakoitzean
ardoari-buruzko esakera bat. Bia onela xion esekara oietako
batek:

*El que debe vino se emborracha;
el que se emborracha duerme;
el que duerme no peca;
el que no peca va al cielo.*

Nere laginak au esan zidaten bereala: jartiko al'zenduke
eusketaz ori...? Papera ta lapitza eskatu nien nik orluan, eta
jaten osterakoz onela kantatu nien:

Ardo'ko esakera bat,
moskorrak berrig lo egin,
ocean etzenda lo dagoanak
pekaturik egin ezin.
Pekaturikan ez b'daularazu
zerua detu zurekin;
odan dezagun galaneki bada
zerua gurea dadin...!

Anastasio Albiu

MARTIN DE HOYARZABAL, PIARRES DETCHEVERRY.—
Liburu hauda Itxasoco Nabigacionecoa. Bayonan Fauvet Imprimerian, DCLXXVII. Editorial Txertoa. San Sebastián, 1965. (Edición facsímil de 350 ejemplares).

Gure artean maiz aipatua baina osorik ezagutzen ez guenetakoa zen liburu hau. *Les voyages aventureux de Capitaine Martin de Hoyarzabal habitant de Çubiburu* zelakoaren euskarazko itzulpena, Piarres Etxeberrik egina eta 1677an Baionako Fauvet etxeak argitaratua. Parisko Bibliothèque Nationalean ale bat zegoen, honako zenbakiz (Réserve V. 2596-2), ez hain ongi konserbatua eta hortik ateratako fotokopiaz egina da. M. Aramendik birargitalpen honi 131. orrialdean egin dion oharrean, Parisen dagoen hori ezagutzen den ale bakartzat jotzen du, baina gauza jakina da Lacombe beste bat zuela, gaur egun Donibane Lohizunen Montzonen alargunanean dagoena.

Benetan interesgarria iduritzen zaigu Txertoak egin duen faksimilezko argitalpen hau.

Liburu honen edukinez J. Vinson-ek eman zizkigun berririk anitz. Seoane markesak Julio Urkixori kopia bat atera zion, baina honek ez zuen ondo transkribatua zen konfiantzarik eta inoiz ez zuen argitaratu. Gure egunotan zenbait aipamen ez ezik lanak ere argitaratuak dira bertako edukinez, bereziki P. Urkizuk *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* (Vol. VII, 1973) argitalpenean «Breve estudio antológico y léxico del tema marino vasco» zeritzan lan hartan eta X. Kintanak *III Semana Internacional de Antropología Vasca* (II. tomoa, Bilbo, 1976) haretan irakurritako txostena «Itsasoko nabigazioko liburuaren hiztegi teknikoaz zerbait» zeritzana.

Horiek lekuko, esan beharrik ez dugu zein garrantzitsua zaigun liburu hau. Idazkeraren aldetik eredugarria ez bada ere, gaiaren aldetik interesgarria zaigu.

Azalean dionez, «LIBURUHAUDA ITXASOCO NABIGACIONEOA. Martin de Hoyarزابalec egiña Francezes. Eta Piarres Detcheverry, edo Dorrec escararat emana, Eta cerbait gueiago abançatuba».

Ez dugu eskura Hoyarزابalek frantsesez argitaratua, baina euskarazko honen tituluak adieraztera ematen digunez, «Eta zerbait gueiago abançatuba» dela, gehigarria duela dirudi.

Edukin orokorraren berri ematen du sarrera hitzetan: «liburu hunetan conprenitçen direla arrutac: lecoac: çundac: eta marea contubac: eta entradac: eçagutçac halturac halanola: Lebantecoac: Espainnyacoac: Françiacoac: Angueleterracoac: Irlandacoac: Escosiacoac: eta Ternubacoac: hala nola baitere seguidan Iscribatubac, placerduten maistrubentçat edo pillotubentçat, edo itxaxoan nabigatçen dutenentçat, perilletaric goardatçeco: eta lehenbiçicoric, Lebantecotz brçeac seguidan ditubella», hirugarren orrialdean irakurtzen denez.

Horrez gainera arrantzurako kontseiluak ematen ditu, non zer eta nolako eragozpenak adieraziz, bai eta baleak non aurkitzen diren ere.

Bertako exonimoak ere interesgarriak dira, itsas-hegaleko leku-izenak bezala. Adibidez, 10. orrialdean, Hondarribiako portura sartzeaz hara zer dion: «Iaquiteco duçu nahi baduçu muillatu Hondarrabiaco Igueren muillaçaçu 9. brassetan eta descubriçaçu Ospitalea eta ethorricoçaitçu Amuisco puntaren Irlaren gainnetic noroesta».

Hara gure itsasertzeko izen batzuk: Hondarrabia (Iguer, Amuiç, lehenago Amuisco irakurtzen dena, Ospitalea, Maala = Magdalena, auzoa ote?). Ondorean dator Passaye (gazteluaren barrukaldea), Donostia, Guetharia (Sant Anton-ekin), Moustricoun, Ondarroa, Bermayun (Machicaco punta), Plazencia, Portugalleta. 24. orrialdean, distantziak aipatzean, izen horietako anitz errepikatzen ditu, ez guziak beti berdin,

zeren Hondarribia bera, H-rik gabe ere agertzen bai da, Ondarrabia. Baina, tarteka lehen aipatugabeak ere bai, hara nola, «Lecatutic Bermayurat» (Lekeitiotik Bermeora).

104 eta 105 orrialdeetan Ternuako (Terranova da, gaur oraindik ere gure arrantzale zaharrentzat Ternua) graduak emanaz, bertako toki-izenez, batzuk euskaldunak jarriak. Hortik 108. orrialderaino hango zenbait berri. Gero, 118.ean «Bacailauco bancua», gure ontziak nondik nora ibiltzen ziren adierazpenen artean.

Zientzia naturalerako oharrik ere bada, 119. orrialdetik aurrera bereziki, esaten duelarik: «*Seguidan dire Sanquochorien eçagutçac*. Iaquiteco duçu noizere hurbilcen baitçare Ternuaco leihorretican, 100. lecoetarat causituco duçu chorí bels handi batçuc çeina ecin bola baitaitesque eta escaldunec deitcen tuste ducac hec icustentutçunean bancarregatic guardia emanen dioçu çure buruary eta guardia emanaraçioçu çure gendeary.

«Iaquiteco duçu noizere hurbilcen baitçare bancurat icusico duçu çhory çhury haiñnits ceiñnac deitcen baituste escaldunec vssoac eta ondoan caussituco duçu comunsquy chory bels batçuc ceiñnac baitute moco lucheia eta sabel churia halacoac gutitan frogatucoduçu dabilçala bancuas haguits atherat lecat, bancuaren cantalean edo bancuas leihor aldetic baicen hartaracotçat halacoac icusten ditutçunean çunda etchea ahaldeçaqueçucque aguian ondoa atrapatuco duçula.

Orri beretik aurrera ere horrelako adierazpenekin jarraituko du: «Iaquitecoduçu icusten baitutçu chory chury handibatçuc marloinnac baino handiagoac eta lepho luçeac ceiñnac deitcen baituste escaldunec gorrac baita halaber chory belz batçuc ceiñnac baituste chango gorriac ceinac deitcen baituste escaldunec chucutun choriac hec icusten ditutçunean etçare haguits vrrun içanen eta eguinen dioçube çeben buruey guardia».

Ondorean Ternuako portuak adieraziko ditu.

Atlantikoan gure arratzaleentzat hain ezaguna den «Gran Sol», liburu honetatik ohartzen naiz *Grambayaso*-tzat aipatzen duen bera dela.

Aldatu ditugun zatiotatik ohartuko zera, irakurle, ez duela euskara eredugarria. Gainera, bestalde, inprimategiko hutsak ere anitz ditu eta ikus daitekenez lehen inprimaketa ere ez da hain garbia. Horregatik, 132-135 orrialdeak, hain direnez irakur ezinak, argitaratzaileak orrion eraskin bat ezartzen du liburuaren bukaeran.

M. Hoyarzabal-entzat, gu ez gara euskaldunak nonbait, zeren 131. orrialdearen bukaeran, Ternuako portuak adieraztean, «Espanolec deitzen dute Etçchaire portu».

Azken orrietan era askotariko «Thaulac» eta egutegia dakarzki.

Hirurehun eta berrogetahamar alek osatzen duen faksimilezko argitalpen hau lehenetik azkeneraino zenbakitua da.

J. S. M.

BITORIANO GANDIAGA.—*Denbora galdu alde*. Erein. Donostia, 1985.

Gure artean ez da egilea nor den esan beharrik, poesiaren alorrean behinik-pehin. Baina pertsonaia barneragotik ezagutu nahi duenak orain du aukera, aurkeztu guran gatozen liburu honek xehetasunik aski eskaintzen digunez. Bere lumaz aitortuko digu: «Berrogeitahamalau urte ditut laiotz naitzelarik».

Bai, «Behin batean bazen gizon bat, bat noiz den gizon ere ez zekiena». Eta denbora galdu alde aritu zen gizon gradueta goraka igo zenean. Zeren orduan hasi bai zen lanak, egin beharrik, arazoak betiko menpetasunean zerabiltzan eta hezkuntza bihurri hori uzteaz zintzotasunaren axola baztertuz denbora galdu alde aritzearren. Baliorik gabeko gauzak egiteari eman bai zion. Ipuiaren hasiera dirudi, baina hau ez da ipuia. Edo, bizitza bera ez ote da ipuia? Dena dela, abereen erresuman gizona denez ezertarako balio ez duen gauzak egiten dituen bakarra, zilegi zaio eroaldia ere, gauzen balioa bera neurtzeko adina ez denez gero. Baina, era berean, horrek bedorrek ez ote du gizonagotzen? Hori oraindik nabarmena azaltzen da barne-muinetatik azalpeko mintzetako epidermisera arte berezko sentiberatasuna dakartenen artean. Hala bai da izakia.

Era berean, mendimutila da liburu honen egilea. 31. orrialdean dionaren lekuko naiz, Araoztik Arantzazura bidean hala ezagutu nuenez. Morral handiz eta bortzegi zaharrez ibiltzen zen mendizale hura eta habitoz eta sandaliaz arin bestea, bakoitzak berekiko ametsak zeramazkiten pausolasterrez trink eginaz, nor nor zen jakiteka, euskaltzaletasun hitzaspertua erabili ondorean norbere bidetik jarraituko zutenek. Inoiz galdetzen nion nere buruari: «nongoa ote fraide beltzarana? Agian, Asiskoaren ametsak zeramazkin buruan». Baina, uste horren arabera, fraideak berak zer pentsa zezakean hiritar naturazale hartaz? Tartarinen itzala ez ote zuen nabarri? Izan ere, mundu honetan, bakoitza bere zoroak darabil:

*Ibiliz ihardun, joan etorri,
egon, entzun, irakurri;
bertsoen truke lor zenezake
bitizkeko lain hazkurri;
baina hain zaitut kikilimalo,
izukor eta mudurri,
irrits mingarriz gogo duzuna
berbera zaizu izurri.*

Hor bertan bertsozko autobiografia.

Baina, holako poeta honek hamalaudunik (sonetorik) ez du maite. Tekniketatik aske ibiltzea nahiago du eta ez du arrazoi faltarik. On egin bai dio, zeren sare horietara erori balitz antzu geratzeko arriskoa zuen.

Alperrik esango digu, 49. orrialdean, «Alferra izan naizen kezkarik ez dut, baina bai alferik aritu izan naizen damurik», irakurleok ez dugu sinestuko alperrik ibili denik, ez horixe. Beste gauza bat da poeta inoiz itoazten duena:

*Noizbaitzuetan kaltegarri erizten diot
nolabait lortu dugun
edo nolabait egotzi diguten
izen onari.*

*Izen horri eustera behartzen gaitu jendeak
batere errukirik gabe,
izen horri eutsi diezaiogula
hil ala bizi.*

Bere barneko kezkek eta gogoetak holako freskuraz agertzen dizkigu orrialderik orrialde. Gure ustez, iraun dezala horrelaxe denbora galdu alde. Denbora galtze horretatik ez bai du literaturak galerarik, eta izango du euskaldungoak zer irakurririk.

Liburu horretan, egileak inoiz besterik uste badu ere, ez dago une antzurik. Badakigu lan gehiago eskatzea ez dela bidezko, eta hoberik burutzea ez dela gauza erraza.

Idazten jartzeko

astirik ez, eta orduanago

idazteko astia dut opa.

Idazteko astirik bai, eta orduan

astirik ez dudan hartako

idazteko gogoia dut falta.

Hori ez da idazle honi bakarrik gertatzen zaiona, hori idazle guzien gaitza da.

Bakoitzak bere barruan aurkitu behar du biziaren grazia eta Gandiagak: «Apaizgoak izpiritu-esperientzia gozo eta izugarrietara eraman nau eta zor diot erlijio-bizitzari buruzko ikuspen ederrik, erlijiozko misterioak ekuztatzeko graziarik», aitortuko digu. Lasaitasun hori edonorrentzat enbidigarri da. Gure lasterketazko bizitzatik ansia horiek nabari ditut. Bai-ta behin Gandiagari agertu ere:

—Neu ere gustora biziko nintzake Arantzazun, Aita Kandidoren ondoan, liburuak atontzen.

Berak hitzetik hortzera ihardetsi:

—Ba, etorri.

—Eta, emaztea ta semeak, zer?

—Sindikako ostatuan.

Umorean holakoa bait da gura Gandiaga. Baina, tontoa? 95. orrialdeko olerkian diona, inondik ere ez. Tonto jaio zela uste badu ere, egun ez du tontotasunaren ilerik. Hutsaren hurrengo diren harroputz listopasauak bakarrik uste izango dute holako poeta tontoa dela.

Denbora galtze alde edo barrena lasaitze alde, burutu duen liburu hau ez da txantxetakoa. Hizkuntza erabileran berez duen gozotasunaz gainera, gogoetaren eremuetan naro dabil gure gizon hau. Liburuaren barna bere ikuspegiak jakingarriak iduritzen zaizkigu, bere buruaz diharduenean baitapat. Horregatik, 99. orrialdean eskaintzen dituen bertsoak antolojikoak izan daitezke.

Euskaltzaletasunean ordea, beti zuhur eta tinko. 113. orrialdean dakartzan bertsoak abertzale direla esaten dutenen politiko kastarentzat onak dira. Naiz ezker edo naiz eskubi, hortaz jabetuko ote dira? Hortaz jabetzeko ez badira gauza, 114-115. orrialdeetan eskatzen duen solte nahi hori ez litzake aski.

Irakurgai aproposa da *Denbora galdu alde* burutu duena eta jarrai beza horrelaxe denbora galduaz.

Otsalar

—Nau ere gustora biziko ahizkariak. Aitzakum, Aitz Kan-
didoren ondoan liburuak-antontzen- nabalen ala
Berek hizteik hortera iparidatsi:
—Ba, ehorti. —Ez, emaxtea ta sormasa, xer-
—Sindikako ostatuan.

Umoren holakor bait da gure Gandiaga. Baina, tonlor,
92 orrialdeko olerkari bion, nondik ere ex. Tomo jaso zela
uste badu ere, egun ex du tonlotasunaren leirik. Hutsaren
hurrengo bitan hartopuz listopasunak bakarrik ueste izango
dute holako poeta tonlor baita.

EUSKALTZAINDIA. GRAMATIKA BATZORDEA.—*Euskal Gramatika. Lehen urratsak*. Comunidad Foral de Navarra, Departamento de Educación y Cultura, Institución Príncipe de Viana y Real Academia de la Lengua Vasca — Euskaltzaindia. Iruñea, 1985.

Edozein hizkuntza normalduren baitan bi zutabe aurkitzen dira beti: gramatika eta hiztegi arauemaile edo ereduak.

Kataluniarrek, esate baterako, mende honen lehen hamar-kadetetan burutu zuten lan hori, Pompeu Fabrari esker.

Gure kasuan, eta gramatikariak soilik aipatzearen, lan bikainik burutuak dira alor honetan, besteak beste, Larramendi, Kanpion, Azkue, Lafitte, Umandi eta abar, baina oraindik aipaturiko zutabe ofizial horien beharrea gaude.

Egia da, aitortu beharra dago, azken urteotan aurrera-pauso nabarmenik eman dela ortografia eta morfologiaren sailean, eta agian horregatik, garbiago ageri zaigu gainerakoan daukagun hutsunea eta dagoeneko ondotoxo jota daukagu gramatika osoa ontzeko ordua, beranduegi ez bagabiltza behintzat.

Duela bi urte, 1984eko irailaren 29an eta Iruñean, A. Kanpionen omenez Euskaltzaindiak egin zuen X Biltzarrean, Gramatika lantzeko Batzordeak buruturiko hastapenak eskaintzea erabaki zuen, adierazpen batean. Beraz, etorkizuneko «euskararen ereduak gramatika» gorpuztuko duen material bilketa hau argitara eman du Euskaltzaindiak joan den urtean. «*Euskal Gramatika: lehen urratsak-1*» izenpean plazaratu da eta dagoeneko bigarren argitaraldia ere ezagutu du.

Pierre Lafitte zendua buru zela, zortzi txostengile eta lau laguntzaileraren artean buruturiko lanari Patxi Altuna eta Pello Salaburuak eman diote azken moldapena, eta testu irakurterraz eta argia ondu dutela esan behar. Inork ez du galduko denbora handirik teknizismoen trangoetan aurrera jo ezinean.

Hiru atal nagusi ditu liburuak perpausaren egitura, izen sin-
tagmaren egitura eta deklinabidea, aditzondoak eta interjek-
zioak aztertzen dituena.

Paratzaileek sarreran diotenez, «iragan mendetik hona
idatzi den euskararen xehetasun morfosintaktikoak azaltzen
ahalegindu» dira, lan deskribatzailea burutuz. Agian, zuzena
eta okerra, ona eta txarraren binomio manikeozaleren batek
gogokoago luke arauemaileagoa ledin, baina nire ustez, hain
zuzen ere, zabaltasun eta irekitasun horretantxe dago «lehen
urrats» hauen ezaugarria eta alderdirik baliotsuenetako bat.
Estukeriak eta txorroxkeriak aski izan dira oraindainokoan
euskararen gramatika eskaintzen ari zirelakoan edota irakas-
pideen gehiegizko funtzionaltasun-nahiz ezarri zaizkigunak.

Bestalde, garbi dago paratzaileen asmoan, euskara batu-
aren arautze ofiziala, Euskaltzaindiari dagokiola eta Batzor-
deak burutu duenaz bestelako lana dela, Eta zalantzarik ba-
litz, garbi uzten dute, «euskara batuaren abiapuntu eta oina-
rria euskara bera dela, osoa, euskaldun guztion hizkuntza
eta euskara batuaren definizio zehatza oraino egiteke dagoe-
larik, hizkuntza osoaren aberastasunen eta mugen arauera
moldatau behar dela».

Gauden idorte eta eremutze-garaiotan, «loreak udan intza
bezala» hartzen dira honelako lanak eta izan duen harrerak
ea urratsak bizkortzera bultzatzen duen Batzordea.

Xabier Mendiguren

PIO BAROJA.—*Xanti Andiaren kezakak*. Bi libururu. Itzulpena: Yon Etxaide-Itharte. Hordago publikapenak. Donostia, 1984.

Ez du hau Etxaidek eleberri honen lehen itzulpena, 1959an Itxaropenako Kuliska sortan eman zun lehenengo aldiz *Itxaso laño dago...* (*Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezakak*) izenburuz. Orain, lan bera izenburu jatorrera eroanaz eta lehenengo itzulpena hobetuz eta oharrak gehituz eskaintzen digu.

Argitaratzaileak eleberri hontaz ematen dituen oharrak honako hauek dira: Barojaren lanei buruz hitzegiterakoan, *Xanti Andiaren kezakak* kritikoez itsaso nobela bat bezala sailkatzen badute ere, bere muinean euskal sentimendu batetatik alderaezinezko nobela nabarritzen dugu. Itsasoaren eta Euskal Herriaren nobela bat zela hau, esan zuen bere garaian Azorinek. Ez zitzaion agian arrazoirik falta. Baina, sentimendu hori, bere konzekuentzia guziekin kristaufededun kontrabandozale eta beltz-merkataritza tarteko direla.

Yon Etxaidek, zer esanik ere ez, ohizko bere maisutasunaz itzuli duela betidanik. Sortzez euskaraz beharko genuen baina alderantziz zen. Literatura sorketerako bakoitzak bilatu behar ditu bere aukerak. Aspaldi esan genuen euskarazko eleberrigintzara jo nahi dutenek hor dutela Pio Baroja eredugarri. Hori bai, inoiz ez da berandu, ez sorketa berrietarako eta ezta holako itzulpenetarako ere. Lan eskergarria Etxaidek egin duena.

* * *

JULIAN ALUSTIZA «AZTIRI».—*Euskal baserriaren inguruan.*
Arantzazu Frantziskotar Argitaletxea. Oñati, 1985.

Euskal Herriko nekazari kulturaz inoiz egin den liburu-rik ederrena dela esatea, behar bada ez da aski esatea. Etnografiazko lan bikaina da, haurtzaroan bizitutako oroitzape-
nez eta ikasiaren bilketa lanez hornitua.

Holako lanak euskaraz erderaz baino hobe direla esan be-
harririk ere ez legoke, zoritxarrez gehienak erdaraz egin badira
ere. Egilea, kondairaz, kantaz eta esaldiz ere ondo baliatzen
delarik, bildutakoa bera hizkuntza jatorrez emateaz gainera
adierazpena ere halakoa bait da.

Bilketetan bertan bi bide erabili ditu, berberak zuzenean
jasotzearena eta bibliografiaz baliatzearena. Honetan, ez da-
go zalantzarik, orainarteko lanik garrantzitsuenak erabili di-
tu, bakoitzean aburuak behar bezala hautatuz.

Lehenago *Lihoaren penak eta nekeak* (1981) hain ondo
taxuturik eman zigunagandik, norbaitzuk ez zuten gutiago
espero. Hala ere, nik banuen beldur pixka bat; lehena, mo-
nografia mugatua izateaz, lan argi eta garbia eskaini zigun,
hortarako hobeto prestatzen zelako; baina baserriko bizitza
orokorki hartzeaz lan ugaritsu eta barreiatuak eskuratu eta
sintesia emateaz ez ote zuen behar bezala burutuko. Baina,
neketsuagoa izanarren, ez dio zorrik. Bikain atara da «Aztiri»
saio honetan, bai bilketaz eta baita bildua era egokian
aurkezteaz. Eta, zer esanik ere ez, bere euskara samur eta
aberatsak edonorentzat irakurgai egokia giten duela.

Kalekumeok baserria aski azaletik ezagutu dugu, eta li-
buru honek erakusten digu bertako bizitzaren muina.

Iturri askotako urak karreiatu ditu lan hori burutzeko.
Sustrai jatorrak hartu ditu. Bera baserrian sortzez eta bizi-
tzez, bestek ez haina jakin du gai horretaz egin diren lanak
ehotzen, beste askorentzat ihesik joango ziren gauzak xehe-
tasunez ematen ditu.

Liburuaren edukinez, lehen zatian, koba zuloetan ehizari izango zenagandik hasi, etxola edo saletxeetan artzai ibili zenetik baserrian nekazari kokatu arteko adierazpena dakar. Bigarrenean sukalde inguruko gora-beherak, ohitura, mitologia, janari, lanabes,... bere inguru guzia hartzen duela, oiha-nak eta txoriak, haize eta kuarta-tenporen garrantzia eta misterioa,... Haize moten adierazpena ez da edonolakoa, eta ur-tearoak esaera zaharretan biltzean bada herri literaturako eta herri filosofiako gauza bitxirik ere. Erlijioa bera ere aintzina nako sineskeretatik kristautasunera arte, honek berakin eskaintzen duen inguru guzia hartuaz.

Libururako baliatu den bibliografia oharrez bukatzen du, «Aipamenak» deituz. Baina, sail horren aurreko orrian ematen du azken solas laburtxo bat Xalbadorren bertso honekin bukatzeko:

*Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa:
izate bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izate horrendako segurra hil hotza.*

ANTONIO ZAVALA.—*Esaera zaarren bilduma berria*. (I eta II tomo). Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1985.

Gai aproposa bildu digu oraingoan Antton Zavalak Auspoa sailerako 184 eta 185. zenbakiak osatzera datoztenak burutzeaz. Bi aletan datoz, guztira 3.133 esaera zahar, entzun eta irakurrietatik hautatuak. Zahar hitza, zuhur hitza.

Bi liburuok, harpidedunoi iritsi ere Eguberriz iritsi zaizkigu, nere aho-mihinean honako esaldi hau nerabilela: Gabon, bon-bon; Natibitate, ase ta bete; San Estebantxe, bestetan letxe (legetxe). Durangaldian ez ezik Eibarren ere esaten denez, Gabon gabeko poza eta ospakizuna, biharamunean ase, baina ondorean, San Esteban eguna ttipi dela jai egun handi haiekin konparatuz, horregatik, bestetan bezala (legetxe) lanera joan beharrezkoa.

Lehen partearen kidekoa da: Dagonean bon-bon, ez dagonean egon. Eibarren erabiltzen duguna, eta horren antzerakoa da Azkuek bere garaian jaso eta orain lehen liburuaren 77. orrialdean datorrena.

Baina, esaerotan ustekaberik ere aurkitu dugu. Horra hor, nondik jakin dugun zeruan meza entzutera iritsiko garela *Egan* egiten dugunok. Hau zoriona! Lehen liburuaren 83. orrialdean, 755 esaeran, honako hau irakurtzen bai dugu: «Egan egin baneza, zeruan entzungo nuke meza». Ele ederra ez omen da beti gezurra.

Liburuetan gauzonak beti eskaini zaizkigu, baina esaera bildumarik urri. Agindu bai, baina: Esana bat eta egina bi, esanaren kontentuz izan hari.

Orain, ahaztu samar zebiltzan esaera zaharrez eta orainago bidutakoez horniturik oso ondo datorkigu idazleak horiek erabiltzera kezkatzeko eta berriak sortzera bultzatzeko. Horregatik, gure abegirik onena merezi du. Bakotxari berea, Jainkoaren legea (Eibartar sinesgaitzak ere esaten dutenez).

* * *

G. K. CHESTERTON.—*Hiltzaile moderatua*. Itzulpena: Hirune Uria - J. M. Zabaleta. Hordago Publikapenak. Donostia, 1984.

Chesterton polizi eleberri-gile inglesaren *Hiltzaile moderatua* deritzan hau *Negoio arraroetako Kluba* deritzanaren barruan datorren eleberria da. Ez sozialismorako eta ez kapitalismorako ez zen pertsonaia isuritzen du bertan. Protagonista politika gizona da, noizbeinka norbait hiltzea komeni zaiona, bere lo gozozko handitasuna geldo ez dadin.

Egile horren polizi eleberriak beti dira interesgarriak, edo beinik-pein irakurgarriak. Euskarara itzultzea, zer esanik ere ez on dela gure literaturgintzarako, batez ere hain euskera gozo eta errazean ematen denean.

J. S. M.

ANTZERKIA

AMURRAINAK

*LA TRUITE DE CHUBERT, Beñat Dacostaren komedia,
Julien Pochelek euskaraz emana **

Komedia emaitzak:

ANTZERKIA

- Hortentsa
- Margita
- Palmira

* Beñat Dacosta Espainiako autorearen obra hau erantsi izan zen Parisen, 1972an, «Théâtre de poche Montparnasse» antzekien Julien Pocheh bitartez Parisen bizi da. Itzulpen hau duela 14 urte egin zen.

ANTZERKIA

AMURRAINAK

LA TRUITE DE CHUBERT, Beñat Dacostaren komedia,

*Julien Pocheluk euskaraz emana **

Komedia emaileak:

- Hortenza
- Margita
- Palmira

* Beñat Dacosta Baionako autorearen obra hau emana izan zen Parisen, 1972an, «Théâtre de poche Montparnasse» antzokian. Julien Pochelu bitirindarra Parisen bizi da. Itzulpen hau duela 14 urte egin zuen.

«Amurrainkarien» haste hau oro komedia emailen gain. Egiten ahal dute beren gusturat, berdin berek bedakite nor nahik bezen ontsa nola ibil edo zer erran oraiko teatroetan bezala egiteko.

Margita eta Hortenza heldu dira taulen gainerat bat bertzearen ondotik, gerriradinoko galtzerdiak jauntziak dituzte. Nunbeitikako musika hasten da dena firfira. Emeki jartzen dira parrean, aldizka zangoak igitzen eta kurutzatzen... gero heldu da Palmira. Agertzen du lehenik burua, eta gero gorputza eta arras hrabe heldu da zango puntan gainean taulen aintzineradino. Erdi erdian jartzen da biziki fazoinekin, kurutzatzen zangoak eta deskurutzatzen.

Jenderen begi beharriak berari eta bere bi laguneri buruz itzul arazi ondoan, Palmira rutitzen da bet-betan eta dundun kaska bat bortitza emaiten.

HORTENZA.—Lehen egitekoa: hatsa har, hatsa bota.

MARGITA.—Margita Mendiburu.

PALMIRA.—Nun sortua?

MARGITA.—Nunbeit.

PALMIRA.—Noiz?

MARGITA.—Biharamunean.

PALMIRA.—Luzetasuna?

MARGITA.—Luzagarria.

PALMIRA.—Pizua?

MARGITA.—Aldakorra.

PALMIRA.—Haurreko eritasunak?

MARGITA.—Oraino batere.

PALMIRA.—Xartuak?

- MARGITA.—Ehun mila.
- PALMIRA.—Seinalamendu berezirik?
- MARGITA.—Eskuineko espalda hankatik idekia.
- HORTENZA.—Hortenza Mendibide.
- PALMIRA.—Nun sortua?
- HORTENZA.—Bertze nun beit.
- PALMIRA.—Noiz?
- HORTENZA.—Eguberri gauaz.
- PALMIRA.—Luzetasuna?
- HORTENZA.—Izari gabekoa.
- PALMIRA.—Pizua?
- HORTENZA.—Ikaragarria.
- PALMIRA.—Haurreko eritasunak?
- HORTENZA.—Denak.
- PALMIRA.—Xartuak?
- HORTENZA.—Batere.
- PALMIRA.—Seinalamendu bereziak?
- HORTENZA.—Ezkerreko beharria eroria.
- PALMIRA.—Hor ziren, hiru nekatto larden biziaren leize sahe-
tsean, ahurtaraka prest ausikitzerat, eztitasun hoberena-
rekin, azken hamar urthe hauetako fruitu ustelean, prest
aurdikitzerat menderen bihiak, labetik doi-doia idekiak,
haragi jale, buru hauts eta berozale kasik pinpirinduak.
- HORTENZA.—Komedia emaileak!
- PALMIRA.—Jestu egileak eta zango luzeak.
- MARGITA.—Ginhartsuak haragi goseak eta herrestakariak.

- HORTENZA.—Jokolariak, mutuak, deus eta nehor ezagutu gabekoak.
- MARGITA.—Geroaren azken bururat helduak.
- PALMIRA.—Denboraren lehen bururat helduak.
- MARGITA.—Bilkuraz bilkura kurrituak eta biltzarrez biltzar.
- HORTENZA.—Hiru komedia emaile burua galdurik eta ez jakin nori eman, beren eginbide sakratuari kontsekratu nahi-tuak, bilhatzen dute jalgi bide bat beren athekeri.
- PALMIRA.—Zeren eta oraiko teatroak behar dituenak izan da-dien xuria, beltza, gorria ala gorrasta, dira gorputzez egin ahalezko gauzak. Gorputza...
- MARGITA.—Atheke pizuak, ezin argituzkoak, betiereko athekak.
- HORTENZA.—Mogimenduak egiten ditut, gorputza zalhutzen dut.
- MARGITA.—Nik ere nahi dut ene haragiari eta ginharreri na-gusitu.
- PALMIRA.—Barne bidetan iragaiten niz. Denek iduri dute ez-tituak; bizkitartean aditzen dut bet-betan kurrinka bat. Xerri bat othe den lepoa pikatzen zakotena?... Ez batere, hiru neska gazte dira komedia emaileak, ikasten ari nola beren gorputzari zerbeit egin araz.
- MARGITA.—Denen abiamena.
- HORTENZA.—Ametsak, ez dun norbeitek izkiriatua erran behar, hire izaitea dun behar erakutsi.
- MARGITA.—Mezulari bat hiza?
- PALMIRA.—Zer bilhatzen duzue?
- HORTENZA.—Mintzaire berri bat dela medio, hizkuntza berri bat.
- MARGITA.—Ohakoan gira.

HORTENZA.—Gure baitan dago.

MARGITA.—Ez dun uste hola bizitzea. Gero dohakabe hiz.

HORTENZA.—Ez dut aski gogoetarik egiten.

MARGITA.—Komedia emaileak behar du nola nahiko jendearen ganik urrundu.

HORTENZA.—Eletrika langilen bilkura batean nintzan beren bu-ruaz beste egingo dutenen hersturaz elhe egiten.

PALMIRA.—Orai teatroa.

(Dunde kolpe bat emaiten du)

HORTENZA.—Basakabale sasi ordokia, zelhai saildutuen athea, oin oihal, telefona, aurki gune.

PALMIRA.—So egilerik batere: ez deusetasun arrabotskariak, beharrik gabeko partzuerrak. Bakarrik konda da bakotxak berekilako hunkia, bakotxaren bere egia...

Zuen komediaren ager-aldi bat erakutsiko daukuzue?

HORTENZA.—Zueri erakuts ager aldi bat: Bainan zorotua zira?

MARGITA.—Ez ager aldirik.

PALMIRA.—Ez ager aldirik?

PALMIRA.—Ez ager aldirik. Bakarrik mundua, munduaren in-
gurua, xifridura, denen desgustua mezuhedazle egiazko
batek gogoratua, bere bidearen berriz bilha dagon mun-
dua.

PALMIRA.—Behazazue, nahi duzuen egizue, bainan zerbeit egizue.

HORTENZA.—Horren lagunzale izanen niz. Uzten duzu presta dadien prestatzerat?

PALMIRA.—Osoki, denak haizu zaizkit. Izpiritu largokoa niz.

MARGITA.—Hasten ahal girea?

PALMIRA.—Othoi has zitezte, enoatua niz.

HORTENZA.—Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei, bost, lau, hiru, biga, bat, batere.

(Dundun kolpe bat joiten du)

MARGITA.—Hasten niz hutsaren egiten, ene egiazko egiari buruz noa, ene sorterroeri buruz.

PALMIRA.—Behar othe dut jo, azotatu, laidostatu?

HORTENZA.—Ez, ez du balio odolgabea da. Odolgabea, biziki odolgabea, arras odolgabea. Neke, biziki neke, denbora beharko du.

PALMIRA.—Behar dut nigar, irri edo kalapita egin ala ixildu?

HORTENZA.—Ez, ez du balio. Norentzat gauzkatzu?

MARGITA.—Ez gira bazterretik erabiltzen gu, gure burua bilhazten dugu.

HORTENZA.—Lehenik hasten da izari gabearen bilha.

PALMIRA.—Nun hori?

HORTENZA.—Leize barna baten aurkitzeari.

MARGITA.—Ura ixurtzen da. Ez, ez da gehiago ixurtzen.

HORTENZA.—Ez ez da gehiago urik, desertua da. Gogoeta zazue ez deusa haren ganat ethortzen, zure ganat, ene ganat; norbeit, zerbait hartu nahi gaituena, goresmena, noizean behingokarioa.

MARGITA.—Iguzkia niz.

HORTENZA.—Marteilua da et ni jendea niz hurrentzen dena.

PALMIRA.—Bainan biziki hunkigarri da.

(Aharrosika ari da)

HORTENZA.—Trein bat iragaiten da.

MARGITA.—Denak goibeltzen dira.

HORTENZA.—Aire garbia.

MARGITA.—Hortakotz ikasten dugu hautatzen iresten ahal ditugun puruxkak. Alabainan bekantzen ari dira.

HORTENZA.—Zikina, zikinkeria, ekartea, ekarrarazia.

PALMIRA.—Nundik?

HORTENZA.—Denetarik.

MARGITA.—Batek gida, bertzeak xuxen, batek molda, bertzeak aldara, gure ofizioa heldu eta badoa, egun eztiki, bihar lazoki, ernatu gabe eta baitezpada ez du bururaterik.

HORTENZA.—Hatsa hartze.

MARGITA.—Brr, brr... zonbeit puruxka kakola sartu zauzki orai artean hormatu bulharretan.

HORTENZA.—Salbatua da!

PALMIRA.—Biba zu.

HORTENZA.—Madras, Bombay, Kalkutta, Katmandou, Beverley, Amsterdam, zerua, izarrak, mundua.

PALMIRA.—Adixkideak, adixkideak ordu dugunago eta ez girenago sobera gure lehen lurretik urrunduak, erakusten ahal dautazue komedia ager aldi ttipi bat, lehenagoko denborakoa, edo oraikoa, mintzaldi bat ona, libertituko eta hunkiko nauena. Badakizue kantuz, badakizue dantzan.

HORTENZA.—Nola, laidostatzen naute.

MARGITA.—Dautzikari batzuentzat dauzkigute berdin, dautzikari alabarentzat. Hori, nahi gituzte ikusi hanken bihurdikatzen eta gure buruen erakusten. Ez hatik. Dakizula, Anderea, lanean ari izan girela hainitzki. Eta hortan geldi.

HORTENZA.—Ba, ari izan lanean hainitzki.

MARGITA.—Ba hainitzki.

PALMIRA.—Eta ez nuke ikusten ahal zuen lanaren fruitua, fruituaren jusa?

HORTENZA.—Orai ez ditake, lana ez da bururatua.

PALMIRA.—Eta noiz bururatuko da?

HORTENZA.—Laborato, quantabile.

MARGITA.—Sekulan!

HORTENZA.—Nahi baduzue, ikusiko nuzue ni ere betiereko orhoitzapen. Ene prestamenduko bigarren partean berriz itxuratuko dut dirdira, arimaren alegiazko irakidura, eta ene bihotzaren garrak bere sua kurutzatuko derauzuelarik, ikusiko duzue garbiki. Presta zitezte.

HORTENZA.—Ilhargia niz eta izarrak.

(*gibelerat badoa*)

PALMIRA.—Bainan nun zira?

HORTENZA.—Hor ez izaiteaz dirdiraten dut, zuen artean ezin aldatuzki eta betikotz izaiteaz... Loditzen niz, loditzen niz.

PALMIRA.—Zonbat kilo irabazi dituzu?

HORTENZA.—Milaka.

PALMIRA.—Alegia egile, neska gazte eta mehatzen othe zira berdin aise?

HORTENZA.—Berdin.

PALMIRA.—Geroago eta hobekiago, seigarren ganita, laugarren sorgina. Kleves-eko printsesa, Kameliakilako Anderea, zer hautua, mintza beztiturik, ala berdin buluzirik.

MARGITA.—Zintzurreradino, hexurreradino.

PALMIRA.—Geroago eta hobekiago. Karreatzen ahal ditutzea isolak eta taulak itzaten?

BIGEK.—Ba, ba.

PALMIRA.—Ene zerbitzuan hartzen zituztet bizi guzikotz zu eta zure laguntzailea.

BESTE BIGEK.—Bizi guzikotz. Hil arte. Bizi guzikotz. Hil arte.

(*Dundun kolpe bat*)

PALMIRA.—Bigarren partea: hatzaren buhatzea... Saltsa guzietan, kuia lehertuak, gerthakari onak, gerthakari gaixtoak, gaitzbide ttipiak, lan ttipiak. Saltsa guzietan, kuia lehertuak.

HORTENZA.—*Zelimena* kuxtaren gainean.

MARGITA.—*Ozkarri* jakin arazi berria.

HORTENZA.—*Bereniza* anderearen ezkontza.

MARGITA.—Berrogoi karateko opera.

HORTENZA.—Arrabal, Shakespeare, Anouilh, Ionesco-k bezala.

MARGITA.—Grotowok, Moliere, Brecht, Stanidawskik bezala.

HORTENZA.—Elgarrekilakatuak, pilotatuak.

MARGITA.—Engaiatuak, engaiamenduak hautsiak.

HORTENZA.—Berriz bilduak, politika ikasiak, politika ahan-tziak.

MARGITA.—Sendimendua galduak, berriz aurkituak.

PALMIRA.—Beren enoadurari ihesi joan dira, elgarrekin baka-rrik, egun sari erromesak, barneak hutsik.

MARGITA.—Deus, deus, deus.

HORTENZA.—Bi ahizpa ber adinekoak ez deusaren sasoinean sortuak, bilkuraz bilkura kurrituak eta deus ez aurkiturik Schubert-en Amurrainari lotuak; zeren eta lotu behar ukan duela zonbeit mende Schubert-en Amurrainari.

PALMIRA.—Gaixoak! Zer erortzea.

HORTENZA.—Gauzarik beharrena, haragi eta odolduna izan, gi-zon, gizon indar, Musika.

MARGITA.—Larru, ile, espalda, papo, eztitasun, indar, gizon.

MARGITA-PALMIRA.—Gizon, haur egile, goxotasun eta atsegin.

HORTENZA.—Bainan ez dugu *Robertorik*.

MARGITA.—Ez dagokun sekulan *Robertorik* eskeini. Doi-doia mamu batzu, amets batzu, asto ziri batzu, oihalezko estakuru batzu, kautxuzko lilura batzu.

HORTENZA.—Lastozko gizon, parekatzearen itxurak, argi ulu bat izarraren orde!

PALMIRA.—Bainan zuen *Roberto* izaiten ahal niz.

Badakit zer behar duzuen, nola behar zituztedan ibili, nola zuen gogoia bethe.

MARGITA.—Ez, hori ez zauku gehiago aski.

HORTENZA.—Nahi dugu *Roberto* bat.

MARGITA.—Nahi dugu *Roberto* bat.

HORTENZA.—Nahi dugu *Roberto* bat.

MARGITA.—Nahi dugu *Roberto* bat.

HORTENZA.—Nahi dugu *Roberto* bat.

HIRUEK.—*Roberto* bat nahi dugu, musika, nik nahi dut *Roberto* bat.

Ba ahal da *Roberto* bat, badea norbeit *Roberto* eta gaixtoa ez dena?

(bazter bidetan)

MARGITA.—Zure izena emazu.

HORTENZA.—Edo samurtzen niz.

(so egile baten besoetan emanetz)

PALMIRA.—*Roberto, Roberto*, oh! hemen badut bat!

Haugi ez gituk gaixtoak. Ba zer, hea, zauri...

(taulen gainerat eman arazten dute)

MARGITA.—Egun badugu *Roberto* bat, itxuraduna, odolduna, kotxotua.

HORTENZA.—*Roberto* bat bizi nahi duena.

MARGITA.—Odolduna, nigarrez dakiena, ginartsua.

PALMIRA.—*Roberto* bat hatsa hartzen duena.

(jar arazten du harendako ezarri jargia batean)

HORTENZA.—Ume erroduna, girlia eta izerzalea.

(dundun kolpe bat)

PALMIRA.—Hirugarren partea eta horra orai Schubert'en Amurra.

(Hortenzak eta Margitak liburuak ekartzen dituzte. Dundun kolpe bat. Baltsa bat da. Taulen gainean ikusten dira polliki nahastikaturik ohe bat, sutegi bat, mainhoar bat, eta xori zonbeit beren karioletan kantuz).

HORTENZA.—Horra irakurtzekoa.

MARGITA.—Eta ixtoriak.

HORTENZA.—Hau biziki ontsa duk, segur nuk gustatuko zukala.

PALMIRA *(Emaiten ditu lore batzu Roberto'ri, bat hartzen, hostoak jelgitzen bedera bedera, erridau baten gibelean Hortenza eta Margarita beztitzen diren artean).*

(Margita heldu da lehenik, ipargatu xuriz, apur bat lapin airez beztiturik, gatu bat besoetan).

MARGITA.—Erran behar dautzut nor den Hortenza, ene lagun hoberena.

Lanjerosa da, ene bizia xehatu daut, ez nau utzi maitaztera maitatu nahi nuena. Gaixo bat da, izari gabekoa.

Ene aldeko, biziki lañoa niz, goxoa eta umila. Ez dezaket ulu bati minik egin.

(Hortenza heldu da bere aldian, ipargatu lapin airez beztiturik eta gatu bat besoetan)

HORTENZA.—Naski Margita nitaz aipu ari izan zauzu. Ez dauzut gordeko, ez hatik bipera bezen lanjerosa dela eta bestalde lizuna, besten egitekoetaz okupatzen dena. Gaixo bat ori!

Ene aldetik, zendako gorda, ez dut urrikitan sartzerik. Emazte ona niz, batzuetan buru beroa bainan fina, xuxena, bihotz handikoa eta ez dezaket ulu bati minik egin.

(Bi emaztek beren ipargatuak idekitzen dituzte. Ileak hanttuak dituzte).

HORTENZA.—Zu, anderea, hemen!

MARGITA.—Gertatu zaut hemen iragaitea.

HORTENZA.—Gertakari ederra. Hirekin gauzak ontsa gertatzen ditun.

(Bet-betan aharratzerat doatzi, elgar laster-katzen dute, josten, Palmirak ondoan kolpeak kondatzen ditu).

—Quï!

—Aï!

(Palmira heien gainean etzanik emaiten da)

MARGITA.—Denbora ederra da eta ene martirioa berriz pairatzerat noa. Ez dezaket gorda maitatzeko egina nizala, arrosaren berdin izar ihintzarentzat. Nihaur egoiteko egina niz, ibar lanhozuetan eta nigarrez artzeko zurrutan, arboleak firfiran direlarik urrunean.

O K Hortenza?

HORTENZA *(Irriz)*.—Ba eta zer zerua, zer haizea eta zer odeia! Bazterrak biziki ederrak dira eta ene burua hainbeste sendi dut...

MARGITA.—Onts, aitortzen dut, bazterrak ederrak direla... Ez duzu ikusi?

HORTENZA.—Nor?

MARGITA.—Bainan. Ba ahal dakizu.

HORTENZA.—Nik?

MARGITA.—Ba araz badakizu. Eta ez dakizu besterik.

HORTENZA.—Ez, ez da jin. Ez da usu heldu.

MARGITA.—Izitarazi dugu.

HORTENZA.—Zuk izitarazi duzula, nahi duzu erran.

MARGITA.—Izitarazi dutala? Bainan zendako izitaraz nezake?
Pollita niz ni.

HORTENZA.—Zeren eta itsusia bainiz ni? Milesker! Lehen aldia
dut hori aditzen dutala.

MARGITA.—Deneri behar da haste bat.

(Berriz lot litazke Palmirak ez balitu berex ten dundun kolpe batez. Jargia batean jartzen dira, errespetu haundirekin.)

PALMIRA.—Denak hasi ziren duela bi urthe. Gaua da, haizea ari. Bilkura sobera aphaindu batean, emaztek bakarrik eta aphaindurik izaitaz aserik, kantatzen dute Schubert'en Amurraina.

MARGITA.—Populu aphaindu baten aintzinean...

HORTENZA.—Ene gustuko erresumako hoberena. Badira gure erresuman jende aphainduak.

MARGITA.—Barreatzen hiz.

PALMIRA.—Erraiten dut beraz gau ilhun batez, haizeak buhatzen zuelarik, bi emazte etsiturik nigarra begian...

HORTENZA.—Ezkon-duak ginen. Denak gure alde gintuen: aberatsak ginen, osagarri onekoak, ederrak —ene konduko segurik—, eta halaikan, ez ginen urus. Schubert'en Amurraina. Schubert'en musika. Noren erranak...

(Besteari buruz itzultzen da)

Noren erranak... hea, noren erranak, noren erranak...
noren erranak... noren erranak...

MARGITA.—Arrats batez, nigarrez nintzan, bainan azkenean ez nintzan batere nigarrez. Oh! hoinbeste nigar egiten dut Igurikatzen nuen... Denbora ederra da.

HORTENZA.—Noren erranak. Noren erranak...

Ederki, higabe hasiko nun Musika!

Schubert'en Amurraina. Lehen kobla.

MARGITA (*Musika gelditzen da*).—Ezagutzen hut. Ez dun bi-
(*Palmira anartean, so dago inguruka*)

HORTENZA.—Ni? Ez batere. Iduritzen zaun.

(*Pianoan jartzen da, hartzen Margitaren lekua eta hunek kantatzen Schubert'en Amurraina, bigarren kobla*).

(*Kantua fini*)

MARGITA.—Aspaldian bilha ginen eta ez ginuelakotz hatzemaiteko gutziarik, bilhan gabiltza beti Hainitz irakurtua ginuen, amodioaren, atseginen, sendimenduen, azkenean ororen gainean.

HORTENZA.—Prest ginen bizitzerat, egiazki, entsegu handi hori.

MARGITA.—Bilkura guzietan izanak ginen. Ez ginuen paradarik eskas, bainan bilhatzen ginuena egiazki beste zerbeitzen, zerbeit gazterik, garbirik, gudari arin bat lurrean emanen gintuena ea zorionez lasturan ar-araziko. O K Hortenza? O K Palmira?

HORTENZA eta PALMIRA.—O K Margita!

(*hiruek kantatzen dute Amurraina*)

PALMIRA.—Elgarrekin gira.

(*Gibelatzen dira, bat besten aldean, bet betan iziturik*)

HORTENZA.—Uste duna?

MARGITA.—Ba, naski uste dinat.

HORTENZA.—Elgarrekin gitun eta orduan?

MARGITA.—Bainan ez dun konprenitzen. Maite ninan eta oraino maite dinat. Hari lotzen nuen amodioa, azkarra dun, nun usu hiltzeko gutizia dutan...

HORTENZA.—Bainan nik ere maite ninan. Hik baino gehiago maite ninan. Lehen aldian ikusi dutalarik, mirail bati buruz nindunan. Aintzinatzen zunan eta ikusten ninan begitarte hura. Ezin ahantzizko begitarte hura.

MARGITA.—Haren begitarte?

HORTENZA.—Bainan ez, ene begitarte. Begiak harridurak haunditurik, mathelak arrosa kolore tindurik gabe, gaztetasuna lorios.

Maite dinat! Maite dinat!

PALMIRA.—Ixil hadi! Beti xoxoa eta ergela izan hiz.

HORTENZA.—Maite dinat! Maite dinat. Maite dinat! Arratsa egun dixtirant bilhakutzen zunan. Haizeak buhatzen zinan.

MARGITA.—Haizeak buhatzen zinan. Haizeak buhatzen zinan. Segur hiza haizeak beti buhatzen zuela. Ez diogu egiazki gainerat dautzin, bainan aithor dezagun ez girela orenak egon hura ezagutu gabe.

(Palmira Roberto-ri buruz doa eta erraiten dio beko-beko)

PALMIRA.—Bainan mentsak dituk horiek biak. Hi, iragaiten hintzan. Entzuten duk: haugi. Sartzen hiz. Bainan ez hiz hola sartu. Bahien gomitua, ez hien hiaurek ukana, konprenitzen duka.

(gero hasten da kantatzen)

(bestek, jeloskeriaz ixilarazten dute)

HORTENZA.—Zerbeit hatzeman.

MARGITA.—Nahi duzu edan?

HORTENZA.—Gin, whisky, vodka, coñaka, udare jusa. Berdin udare jus bat?

PALMIRA.—Oh ba, udare jus bat!

MARGINA.—Udare jusak edaten ditu nik bezala.

(Udare jusa Roberto-ri eman orde, Palmirak edaten du eta iziturik jargiaren azpian gordetzen).

HORTENZA.—Ixil hadi ergela.

HORTENZA.—Mutiko horrek bazuen aire bitxi bat gustatzen ahal zautana. Gogoetazazue zelhai bat lokartzen pereku haundi baten azpian. Nola erran zonbat ederra zen. Bainan erraitea zonbat ederra zen, zer den ederra izaitea da erraitea, ez duna uste?

MARGINA.—Uher hiz ene maiteñoa.

HORTENZA.—Haundia zen, orobat heinekoa, hasik ttipia, bainan iduri zuen haudia. Zuhaila, leinhura beltzaran, kasik gatzina kolore batzurekin, haren begi urdin argiek erraiten dinat argiek, zeren eta kolore guzietako urdinak baitira, ene baitan sorarazten tuzten amatiar eta arrebatiar sendimenduak.

MARGITA.—Barreatzen hiz, ene maiteñoa.

HORTENZA.—Ba maiteñoa. *(Hitz hori gaixtoki erraiten du).* Haren begiek geldia geldia gar beltz batean so egiten zautaten.

MARGITA.—So egiten zaukuten. Maitatu nahi nuen. Ez nion besterik gogoan? Beti ari nintzan: «maitatu nahi dut, nahi dut, maitatu nahi dut». Egiatzko errepika bat.

HORTENZA.—Haren arpegiak biziki ederrak ziren eta kokots luze bat, sudurra ahoan eta ahoa beharrietaradino balinbazuen ere, hots haren begitartea pekoz gain eta trebes iduri bazuen ere, ederra zen.

Ba, anderea, ederra zen.

MARGITA.—Anderea. Uste baduzu hori dela ederra izaitea, berdin gaut. Bainan erranen dauzut bazela biziki jende guk

desmasiatzen gintuen lekuetan eta gaizki jelgi ginela. Zer exkandala! zer eskandala! Bi emazte gaizkiari barna joan. Fama kurritzen da.

(*Palmirak kantatzen du Roberto-ri kantu hau: «Bainan hura dut maite» —68-garren pajar—*)

(*Bestek ixilarazten dute*)

HORTENZA.—Kanta dezagun ene maiteñoa Schubert-en Amurraina.

(*Musika hastean marrumiaz ari dira. Musika ongi pikatua da bainan lizuna «Hey Mister, bey spender» Sweet Charityena*)

(*Hiru neskek beren itzuli inguruak egiten dituzte eta Roberto estonatua dago*)

HIRUEK.—Let's have some fun!

Orai irrinen dinau.

(*Hiruek berriz emaiten dute Schubert-en Amurraina Palmirak ixilaratzen dituelarik eta beren egitekoetarat itzularazten.*)

HORTENZA (*nekatto bat iduri*).—Sekulan konprenituko ez ditudanak dira bihotzaren erabilze, nahastikatze, joan jin horiek, batzuetan ixildua, berriz loriostua. Betidanik odol berokoa izan niz. Gazte gaztea orhoit niz teilatutik erori xori batez. Oraino bizi zen. Hartu nuen eskuetan eta tinkatu, gero eskua zabaldu eta berriz tinkatu. Xoria emeki emeki itotzen zen eta berriz hatsa hartzen. Ene eskuetan hil zen.

(*Irriten dute bainan Palmira orroaz hasten da*)

—Haizeak buhatuko du azkarki ene denboraren gainerat. Nehork ez du deus asmatuko ene izaiteaz. Mundua negu haundi bat izanen da eta ene irriak ez du nehor bertuko, norbeit ene bizian berotzeko gai balitz ere... Badakizue lehen minixtroaren emaztea ezagutzen dutala? Ba!

MARGITA.—Sendimendueri ez da manatzen eta amodioa zer da? Beti gogoetatu dut amodioa ez zenez bakotxak beretako duen amodio haundi bat baizik eta beste baten arimaren jabe izaiteko behar haundi bat. Gauaz batzuetan iratzartzen niz. Orenak aditzen ditut, ene biziaren parte bat baizik bizitzen ez dutan mundu huntan. Zendako niz hola, nik dakita?

Zendako besteak ez dira berdinak, nik dakita?

Zer dira euria berinen eta teilatuen gainean egiten duen harrabotsaz kanpo, kizkoladura xorta perekamendu ezin ezagutuzko, munduak ezagutarazten eta izurtzen dituen horiek?... Nik ere ezagutzen dut ongi lehen minixtroaren emaztea.

(Irriak)

PALMIRA (*Arrunt amorosturik, deitzen du Roberto angles modako batean*).—Come on baby, hello, come on baby... I'll show you the appartement. How do you like it, and here, the bath room, come on.

(*Roberto-k arduran errefusatzen du*)

—Oh no.

PALMIRA.—Come on to the bed room, how do you like it... and then the kitchen, come on to the kitchen! What do you want, omelette with bacon?

(*Zerbeit prestatzen ari balitz bezala... eta gero...*)

—Oh yes...! Forget about it... I hate cooting!

(*Palmira iragaiten da huxtuz eta begiez segitzen dute*)

PALMIRA.—Huntaz zer egiten dut? Orenak badira buhurdin horien gainean dagola. Asea niz ni.

HORTENZA.—Hik aski. Ez dun, maite hugulakotz, uste ukan behar oro haizu ditunala. Aditua dun?

MARGITA (*serioski lunetak emanaz*).—Orai amodioaren aldi. Amodioa dakizuen bezala, sendimendu bat da, gauza bat argitzen ez dena. Amodioa luzaz aipatuko dauzuet.

HORTENZA (*Harek ere lunetak emanek*).—Hau da amodioa. Ilhuntsua da.

MARGITA.—Jadanik bi aldiz ilhundua da.

HORTENZA.—Berriz ilhuntsua da eta bi emazte bet-betan arrapikolaturik, fede onean, beren bihotz haundiaren barneetik amodioaz hasten dira.

MARGITA.—Amodioa.

HORTENZA.—Amodioa.

BIEK.—Amodioa. Amodioa. Amodioa.

(*Musika hasten da berenetik ari diren artean. Palmira ozaze haundi bat eta zerbata alimale bat eskuetan toreador batek bezala egiten du (Manxako gizonaren musika) eta Roberto iresten*).

PALMIRA.—Garbia zen, biziki garbia, aphaindua biziki aphaindu, pollita biziki pollita, sabel, begi, sakola batzuekin eta larrua zimurtua berdin, bainan halarik ere ongi biziki ongi, ongi, biziki ongi. Holakorik ez da hortaz besterik.

MARGITA.—Aski. Orai. izan giten serioz eta hunkigarri...

Utz nezague adixkideak eletrika soinuari ene gizon ohiak pagatu huntan emaiterat Samuel Barber-ek String-enda-ko egin kantua. Amodioa gogo ilhunik gabe, hitz dauzuet, zer da?

(*Palmira gelditzen da, eletrika soinuaren inguruan dabila, hartzen du dizka untzia, titulua irakurtzen eta errepikatzen entzuteko gisan. Durduzatu iduri du*).

PALMIRA.—Geldi zite! Izigarri enoagarria zira. Ez du biziki eskolarik, badakizu.

MARGITA (*Bixkotxa jaten ari da, zankoak junpan*).—Margita da ene izena. Gaztea niz ez dakit gauza handirik, ezkondua izanikan ere. Batzuetan nihaur erabiltzen niz bainan badakizun bezala gero ez da... deusik...

Zure ileak maite ditut.

HORTENZA (*Hura ere jaten ari da, zangoak junpan*).—Deusik!
Juan den urtean ez nintzan hemen. Kanbodijian nintzan.
Kasetak irakurtzen nintuen. Deusik. Ez zen deusik iragaiten. Zure ileak maite ditut.

PALMIRA.—Horren bizian ez da gauza haundirik iragaiten, badakizu?

MARGITA.—Enean ere ez. Gure arteko lokharria da.

HORTENZA.—Zeren eta uste dun bi izaiten artean deus lokharri bat izaiten ahal dela. Baten deusa bestearen deusari loturik eta horra zubi bat.

(*Aharra berriz hasterat doa noiz eta Palmirak dunduna berriz joiten duen*).

MARGITA.—Nahi nuen maitatu. Amodioak ez du izaririk.

PALMIRA.—Egiazki eta nola?

HORTENZA (*Roberto-ri*).—Erraiten dutalarik akomeatzen ahal girela, sinesten ahal nuzu, enekin akomeatzen da beti.

PALMIRA.—Zer dakon, hire burua eskaintzen?

MARGITA.—Ez zazula beha, ni beha nezazu lehengo. Enekin ez da akomeamendurik: amodioa ezagutzen duzu?

PALMIRA.—Segurra ezagutzen duela.

MIRGITA.—Amodioarekin ez da akomeatzerik. Amodioak ez du izaririk.

HORTENZA.—Badakigu hirekin amodioak ez duela izaririk.

MARGITA.—Ez zitut zeru gibelerat eremanen, urrunegi baita ez eta ere ene kanberarat. Ez dakit norat joan. Ez dut ene borondate ona baizik, ene amultsutasuna, funtsean hatzemanen dutana, ongi bilhatuz.

(*Hortenzak eta Margitak beren pildak idekitzen dituzte, Palmirak Roberto kitzikatzen duen artean*).

PALMIRA.—Hik bilhatzen duk... bilhatzen duk hire abantaila. Zoin den bietarik aberatsena. Zeren eta ez dik balio jenden aintzinean agertzea, itzul inguruka artzeko debaldetan.

HORTENZA.—Ez zira diru gose bederen?

PALMIRA.—Hori, ez, zendako?

HORTENZA.—Ene adixkidea baino aberatsago bainiz.

MARGITA.—Oh! Hori gaizki dun! xikanatzen dun. Ez hien ahantail hori agertu behar. Orai hanbat gaixto!

(Mainhoarraren barnean sakatzen dira, Water musika hasten delarik eta populuari bihurtuz salboin ponpoilak ufatzen dituzte, ponpoil kolore guzietakoak).

PALMIRA.—Gizonaz jabetzeko oren nekeak hasten dira. Galernak denak xehatuko ditu. Zonbat oheko lagun hola galduak izanen dire atseginaren uhainen zirimoletan. Atsegina!

HORTENZA.—Oh zonbat sustagarri den senditzea norbeit zuen aldean, zurea izanen dena edo sekulan zurea ez dena izanen. Eremanaraziko dut denetarat, bilkuretarat, teatrorat, zinemarat. Ilhun pean eskua hartuko dakot eta joanen niz gorago edo beherago.

MARGITA.—Ixil hadi. Lizuna hiz. Ahalgearazten nun.

HORTENZA.—Margita ez da gehiago egonen jeloskeriaz. Errabiak itxutuko du gaixo mimiñoa. Amodioarik gabe.

MARGITA.—Ixil hadi. Deitoragarria agertzen hiz denen aintzinean. Hire burua desohoratzen dun.

HORTENZA.—Maiteñoa beti gose izanen da?... Bixkotxa bat, xokolet poxi bat esne gainarekin? Bi ogi xerrenda, tomate artean?

PALMIRA.—Ba eta bi ogi xerrenda tomate artean.

Maiteko du ere anglesa ikastea.

HORTENZA.—Nahiko du eskolatu? Oh... Nahi nakoke eskola egin. Uste dut eskolatuko dutala. Izigarri urus niz, azkenean kasik. Ez dezagun espanturik egin.

MARGITA (*Etsiturik mainhoarretik ateratzen da, ura dariola, eta alegia anglesez mintzatzen*).—Maiteñoa, badakina beti hastiatu hutala? Bereziki kantuz ari hintzalarik?

HORTENZA (*Alegia anglesez hura ere*).—Badakinat maiteñoa.

MARGITA.—Bertzenaz, ez bahintudan hastiatu ez nagokunan hainbeste usu ikusterat agertuko.

HORTENZA.—Hori egia dun. Bainan zertako maitatu behar dut?

MARGITA.—Ikusten dunalakotz eskapiko zaunala.

HORTENZA.—Beti eskapi zaut.

MARGITA (*alegia anglasez*).—Maitatuko nau. Maite dinat, konprenitzen duna? Hola jin zaut batere abisatu gabe.

HORTENZA (*alegia anglesez*).—Aski dun lanean artzea besteak bezala. Lanean ar adi gobernamentuaren zerbitzuan eta ez zaun deus gerthatuko abisamendurik gabe. Beharko ditun hilabeteak abisatzen.

MARGITA.—Maite dinat.

HORTENZA (*Beti bere mainhoarrean*).—Gertakari bitxia, bihotza erdiratzen duena eta moltsa husten haundietaz, gutietaz eta azkenetaz.

PALMIRA.—Joaiten ahal dea?

HORTENZA eta MARGITA.—Ez.

PALMIRA.—Irakurtzen artzen ahal dea?

HORTENZA eta MARGITA.—Ez.

PALMIRA.—Ixiltzen ahal dea?

HORTENZA eta MARGITA.—Ez.

PALMIRA.—Orduan zer artzen ahal da?

HORTENZA.—Deusik.

MARGITA.—Usatzen ari ginen emeki emeki gure artean.

(Kantatzen hasten da Hoffmann-en irtorioetako Bacarolla, gau arropa bat emaiten).

PALMIRA.—Dizkak ekartzen dituzte, gogoak soleitu nahi dituzte, beren xahar denborari pentsatzen dute, bainan hik irri egiten duk, ez dea egia?

MARGITA.—Mutiko horrek irri egiten zautan... Nahi duzue behatu. O Euskadiko baratze goxoak.

(Martinikano mintzo moldean)

Buxuriren idaleak, kantari eskualdunak, soinulari eskualdunak, soinugidari eskualdun batekin. Bixtan dena biziki ederra da.

HORTENZA.—Ez.

PALMIRA.—Yes, plazer baduzu.

HORTENZA.—No.

PALMIRA.—Ba, please.

(Suge dantza. Margita lizunki hasten da dantzari, besoak ikaratu z Roberto-riz buruz;

Hortenza mainhoarretik ateratzen da, xukatzen neurkatuz eta itzultzen).

HORTENZA.—Geldi hadi. Ez duna ikusten ez hizala behar bezala egiten ixtant huntan?

MARGITA.—Ez!

HORTENZA.—Herabetarazten dunala?

MARGITA.—Herabetarazten dutala nik?

HORTENZA.—Ez zitu herabetarazten?

MARGITA.—Ez dut herabetarazten, sarerat biltzen dut.

PALMIRA.—Guri arras berdin zauku!

HORTENZA.—Ongi konprenitzen badut, beharko hugu jasan?

MARGITA (*kantuz*).—«Zonbat urus nizan adixkideak, burua gal-tzen dut eta ez da jostatzeko amodio bat. *Roberto* eder huntaz jabetzen jakin dut, maitatua niz eta oihukatzen dut gizon horrek ezagutarazi daukitala etsidurak; nigar-rak... nahi ninduen ere behin leihotik botatu. Ah zer plazera hola maitatua izaitea!».

(*Hortenzak eta Palmirak inharrosten dute mokorki Roberto-rekin batean*)

—*tapadi, tapaboum, galagou, galaga, brilibou sats vi si ta boum, galati galala.*

MARGITA.—Zertaz ari zinezten?

HORTENZA.—Hori eta hi araz. Ez zanala hobengabea egin, Adix-kidea, hobengabea egin du.

MARGITA.—Ba. Kazinoan gerthatu zen edo berdin metroan hai-nitzki jende zen arratsalde batez. Berdin ere gertatu zen gure arteko bilkura batean. Emaiten zuten Schubert-en Amurraina.

(*Entzuten da «Ene Eurydiza galdu dut» Glück-ek egin Or-phéeko kantua*)

HORTENZA.—Zuen arteko bilkura? Denak joaiten ahal zitunan han hintzanaz geroz?

MARGITA.—Eta zendako plazer bazan?

HORTENZA.—Nehorek ez hirelakotz gomitatzen. Araz, badaki-ne zer izaiten ahal den. Bestela ere lehen Minixtroaren emazteari aipatua dinat.

MARGITA.—Zoroki gertatu zen.

HORTENZA.—Beti bezala!

MARGITA.—Erran nakon segi nindezan. Ene senharra ez zen hor. Haren atorra eder bat emana zuen.

HORTENZA.—Joka nion hire senharrari baino hobekiago joan zakola?

MARGITA.—Arrazoin dun. Eta ene senharrarekin baino hobekiago parekatua nindunan. Eskua hartu nakon.

PALMIRA.—Nahi duzia esku hori utzi!

MARGITA.—Ez.

HORTENZA.—Desgustagarria zira... nik hoinbertze gauza pagatu ondoan.

MARGITA.—Zer pagatu dakon?

HORTENZA (*Ura xartakatzen du, beti andere haundi*).—Ez dun hire egitekoa! Hum, hum... delako zuen arteko bilkura hura... noren etxen zen?

MARGITA.—Ez ditun ezagutzen.

HORTENZA.—Bederen erran dezadan nola egin hien gomitatua izaiteko. Ez ditaken aise izan?

MARGITA (*Beti Euridiza kantatuz*).—Preseski ohargarria kausitu zuten... Xoratuak zirezte.

HORTENZA.—Bainan ez da hori Schubert-en Amurraina?... Orhoituko niz, orhoituko niz... iduri zaut... Beethoven, Ravel, Mariano, Dassary, Lasarte, Uztapide Etxahun, Xalbador, Petiri Uhartekoa, Elizondo.

PALMIRA.—Bainan errazue, ez duzea uste hori ere badela?

MARGITA (*belhaunikatzen da*).—Dohakabea. Barka ene bihotzgabea. Aditzen duzu musika hau «Ene Euridiza galdua dut»

(*edo berdin utzo xuria*)

Gizon bat da emaztea galdurik. Kantuz ari da, biziki trixte zeren eta amodio handi batek bi izaite josten ditu beti. Prest niz bizi guzia egoiterat zuk hunki gabe bainan nahi zitut begiratu.

HORTENZA (*ez du utzi nahi elhe horietan segitzerat*).—Barka, barka zadan hoinbeste urrundua eta eskasa izaitea.

(*hartzen dituzte sukak palote batzu eta aharratzen dira*)

PALMIRA (*egiazki kexu*).—Erran dauzet zer ari den edo zerez den ari: ez da deus ari, deusetaz ez da axolatzen. Haundikeriaz gose da eta manatzeaz. Arratsetan zuekin ez delarik, badoa kurri.

(*Lardazkatuak dira bi emazteak*)

MARGITA.—Ez ixil hadi, ixil!

HORTENZA.—Silencio.

PALMIRA.—Bere gaztetasuna andeatzen du. Zueri emaiten ahal luken amodioa xahutzen du. Ez zituzte sekulan maitatuko ez duzuelakotz maite. Berdin holakorik ez da izaiten ahal.

HORTENZA.—Bainan ba, zernahi gertatzen ahal da, sinets nezazu.

PALMIRA.—Geldi zite zure buruaren botatzetik besten besoetarat. Bederen atxikazu onestasan miko bat.

HORTENZA.—Onestasan hik baino ehun aldiz gehiago badinat. Mundu ustel batean bizi nun eta nere burua berdin ustel sendi dinat. Bainan denak ustelak izanikan ere gelditzen zautan garbitasun apur bat, hik sekulan izanen ez dunana.

MARGITA (*Roberto-ren ganat doa eta xutiarazten du*).—Ez dun hola mintzatzeko biderik. Ez du biderik ez zauzu iduri?

PALMIRA.—Denak zuzenbide zaizko.

MARGITA (*Roberto oherat emanarazten du*).

HORTENZA (*Ikusten du zer iragaiten den eta nigarrez hasten da hasarrez*).—Ba eta gizon bat banintz mundu huni gaina har nezake. Kuxku bateri bezala ene ahurrean. Behar da bizi eta nigar egin bainan airoski eta besteren heriotzea ez da izaiten ahal ona so egilearentzat baizik... Hiretua duna?

MARGITA (*Robertorekin ohearen ganean*).—Ba, enekin oheratzen dun. Hirekin baino lehen; ez othe zaun plazer?

HORTENZA.—Oh! hire etxean?

MARGITA.—Ba, ene etxean.

HORTENZA.—Eta hire senharra?

MARGITA.—Ez nun batere kexu ene senharraz! Maite dinat.

HORTENZA (*Nigarrez badoa sutegi alderat, bi arroltze hausten zartainean eta kexu nahasten*).

(*Harpa musika*)

PALMIRA (*Gauzak ikustean gaizki joaiten ahal direla joiten du dundun kaska bat*).

HORTENZA.—Hire senharra ez dun hemen?

MARGITA.—Ez bainan hori hemen dun.

PALMIRA.—Bainan nun?

MARGITA.—Aberastasunak nahasten du.

PALMIRA.—Menturaz herabetzen.

MARGITA.—Hunek gaixtakeria maite du. Berria da eta ez da zahartuko. Ez zaizko erroak urrun joan.

PALMIRA.—Maiteko hintuen ama izanez.

(*Palmira eta Hortenza irriz eri dira. Margita oihuka hasten delarik*).

MARGITA.—Oh, oh, oh!

(*Ohetik atera da*)

HORTENZA (*kurios*).—Nigarrez ari hiz?

MARGITA.—Bainan amodioa eskaintzen dakot!

PALMIRA.—Amodioa ez da eskaintzen.

HORTENZA (*Margitaren lekua hartzen du ohean eta Robertori lotzen*).—Eta ni? (*emeki mintzatuz*).

- MARGITA.—Zer hi? (*emeki mintzatuz*).
- HORTENZA.—Ni?
- MARGITA.—Zer jende pozoindua. Bilkurek ez daunete denbora aski betetzen. Habil ikusterat lehen ministroaren emaztea ez denez sukaldean.
- HORTENZA.—Badakin zer nahi dutan.
- MARGITA.—Ohartzen nun.
- HORTENZA.—Ez dun deuseri ohartzerik. Amodioa ez da uxerri ohartaritzen. Zizia andeatzen deraku.
- PALMIRA.—Baduna dirurik?
- HORTENZA.—Zendako?
- PALMIRA.—Emakon.
- HORTENZA (*Robertoren sakelan emanekz billet bat*) (*Palmirak idekitzen dio eta berriz emaiten*).—Ederra dun billet hau.
- HORTENZA.—Senharrari hartua dinat goiz huntan berean.
- PALMIRA.—Badakina zer egin behar huken diru hunekin? Behar huke anglesa ikasi.
- HORTENZA.—Bainan erakasten ahal dakot anglesa.
- PALMIRA.—Hori hunkigarri dun: orduan baliatzen ahal liken beste zerbeitetan. Badakika zer egiten ahal huken bazuetan? eta hik badakina?
- HORTENZA.—Ez erran.
- PALMIRA.—Nahi niken treinen azpirat ene burua botatu. Zer uste dun gerta litakela?
- HORTENZA.—Deusik. Ez litaken deus gerta. Treinak ez du lehertzen ahal izaiterik ez duena.
- PALMIRA (*Xutitzen da, burua gora, hein bat samur*).—Milesker, andere maitea.
- (*Iduri du arras gaitzitua, jar-aratzen du Roberto bere jargian eta badoa*).

HORTENZA.—Errespetagarriak bilakatzen gira. Izan ziren goizak eta arratsaldeak elgarrekin iraganak.

MARGITA.—Biziki ixila ninduan, aithor-ezadan. Arras ttipi bilhakutzen nindunan, haren besoetan hiri leku gehiago uzteko.

(Bat ohearen gainean jarria da, bestea zizailu batean, bestea fotil batean).

HORTENZA.—Xoxoa.

MARGITA.—Bandila.

HORTENZA.—Marmutxa lerdetsua.

MARGITA.—Sare hutsa.

HORTENZA.—Bipera herresta.

MARGITA.—Pareta kordokatua.

(Palmira xutitzen da loriatua)

PALMIRA.—Burua altxatzen du. Igitu gabe so zauku aharratzen. Eskolatzen da. Behatzen du biziki aietasunekin. Baditu begi batzu biziki haundiak eta aho bat...

HORTENZA.—Eta haren ahoa, zer gogoetarazten daun haren ahoak? oilanda bipildua.

MARGITA.—Ederra dun, biziki ederra, aitortzen dinat, porru hostoa.

HORTENZA.—Eta haren lepoa, onjo pozoindua.

MARGITA.—Ongi, bizik ongi, kasik ospegarria. Bainan ez dautan erranen, ez dunala beste gauzarik bilatzen. Aithor-an.

HORTENZA.—Eta hik zeri arthatzen dun, haren belhaun burueri eta haren zango sagarrerri menturaz?

MARGITA.—Igel lehertua.

HORTENZA.—Xixtera zilatua.

MARGITA.—Konprenizan, nahi ninan beste zerbeit.

HORTENZA.—Nik ere nahi ninan beste zerbeit. Bainan gauza bat gaizki hasten delarik ez dun sekulan ongi akabatzen.

(*gerla musika erho bat*)

PALMIRA.—Jazartzea, jazartzea.

(*gerlari bat iduri*)

Jazartzea, gibelerat itzultzen ez den gauza bat da Jendea xutitzen delarik bere buruaren libratzeko, uhain baten pare erhausten ditu gure manazaileak.

(*Arte hortan, beste biak batere ez axolatuak aharrosiz ari dira*).

Jendeak du manatzen. Jendea ere jazartzea da. Jazartzea hasten da beti hasarre batez, zuzentasun gehiago nahi duten jende lehertuen beharraz. Nahi dute berdintasuna, anaitasuna eta gustian bizitzekoa...

Avanti popolo, alla rescossa (kantuz).

Avanti popolo, alla rescossa. (Triumfara, triumfara.

(*Akabatzen du kantatuz Roberto-ren beharrirat*).

(*Margarita eta Hortenza jarriak dira jendeari buruz eta beren buruen tindatzen hasten dira. Gauza nekea da, akigarria, beren burueri so egiten dute alde guzietarat zinkurika eta hasperenka*).

HORTENZA.—Griña bat badinat.

MARGITA.—Zeren eta griñatzen bai hiz?

HORTENZA.—Ez othe da ageri?... arpegiak seko, ahoa mardo eta... oh! zer burua...

MARGITA.—Ez bestaldetan baino gehiago.

HORTENZA.—Gaixtoa duk, ez duka uste?

PALMIRA.—Utz azue bakean. Badakizue, gauza horien gainetik dabila.

HORTENZA.—Erran dun gaisetik ala beheretik?

MARGITA.—Beheretik naski.

HORTENZA.—Griñatzen nuna da, erran badu beheretik, egia ditakela. Orduan ez ez da hein atsegarrikoa.

MARGITA.—Bainan zendako griñatzen hiz? Aldi bat bederen aurkitzen dun hire heineko norbeit.

HORTENZA.—Ederki, konprenitua dinat.

MARGITA.—Konprenitua du. Hola hobe. Nik ez dut konprenitzen. Amodioa, berdin balio du deiturik ere ez da heldu... nahi dugun bezala. Bestela ere nola jin ditake, ez dugu deus egiten hortako.

HORTENZA (*Roberto-ri*).—Ene mutikoa.

PALMIRA.—Ez dun hire mutikoa, jakin-arazten daunat.

HORTENZA.—Orduan, jauna.

PALMIRA.—Ez din balio ere jauna deitzea. Ene mutikoa, sobera dun eta jauna sobera guti. Egiazki ez duzue aise kausitzen hein ona.

HORTENZA.—Aditzen dun?

MARGITE.—Ba hatik! Mesprexatua hiz ongi konprenitzen badut.

HORTENZA.—Ez batere. Hitaz gauza bera pentsatzen din. Biak mesprexatuak gira

(*beren buruak tindantzen dituzte ziliportaka eta thuka*).

MARGITA.—Bainan nahi nakon zerbeit erran...

HORTENZA.—Ba nahi nuen erran: *Roberto*, nahi baduzu joan, zoazi. Guhaur egonen gira, kantatuko dugu Schubert-en Amarraina, atsegabetuak, bainan bederen jakinen dugu zendako.

MARGITA.—Zeren eta ez baitakin.

HORTENZA.—Ba, badakinat eta badakin.

PALMIRA (*Roberto brau xutitzen da eta taulen erdirat joaiten*).

—Bozkarioz gose da eta ohorez. Nahi du izan eta frogatu norbeit onik izaiten ahal dela. Zerbait egiten ahal duela bere bizian.

MARGITA.—Bainan konpreniazu, bizian deneri ez dela izaitea galdetzen. Ez diogu izaitea galdetzen.

HORTENZA.—Bego hola. Aldi batendako mutiko horrek zerbait egiten ahal zuen.

MARGITA.—Bainan erraiten du nahi duela izan eta frogatu norbeit izaiten ahal dela.

HORTENZA.—Bego hola. Aldi baten dako mutiko horrek zerbeit egiten ahal zuen.

MARGITA.—Bainan erraiten du nahi duela izan eta frogatu norbeit izaiten ahal dela.

HORTENZA.—Bego hola.

PALMIRA.—Hori da. Ez dakozue sekulan elhea uzten. Ez du sekulan deus erraiten ahal.

HORTENZA.—Egia da. Kalakariak gira. Denek errana daukute.

PALMIRA.—Denek, zeren eta ez baita lehena?

HORTENZA.—Zertan izaiten ahal norbait lehen? Euskal herriko ixtorian, beribilketan, euskara izkiriartzen denean bes-tetan!!

MARGITA.—Egia da.

PALMIRA.—Bainan erraiten dauzuet nahi duela izan, erran nahi baita aintzina joan.

HORTEZA (*Doalarik mehatxuka Palmira eta Roberto-ri buruz*).

—Izan, aintzina joan, nahi duzea ez aipatu ez dakizuen aintzina joan, bainan horra ideia bat.

MARGITA.—Jarririk da, ihalozka, ixtanteko.

PALMIRA.—Hedailo da, egia da, ez luke behar.

HORTENZA.—Bego egin dezan nahi duena, etxen da edo kasik.

PALMIRA.—Azkenean ez duzue deus besterik bihotzean?

HORTENZA.—Zeren eta orai galdeak egiten baitira?

PALMIRA.—Ba, galdeak egiten ditut.

MARGITA.—Bainan denak makurtuak dira... Ah, ah!

HORTENZA.—Egiazki eta gero ere... Irri egitetik geldituko hizalarik, hire zimurdika itsusi ttipi orai desbixtatzen hituzten horiek kukutuko ditun.

MARGITA.—Bego, goazen.

PALMIRA.—Norat?

MARGITA.—Enekin kurri. Kanpoko aireak ideiak emanen dauz-kigu beren lekuan.

HORTENZA (*Athea debekatzen dio*).—Bainan ez da kanpoko ainerik hemen. Ezagutzen hut, nahi ditun kurritu karrika karioak, bide aphainduak. Joanen hiz, hire ipurdiaren prezio gabeko saltegien aintzinean emaiterat. Hori dena kanpoko airea hirezat? Ez duna ikusten preso hizala mundu ustel histen eta hiltzen ari den batean?

MARGITA.—Bego! ez da etsiarazle hoberik. Ustela denetan ikusten du. Horrekin mendiak ere trixteziaz trenputzar litazke. Horren ttittieri so egizue.

HORTENZA.—Erakutsiko daunat ez dunanen aipatzen.

(*mazelako bat emaiten dio*)

MARGITA.—Egun batez pagatuko dautan.

HORTENZA (*Lasterka, errepikatuz*).—Menturaz, menturaz, menturaz.

MARGITA.—Ba ikusiko dun, ez din luzaz iraunen.

HORTENZA.—Zerek?

MARGITA.—Hire ozarkeriak eta basakeriak.

HORTENZA.—Ez dun biziki hire burua ikusi.

MARGITA.—Eta hik menturaz ez dun hire buruari so egiten mirailetan.

HORTENZA.—Nik ikusten dutanak balio din hik ikusten dunana.

MARGITA.—Ez dun deus ikusten.

HORTENZA.—Nolaz?

MARGITA.—Oilo lanhatua.

HORTENZA (*Urhats bat egiten du*).—Horra! hori ederrena dugu.

PALMIRA (*Roberto-ri*).—Orai goazen.

MARGITA.—Ez zitezte la joan, galdetzen dauzuet. Ez gaitzatzu la utz holako ixtantean nun seriestasuna heldu baitzauku ilhundurarekin.

PALMIRA (*Roberto beso hegaletik tiratuz*).—Gu bagoatzi.

HORTENZA.—Ago hor, utzan bere gisa, ez dun hirea.

PALMIRA (*Oihuka, sumindurik, bainan igitu gabe*).—Beraz, banoa.

MARGITA.—Ez zitezte la joan. Egon zitezte hein bat behar bezala.

HORTENZA.—Hori egia da. Gogoan erabiltzen dutalarik.

MARGITA.—Maiteñoa.

HORTENZA.—Beti deus erran nahi ez duten hitzak.

MARGITA.—Maiteñoa, gu hiruetarik biga sobera dira. Segur niz. Beldurra badut.

(*Musika bitxi bat*)

HORTENZA eta MARGITA (*Eskuak begien gainean zinkurika ari dira*).—Zerua, oh! zerua.

(*Emeki, kolpeka, musika pikatuz, jelgitzen dira, Palmirak zerbeit Roberto-ri beharrirat erraiten duelarik*).

PALMIRA.—Orai beraz pausartea dugu. Bahoia besten ganat bainan sarri ez ahantz berriz jitea. Ez holakorik egin ikusiko duk, libertituko gituk ontsa gero ere. Orduan berriz ethorriko hiz, ikusiko duk, hobekiago izanen duk gero.

PAUSARTEA

Pausartetik landa, hiru emazteak jenden erdirat doatzi lasterka eta Roberto ekar-aratzen bere lekurat.

Beren arropategirat ba doatzi eta beztitzen dira biziki fazoinekin, gau-arropa biziki eder bi piek xilatu batzuez, kazolak hein bat nahasten eta mainhoartegirat joaiten xpilin-gaketa.

«Itzalen baltsa» hasten delarik, beren pildez beztiturik trapu bat buruan, erhatz bat eskuan, hasten dira bazter guzien xahatzen. Margitak xehatzen du Roberto ere, Palmira aldiz doalarik biziki fazoinekin mainhoartegirat mainhu baten har-tzerat. Rosie ahizpen kantua hasten da. Egun guzietako bizia da.

HORTENZA.—Beldurra bahien, segur dun. Ez zunan gaizki baidzik bururatzen ahal. Lau lagun elgarrekin bizi, jende onestak barka, gaizki onhartzen dutenak barka. Eta ba, lau bizi ginen elgarrekin.

MARGITA.—Lau, nombre gaixtoa.

HORTENZA (*Xahutzen ari da, Palmira mainhoarretik ateratzen delarik, Hortenza buruz joaiten zaio mehatxuka*).—Nundik atera hiz?

- PALMIRA.—Mainhoartegitik.
- HORTENZA & MARGITA.—Ez zitela sekulan mainhoarrean ikuz, gero hura ikuztekotan baizik.
- MARGITA.—Denak zikinak, nahasiak dira, oihurik baizik ez da hemen.
- HORTENZA & MARGITA.—Bakarrik niz, nehork ez nu maite. Emazte gaixo bat niz bere gain utzia.
- PALMIRA (*arras usatua*).—Ez zira zure gain utzia, hor niz eta...
- MARGITA & HORTENZA (*oraino gehiago oihuka*).—Ez dezaket gehiago. Ene bihotza badoa. Nihaur niz erhautzirik gaixo...
- PALMIRA (*aintzinean bezala*).—Ez ez zira zuhaur; hor niz eta... (*Bortizkiago mintzatuz*). Nerk haustuak ditu botoila hauek eta hautsia Beethoven-en dizka hau?
- HORTENZA & MARGITA (*Irriz ari zaizkio*).
- PALMIRA.—Nork hustuak ditu botoila hauiek eta hautsia Beethoven-en dizka hau?
- MARGITA.—Ez dugu sekulan bakerik. Bazter guzietarik oihuen barnean gira. Nik zainak eri ditut eta gehiago ez dezaket. Nun dira ene galtzerdiak?
- HORTENZA.—Nik ditinat hire galtzerdiak.
- MARGITA.—Hik ditun ene galtzerdiak eta zer gisaz?
- HORTENZA.—Ba eta hi zer ari hiz hemen?
- MARGITA.—Zer nahi dun, xoxokeria bat hasten delarik behar din bururatu.
- HORTENZA.—Habil haratago, plazer badun.
- MARGITA.—Haratago joanen nun, plazer bazut... Zer ari da?
- HORTENZA.—Ikusten ahal dun.
- MARGITA.—Ez, gaizki ikusten dinat.

HORTENZA.—So egizon hurrenagotik. Eskolatzen ari dun. Anglesa ikasia din, alemana badakin eta beljikanoaren ikas-terat doan.

MARGITA.—Maite dinat erho batek bezala. Egiazki hortaz men-stua nun. Zer othe da ixtant bat amodiorik gabe. Amodioa...

HORTENZA.—Amodioaz badun aski erranik.

MARGITA.—Amodioaz ariko nun plazer bazaut. Hik egin gu-zien ondotik.

HORTENZA.—Zer egin daunat?

MARGITA.—Ba ahal dakin!

HORTENZA.—Bainan ez hiz ohartzen. Galdua hien jendetasun azken mikoradina. Ene senharra ez zunan jelosten ahal baizik. Etxean, gertatzen zautalarik etxean izaitea, begi-tartea keinuez xehatua nindagonan, eskuak ezin atxiki. Maite ninan nik ere, konprenitzen duna?

MARGITA.—Ez zunan hori aski ene etxerat helarazteko eta denak aitortzeko.

HORTENZA.—Hura aldiz, osagarri onean zunan. Eta denbora lasterregi iragaiten. Ez da asterik jendearen bakotxari estekatzeko. Kadina hola lodikoa eta ez du deus balio. Beljikanoa ikasia zuen, alemana berriz ikusten zuen eta italianoari hasterat ari zen. Mein lieber wollen. Sic etwas karruskatu.

PALMIRA.—Milesker. Biziki müde da.

HORTENZA.—Müde da erran nahi baita oinhatua.

MARGITA.—Oh, gaixoa!

HORTENZA.—Bero da. Ontsa zirea?

PALMIRA.—Ba, biziki ontsa eta wie geht es ihnen.

HORTENZA.—Milesker, bego. Gero zer egingo du?

PALMIRA.—Ez da izanen gerorik.

HORTENZA.—Bainan ez duzue konprenitzen, deliberatzen bazinute gero poxi baten izaiterat, denak kanbia litazke. Kanbia gintazke gure izaitean, ibili orden herrestan.

MARGITA (*Taulen gainean zabal zabala*).—Oh, hi hiretako mintzo hiz, ni segurrik ez nun bizian herrestan.

HORTENZA.—Margita maitetia, hi ago hire aldiaren aiduru, nahi duna?

MARGITA.—Arras ontsa.

HORTENZA.—Bazinute kalipu apur bat, atsegin apur bat ez dakit. Emaiten bazinatate alegera iazaiteko, irri egiteko gutizia. Ustekeria banu bestek bezalako bizi bat bizitzen dutala.

MARGITA.—Bainan bizi ximplea dugunaz geroz, behar ditugu hemendik harat izan plazer ximpleak. Erran behar dautzuet arratsaldeak luzeak zirela. Hortenza zer ariko gira? Urratska ari niz aldean beste eta ez dakit zer ariko giren? Sendi dut min eginen dugula... Bipiltzen ari gira emeki. Sekulan oren xuxenik. Arrats batzuz goizeko bederatzi orenetan etzaten gira, beste egun batzuz ez gira gau guzian oheratzen. Gure burueri kasu egiten dugu. (*Palmira ari da gelditu gabe keinuka Roberto-ri, nahi du eremanarazi... beste norapeit...*). Norat ari zirezte zuek bigak?

PALMIRA (*Harritua*).—Nihorat ere, eta zuek norat ari zirezte?

MARGITA.—Nihorat ere.

HORTENZA.—Lauak ari bagira nihorat ere, ez dut ikusten zertako griñatuko giren, helduko gira segur aski goiz.

MARGITA.—Aski goiz eta zendako nahi ginuke jakin.

(*Roberto-ri*)

Zuk ez zazula irrik egin. Gure aharren iturria zu zira. Ez zira ohartzen ere, zainen gainean bizi gira.

HORTENZA.—Ba zainen gainean bizi gira. Ez da hori egitatea.
Badakizu zonbat zainak minbera dituztan.

PALMIRA.—Bainan ez dauzue deusik egin.

HORTENZA (*mokortzen da*).—Preseski hortako dugu erasiatzen.
Behar dugu...

MARGITA (*oraino mokorrago*).—Orai aski. Ene Edixkidea, nahi
dautazu, ezagutzen ez dutan ixtorio eder bat kundatu.

HORTENZA.—Denak ezagutzen ditun.

PALMIRA.—Uzten baduzue, irakurtzen ariko da. Baditu ixtorio
frango irakurtzeko.

(*Beste biak urruntzen dira gogoaren kontra*)

HORTENZA (*ahopetik*).—Kasu eman ixilka zer irakurtzen duen.
Ez dinat nahi gu baino eskolatuagoa izan dadin.

MARGITA.—Hi habil so egiterat pusketarat.

HORTENZA.—Horrekin bakarrik utz hezatan!

(*Ixilik egoiten dira luzaz*)

PALMIRA.—Ez zakozuela hola so egin. Herabetarazten duzue.

(*Xoxoak bezala irriz hasten dira*).

(*Hurrentzen zaizkio. Liburuak gordetzen ditu beldurturik*).

PALMIRA.—Osagarri ona du, badakizue. Ginharren eder-araz-
ten ari da. Ginhar eder-arazten hasi delarik bizia kan-
biatu zaio. Gizonek so egin dakote.

MARITA.—Ez emeztek? Oh, behar ez direnak erraiten ditut.
Ausarta niz eta zuretzat ez dut axolarik.

PALMIRA.—Erran behar denat: arruntzen ari dituk, biziki so-
fritzen duk horiekin. Arratsetan eta berdin egunaren
barnean, ideiak kanbiatu behar dituzte. Xilo batzuek be-
zala edaten dute.

HORTENZA.—Whisky, izarra, udare jus, Mozart ixtant bat.

MARGITA.—Ez Mozart erakats, ba ahal dakin hazteria emaiten dautala.

PALMIRA.—Uzten dituk beren gisa, jasaiten ahal dituzkalakotz eta ere hori maite baituk. Nork ere ez baitu sekulan bekaturik egin bota daukola lehen harria.

HORTENZA (*Harri bat botatzen dako*).—Horra bat.

PALMIRA.—Ene gaixo ttipia, harria botatu dauiete. Ba ahal duk lur huntan norbeit ez duenik deusetan urrikiterik?

MARGITA.—Oh, ba! Lehen minixtroaren emazteak aditzen bagintu ikusten duk zer gerta ditaken. Eta horiek oro hire gatik.

PALMIRA.—To erraiten dauiete orai. Bainan ez dituk ohartzten kanbiatzen, eskolatzen eta izpirituaren biltzen ari hizala. Alta bada gaztexko hiz laneko.

MARGITA.—Prediku horiek guziak fini ote direa. Abia giten.

HORTENZA.—Oh, Margarita. Ago emeki.

MARGITA.—Ez dinat asterik ez dirurik, eta aditua dinat amodioa dirurik gabekoen zinema zela.

PALMIRA.—Barkatu, televixta zela... Irakurtua du: televixta dirurik gabekoen zinema da.

MARGITA.—Hunen kopeta! ausartatzen zaut arrapostu emaiterat. Belhauniko!

HORTENZA.—Belhauniko!

MARGITA.—Phestak orai hasiko dira.

HORTENZA.—Musu emaguzu oinetan.

PALMIRA.—Buluzten gira?

HORTENZA.—Ba.

(Ez dira buluzten bainan alegia ari dira nekatuz. Eztul jenatu batzu. Aire bat aditzen da: «Noizbait ene printzea etorriko da»).

HORTENZA.—Orduan, zer ari gira? Ez dugu batere alegera iduri.

MARGITA.—Hire zangoeri so nindagon, maiteñoa. Zer bitxikeria.

HORTENZA.—Zer dute ene zangoek?

MARGITA.—Meheak ditun, hainbeste meheak, ene gogoarekin ari nun: gaizki hazia edo ala sortzez?

HORTENZA.—Hori ez dun hire egitekoa! Ez dun ar aiz ene zangoez arta hartzerik. Bestela ere ez ditun hireak ikusi. Iduri lukete kanoi mutur batzu eta guti da erraitea.

PALMIRA.—Eta horrek zer egin behar du?

HORTENZA.—Belhauniko, zoazi neskatzar horren ausikitzerat eta ekar-erezadu horren zango sagar idorra.

MARGITA.—Musu eman- ezadazu eskuetan eta ene adixkidearenak ausikatzu gustian odoleradino.

HORTENZA.—Ez zadazula musu egin eskuetan, adixkidea; zauri lehenago ene altzorat. Haur bat bezala da. Maitagarria eta herabetua, Gure beldur da.

MARGITA.—Badakin. Irriskatzen du gure gatik bere gisakoa egoitea.

HORTENZA.—Ba griñatua nago. Egun batez beharko dakiot ama elekatu.

(Musika bat hippie aire hastean, badoatzi buru galdu batzu bezala oheradino eta ekartzen dute ohea musika pikatuz taulen erdirat, uzkailtzen dute jendeari buruz eta pipatzen hasten zigareta drogatu bat. Begitarteak miresten zaizkiote. Batek besteari emaiten dio zigareta).

MARGITA.—Gure ideiak ez zauzkigu ardura berritzen. Laster bururatzen dira.

HORTENZA.—Ez da gure falta besteak bezalako emazte batzu bagira. Zer nahi dun, ez da gure falta ez badugu gauza

haundirik ikusi, ez baditugu ideia largoak, horiek on dira aleman, angles, amerikano arrazentzat.

MARGITA.—Gure jendaki eskualdunetan.

HORTENZA.—Ene jendakian erran nahi dun.

MARGITA.—Gure jendakietan ez dira neskato gazte behar bezalakoak amodio trebatuen egin moldean eskolatzen; jestuak doi doa behar den hartan gelditzen dira. Nik, ene senharrarekin ezkondu artean, hamar mutikoz kanpo, ez nuen nehor ezagutu.

HORTENZA.—Gaixoa! Hamar.

MARGITA.—Berdin baziren gehiago. Ez ditut sekulan konduak egin. Izaitez hamabi badira, hori uste dut, zoinekin gauzak seriocki joan ziren.

HORTENZA.—Zer erran nahi dun erraitan seriocki?

MARGITA.—Erran nahi dinat, pena izan zutela, konprenitzen dun?

HORTENZA.—Ba, konprenitzen dinat. Emazte aiseak ez zautan sekulan gustatu.

MARGITA.—Ez zanala otoi hire burua hizan baino bertuteagokoa erakuts, dakinan bezala gazte denboran, denetarik egin ondoan. Mutiko horrek ez hu sinetsiko.

PALMIRA.—Ez, ez zituztete sinetsiko ez bat ez bestea. Orhoit niz Eskualdun gazteriaren batasunean, girixtino populutar Batasunarekin parte egiten zuenean, Mari Sudurluz anderea buru, maite nuen hiru hilabetetarik parte hartzea brain-storming audiovisuels batzuetan, nun bainuen plazerra eta probetxua, musika joiten artzeko, Lekunberriko musikako ikasle ohiekin, denak gizonkiak, jende motan hoberena. Orhoit niz, maite nuen bereziki Wladimir Behazta, piano joile eskualdun beltz bat izenak emaiten duen bezala; emaiten zituen berogai-ta hiru aldapenak, 123-garren, 124-garren, 125-garren, 126-garren, 127-garren, 128-garren, 129-garren, 130-garren, 131-garren, 132-

-garren, 133-garren, 134-garren liburuetarik eta ez ditut denak erraiten, Pepe Lopepek eginetarik.

PALMIRA (*segida*).—Ah! Pepe Lopepe! hura gizona zen... ez Pepe Lopepe bainan Wladimir Behazta. (*Nigarrez hasten da*).

(*Bet betan xutitzen dira iduri eta zer nahi egingo, zainek hartuak eta zerbeit gertatu balitz bezala*).

HORTENZA.—Nahi duzue whisky, soda, izarra, moskatela, berdin musika Mozart? Nahi duzue whisky, soda, izarra, moskatela, berdin musika Mozart? Nahi duzue...

(*Lasterka dabilta alde guzietarat*)

MARGITA.—Mozart emaiten dut... Mozart emaiten dut... Mozart emaiten dut...

PALMIRA.—Nahiago luke Vivaldi, nahiago luke Vivaldi, nahiago luke Vivaldi...

HORTENZA.—Vivaldi doi doia aditua duk. Eta behar luke batzuetan orainko musikarieri behatu, hi! hi!

MARGITA.—Kalbario egiazko bat bizitzen dugu, dirurik gabe, amodiorik gabe.

HORTENZA.—Juan den egunean, karrikan nintzan. Angleterrako erregina iragaiten zen gure Errepublikako buruzagiarekin. Polizeroak milaka ari ziren esku sartaka. Trixte zen, hi, hi...

MARGITA.—Dirurik gabe zer egin?... hea. Bakotxak ahal duen bezala egiten du. Batzu besten gainean gabiltza, batzuek besteak apalduz. So egizue opor horieri, beribilak ezin geldiaraz nahi den denbora eta nahi den lekuan.

PALMIRA.—Beribilak ezin geldi araz. Hori baizik ez balitz. Eta udaleak egiteko eta oinkailuak emaiteko eta loreak ez loretzen; bederen euria heldu balitz behar delarik edo iguzkia e zbalitz gordetzen behar ez delarik, gizonak berak ez dira aski ederrak aberatsak direlarik, eta ederrak dire-

larik ez dira aski aberatsak. Gertatzen ere da ez ditenean ez ederrak ez aberatsak edo berdin gizon gabea etxen.

PALMIRA (*segida*).—Eta deneri sinhetsarazten da denak, denak bezalakoak direla. Bainan hori ez da egia: deus ez da kanbiaturik lehen jazarmenduaz geroztik. Beti izan dira zoroak eta besteak. Gobernua ez da dirudun meta bat baizik. Ez gituzte errezebitu nahi.

MARGITA.—Zer mundua! Eskualdetan badira beti familia onak. Aitortuko daunat: ez nun familia onekoa.

HORTENZA.—Ez dut sekulan ikusi holako mundu ustelik eta makurrik. Oraino dirua kurritzen balitz gure sakoletan.

MARGITA.—Eta ez da kurritzen. Bethi berek dute.

PALMIRA.—Ba preseski hori langile seme zen. Eta ez du sekulan beste zerbeit bilakatzeko ahalik izan.

HORTENZA.—Ez.

PALMIRA.—Ba.

MARGITA.—Ez ote dea hori izigarrikeria.

HORTENZA.—Ene gaixo muttikoa! Min egiten dagoku. Ah, gaixoa. Whisky, soda, muskatela.

PALMIRA.—Zertako lanean ariko da? Biziaren irabazteko. Deus besterik? Hoin gutirendako biziak balio othe du bizi-za? Nun da ametsa?

MARGITA.—Ba, nun da ametsa?

PALMIRA.—Ametsa! ha, ha...

MARGITA.—Ez da ametsik, hi, hi...

PALMIRA.—Dirua eskastu da. Gosea agertu da.

HORTENZA.—Erle tegi bat bezala burrunban den lantegian, gaixoa nigarrez ari da lanean zeren eta aitaxi hil zaio zakur eztuletik. Bera gelditzen da hamasei haurren hazteko eta Pettiri oinetako berritzen ari da. Elhurra da

eta segurra denbora hotza da. Aberats umentzat jostean, nekattoak senditzen ditu erhiak hozten eta sabelean go-seak sofriaratzten duenean sortzen zaio biharamunaren beldurra.

(kantuz ari da)

Egun ala gau beti lanean

Eta kasko zuriak aldean

Beti jende haundia gogan

Josten dit uarropak abian.

Arrats ala gau berdin aintzina

Ilhunean iduri sorgina

Laster erosteko bildotx muina

Ta xingarra kasko zuriena.

PALMIRA.—Hiru emazte gaixo, burua galdurik ukamilak tinkatzen dituzte eta gudukatzen zaflutzen dituen bizia. Pif, paf, pof, eta norat etortzeko?

MARGITA.—Norik erranen zien baliatuko nintuela piano joi-teko eta musu ukaiteko egin erhi horiek?

HORTENZA.—Eta lanerat joan nintzan.

MARGITA.—Lehenik joan nintzan. Ah, lana (*Alegia Marie Chantal*). Nola zueri konpreniaraz lana?

HORTENZA.—Ez zanala denborarik gal, konprenitzen dugu hitz erdiz.

MARGITA.—Badakin nola nizan: biziki eskolatua eta jakitate haundikoa.

HORTENZA.—Ez zanala deusik emenda.

MARGITA.—Bainan ez dinat paperrik frogatzeko. Hatzemaiten ahal ninan lana jende haundiekin neskato, mekanikaz izkiriartzten, kaseta haundi batean irakurle, zinema haundi batean bortazain.

- HORTENZA.—Lan haundirik baizik ikusten dinat... gauza torra-
-zen zunan sobera neke hastean.
- MARGITA.—Oh, ba dakinala. Gaixo ttipia, goizeko sei orenetan
uzten ninan.
- PALMIRA.—Oh, gaixo ttipia.
- HORTENZA.—Eta hire lekua bero beroa hartzen ninan... orai
ez dun besterik, hirietako apho armatu bat bezala zei-
harka erabiltzen nun, etxe batetarik besterat, odola bu-
rurat heldu zaute! Jeloskeriak bihotza jankatzen zautan.
- MARGITA.—Egia erran behar da, Españolikek eta Eskualdun-
tsek sudurretik lana edekitzen daukute.
- HORTENZA.—Grinatzen nuena, aithortzen daunat lanean aririk
ere erho bat bezala, beldur nun ene diru meta hurtu on-
doan, ez nizala berriz sekulan aberastuko.
- MARGITA.—Gure bihotz zaurituetan sartu da jenden arteko gu-
duaren ezagutza. Langileriaren gudua. Hortenza.
- HORTENZA.—Langileria, Margita.
- MARGITA.—Langileria matatua, Hortenza.
- HORTENZA.—Torra dezagun Margita. Egun batez matatuko
ditinau (*kantatzen dute: «Ah ereman, ereman, ereman ma-
nazaileak oro preso»*).
- PALMIRA (*Heien artean iragaiten da ari direlarik makurturik
torran*).—Nola zirezte?
- HORTENZA.—Milesker. Biziki ontsa.
- PALMIRA.—Eta lana?
- HORTENZA.—Milesker, Margitak lau oren egin ditu ogi egilearen
emaztearen etxean. Nik zortzi kargudun baten etxean.
Ikusi behar da nola jendeño horiek erabiltzen gituzten,
manuak emaiten dauzkuten, eta ez daukuten agurrik ere
egiten guk garbitu eskalerrak jeusten dituztelarik.

MARGITA.—Altabada egin ahalak egiten ditugu heientzat, gure buruaren errespetua erakasten diogu, entsegatzen gira kasu egitea heien jendakieri, heien sutegi gain zikineri, heien larruaren ondoko oihaleri eta gainean dutenaren gutienik garbienari eta heiek ez so hunkigarri bat ere guri.

HORTENZA.—Hunkituak, zendako litazke hunkituak pagatzen diguztenaz geroz.

MARGITA.—Gaizki da biziki gaizki; eskandala bat da. Hemen diot deneri emazte torrazalen paga ez da behar lukena.

HORTENZA.—Ba beheregi da.

MARGITA.—Eta oraino beherago kokorikarazten gituzte.

HORTENZA.—Ba horiek denak beheregi dira.

MARGITA.—Nahi duna ez mutiko horri sobera hurrendu?

PALMIRA.—Ez bego. Ez oihurik egin, plazer badun?

MARGITA.—Bego hortan... Ostiralea ene egun maitena.

HORTENZA.—Lo egiten ahal da berant biharamunean. Ibiakoi-tza pausu dun.

PALMIRA.—Badu oraino biziki lan. Behar du egin oraino oren bat angles, oren bat alema, oren bat italiano, oren bat beljikano, oren bat erdara, oren bat zuedano eta orai diska bat emanen du.

(Hoffmann ixtorioak 3º zatiko kantua: Huna gondolak... Barcarolles airea eta duelaren aintzinean).

HORTENZA.—Burua galarazten daukun.

MARGITA.—Egun batez manatuko dauku.

HORTENZA.—Bainan nun hatzemaiten ditu horiek oro?

MARGITA.—Arimak ba othe ditu bihurgune batzu arrazoinak argitzen ez dituenak? Besten izaitea, besteak badirea?

HORTENZA.—Batzuetan haize zirimolak denak erhausten di-tuelarik, ahanzten ditu ontsa hetsi xarak bizia sortzen eta

loretzen denetan eta xiloak kafia xoriak egiten duenetan, arratsaldea ilhuntsen delarik.

(Ohearen gainerat doatzi besoak kurutze iduri bi arrano bipilduak).

MARGITA.—Hersturazko orenak. Amurraina zalapartaka ari da arima herraturik. Deus ez den barne batean, hiru emazte, usaiek koropilaturik, itzalak gudukatzen dituzte.

HORTENZA.—Italak!

PALMIRA.—Zer?

MARGITA.—Dudak.

PALMIRA.—Zer?

HORTENZA.—Odeiak.

PALMIRA.—Zer?

MARGITA.—Dudak. Bizia dudaz eta bizkarrez bethea du.

PALMIRA.—Bizkarrez?

HORTENZA.—Bizkar itzuliz eta behatu nahi ez duten jendez.

MARGITA.—Beha zazu, ez da gehiago hola joaiten ahal. Zendako erasiatzen gituzu? Ez duzu ikusten ahul eta galduak girela?

PALMIRA.—Bainan ez zituzte erasiatzen, horrek.

HORTENZA.—Zure hor izaita betiereko erasia bat da.

MARGITA.—Biba hi. Hire mihia eta mintzairera paregabeak ditun.

HORTENZA.—Ez duzea ikusten aphaltzen eta ez deusten ari girela, molderik gabeko sendimendu batean?

MARGITA.—Barkatu...

HORTENZA.—Hik bakea eman.

MARGITA.—Hori ez dun berdin. Badakin mintza hakio denborarik galdu gabe. Eginen dakonat gero ene prediku ttipia. Bainan has hadi berehala. Ene argiak ilhuntzerat doatzin. Gauza andana bat badakonat erraiteko. Goizean iguzkia jeikitzen delarik izar ihintzez estali baratzetan...

HORTENZA.—Bakea eman. Ene adixkidea beha nezazu... denbora sobera laster iragaiten da. Hori segurra... bainan segurrago dena da ene burua arras ezindua sendi dutala ardura.

MARGITA.—Zertako hiz ezindua?

HORTENZA.—Nik dakita? ... Zeren eta bizi nizan mundu hau ez baitzaut gusta, puach! (*Besteri egiten du pouah... eta bestek berdin egiten dakote*). Zeren eta ez baitaut aski kasu egiten.

PALMIRA.—Menturaz.

MARGITA.—Ez da menturarik, segur da.

PALMIRA.—Ez zitezuela beti horren ganat jin. Akitarazten duzue.

HORTENZA.—Behar nuzue konprenitu.

PALMIRA.—Burua altxatzen du.

MARGITA.—Ba, behar gituzue konprenitu.

PALMIRA.—Erran duzu: behar gitutzu konprenitu!

HORTENZA.—Ba arras dohakabea niz, azkenean hein bat dohakabea. Gauaz ez dut gehiago lo egiten. Orobat ez dut gau guziez lo egiten.

MARGITA.—Segurki?

HORTENZA.—Ez dun segurkirik... Izigarriena, ikusten dun, ene ustez ona hiz.

PALMIRA.—Egiazki?

HORTENZA.—Ba! Ni ere ona nun. Margita ere, hik uste ez izanik ere.

PALMIRA (*Athehari egoki den bezala, ixtorio eraile bat iduri*).—

Andre maita, milesker. Hitz horrek egiazki plazer egiten daut. So egizu, ni ere, ez niz beti urus. Enoatzen niz eta gero gogoetatzen dut behar nukela zerbeit egin, gizona agertu...

MARGITA.—Gizona, gizona da. Ba ahal dakin. Guk ere funtsean. (*Irriz hasten direlarik, Palmirak dundun kolpe bat emaiten du*).

PALMIRA.—Asea niz. Nahi dut joan, nahi dut izan.

MARGITA.—Beti behar da pagatu bizi huntan.

PALMIRA.—Aski pagatzen ahal dut naski?

HORTENZA (*Aparkan sartzan da hura ere*).—Segurki bainan amodioaz zer kasu egiten dun? Konda dun amadioa ere.

PALMIRA.—Hortaz amorostuak zireztea zuek? Ah, ez duzue ihardesten, ikusten duzue. Xikanatzen duzue, jostatzen zirezte. Zuen adimenduaren janaria da.

MARGITA.—Bon, orai ene aldi.

PALMIRA.—Hik bakea emakon.

MARGITA.—Ez dakot elhe emaiteko dretxorik?

HORTENZA.—Utz-ezan bere gisa.

MARGITA.—Ez ez dut bere gisa utziko. Hori haundixkoa dugu. Jenderi bizia andeatzen du, denak erhoarazten ditu. Samurarazten gITU hi eta ni, munduko adixkiderik hoberenak.

HORTENZA.—Egiazki! Hor espantuka ari hiz.

MARGITA.—Ez niz espantuka ari. Denak emaiten diozkagu eta horrek zer emaiten dauku. Bere gorputz mehaila berdin. Gaizki perekatzen du. Amodioa gaizki egiten du.

HORTENZA.—Ixil hadi soberakina hiz. Ez dun dretxorik hola korik horri erraiteko.

MARGITA.—Ba segurki badut dretxoa. Ene atseginak beti berdin bero dira. Merkatu hortan enganatua izan niz. Erhutzen ari niz ba egiazki erhutzen. So egizue, erho buru bat dut.

PALMIRA (*Oihuka*).—Eta orduan, uste dun hire erho buruak izitarazten gaituela. Beti erho bat iduri dun.

HORTENZA.—Biba hi!

PALMIRA.—Hire sorgin irria, goizetan kafe-esnea edatearekin. Ez dakin kafe-esnearen edaten, ixurtzen dun, ahoaren bi bazterretarik.

HORTENZA.—Beti errana daunat. Fazoinak baditun bainan ez dun molderik.

MARGITA.—Bainan hori egiten nuen alegerarena egiteko.

HORTENZA.—Nehorek ez daun galdatzen algera izaitea... Munduak ez du hire alegeratasunaren baharrik.

PALMIRA.—Ez bazira kontent berdin zaut. Hemen gira nahi ukan duzulakotz. Aithortzen dut zure bizkar bizi girela, bainan joaiten ahal gira, nahi badut.

MARGITA.—Mininia, bizkarkin mespretxagarria.

PALMIRA.—Manatzen daunat hiru hitz horiek berehala edekitzea.

MARGITA.—Nik, zer erran dut.

PALMIRA.—Erran duzu: Mininia eta bazkatiar, barkatu bizkarkin mespretxagarria.

MARGITA.—Hori erran badut egiazki, batere segur ez dena, ez dira hiru bainan bi hitz: mininia eta bizkarkina, mespretxagarria hor da bizkarkinaren lagun... Mininiak azkenean zerbeit egiten ahal du, bizkarkinaren ere funtsean.

HORTENZA (*Loriatua da, punpeka ari da eta kolpeak kundatzen ditu*).—Schubert-en Amurraina.

(*Amurraina kantatzen du. Flamenko bat. Kriskitunen arrabotsen, Margitaren oihuen, Amurrainaren, Hortenzaren, Palmiraren oihuen erdian dira*).

MARGITA.—Minini horrek jaten du bi emazte dohakaberen dirua. Bizkarkin erromesa bizi da besteren bizkarkin. Baina horien denen orde erran ditake oraino: Zer niz? Minini bat.

HORTENZA.—Zirurika, joan ahala doa erreketan amurra in arin eta alegera.

MARGITA.—Nun niz: Etxean badut bizkarkin bat.

PALMIRA (*Gontzetarik atherarik*).—Ene indar guziez hastio zituztet. Madarikatzen dut aurkitu ziztedan eguna zuek eta zuen ipar gatu madarikatuak. Ez dut gelditzerik izanen zuek ikusi artean ene aintzinean leher egiten.

MARGITA.—Nola niz: erromeski bizi niz.

Nola izaiten ahal niz: minikerian bizi niz, bizkarkintzen ari niz, bizkarkintzekotan niz, arras bizkarkindua niz.

HORTENZA.—Biba hi. Arras, biba hi!

PALMIRA (*Nigarrez*).—Hastio zituztet, hastio zituztet. Deitoragariak zirezte: egun batez karrikan izanen zirezte eta ez duzue deus erosten ahalko nehork ez deuzuelakotz bere burua saldu nahiko.

MARGITA.—Oh ez! neri erraitea holakorik. Aditu dun. Ez dut gaixtakeria jasaiten ahal. Holakorik erraitea emazte ahul bati. Ez hiza ahatge? Neri holakorik egitea. Herresta hori matatuko dut.

(*Beste bigek panpatzen dute Palmira ohearen gainean. Hiltzen ari balitz bezala egiten du, xutituz gelditu gabe. Hortenza itzultzen da alegia arras lanean*).

HORTENZA.—Ederki. Memento hautukoa iragan dugu. Nahi duzue baso bat edan? Whisky, soda, arno sukratua, badut arno sukratua, arras on da arno sukratua, badut arno

sukratua, arras on da arno sukratua. Vivaldi berdin, horra. Laket zauku musika hemen. Ez gira sekulan musikaz asetzen.

PALMIRA (*apazegaturik*).—Funtsean konprenitzen dut. Hori da buen amurraina. Uretik idekitzen duzue eta gero berriz emaiten... Oh ikusia dut, jakinazue, zuen egitearen itsuseria guzia. Behar zinuten amurrairekin bat, arrain bat lekeduna, zuen eskuetan lerratzen zena, zuen jostagailua eta ber denboran zuen atseginen hel burua.

MARGITA.—Ba, haragizko jostagailu lerrakorra.

HORTENZA.—Gauza argi, argitzen eta dirdiratzen duen bat, arrain ikaragarria eta alegera, trixte eta lodia.

MARGITA.—Ba, amodiozko arraina, arrain xuri eta hauskorra, igitzen eta kexatzen dena, buztana eta ezkata erabiltzen dituen. Arrain bat guretako. Amurrairekin bat bizia. Zuen amurraina.

HORTENZA.—Ba, gure amurraina amodioak dirdiratua.

MARGITA.—Nik konduak egiten ditut. Heldu diren bi hilabeteren buruan ezkontza hausten dut, gero esposatzen dut. Bixtan dena, gero nahiko du berehala ezkontza hauts dezatan, horren esposatzeko horrek ere. Bainan sinetsarazten dakot bihur zakion, horren kontra asaldarazten dut.

HORTENZA.—Gaixo haurra denek badakite ene familian guduka ari zirela bizitzeko.

MARGITA.—Haugi, ez hadi samur. Malurus hiza?

HORTENZA.—Ba.

MARGITA.—Ez dun hori izigarrikeria bat. Ni ere malurus nun eta horregatik berdin ontsa nun.

HORTENZA.—Zinez uste dinat ideia ona hukela nereaz beste mutiko batez amorostea. Ba zinez behar huke beste mutiko bat bilatu.

MARGITA.—Ah, Ah!

HORTENZA.—Ikusi karrikan ez denez iragaiten norbeit oraino libro eta izitaraz ez hezakena.

MARGITA.—Halere ez hiz arras egian... Beraz esposatzen dun?

HORTENZA.—Eta ba, ez dun berdin gauza haundirik kanbio izanen.

MARGITA.—Denak baino gehiago maite ninan.

HORTENZA.—Zertako?... Ezkontza hautsiko dut eta gero esposatuko dun.

MARGITA.—Gaixo mutikoa. Bi aldiz ezkondua eta hoin gazterik.

PALMIRA (*oihuka eta nigarrez*).—Ez du nahi ezkondu. Ez du nahi, ez du nahi ezkondu! Ez dut nahi ezkondu, ez dut nahi ezkondu, ez dut nahi.

(*Alegia espos sartzea egiten dute, Palmira jaun espos gisa*).

HORTENZA.—Orhoit niz auzapeztegiak. Goizeko berrogoi-ta hamazazpigarren andere espos gaztea nintzan; aiduru egoiteak arropa zimurtu zautan. Ene gibelean hintzan. Orginak emaiten zuen Schubert-en Amurraina.

MARGITA.—Iduri zaut aire hori hunkigarria dela.

HORTENZA.—Gaixo haurra, ezkontza gauza bat ederra dun. Nola aipa ezkontza?

MARGITA.—Ezkontza? Hola behar bat dea ala gutizia bat? Alde batetarik ezkontza dolu bat da, galtze bat, sekulan izan edo ezagutu ez dutan gauza bat, norbeit nerea, lagun bat, plazer bat.

HORTENZA.—Ezkontza bat sendimendu hainitzekin, arropa xuri xuria, ametsak gogoan, artzainak zueri so beren arthaldean aldean, espos segizalek ogiz kukutu alhorrak iragaiten dituztelarik bide bazterretan burupilak lili eta jendaki guzia bildurik, elgarri so irriño bat ezpainean. Ezkontza, phesta, kantuak.

MARGITA.—Kantuak izaiten ahal ziren onduan.

HORTENZA.—Kantuak izan ziren.

MARGITA.—Xiolak huxtuz ari ziren, xirribikak kantuz eta arboleen kaskoan haize arin batek igiaratzen zituen hostoak ezteki.

PALMIRA.—Ez, ez dut nahi. Ez dure nere burua, nere burua baizik maite, nere izaitea eta nere gogoteak. Besteri nahastikatu, partikatu, eman gabe eta oraino zer, zer eman? Ez lehenago bakarrik geldi bakean, eta nere gain, unhadurak eta errabiak kurkulduz emeki emeki, aldaxkak su bazterrean kestatzen diren bezala.

HORTENZA.—Hartu ginuen kanbera bat bi oherekin. Kanbera haundi bat zen, leiho ez sobera haundi batekin. Kaidera baten gainerat iragan behar zen ikusteko karrikan plastika lantegi bat. Ez zuen sendimendu haundirik sor-arazten bainan sendimenduz bethea nintzan halarik ere. Bere liburuak ekarriak zituen. Española eta Portugesa ikasten zituen.

(Palmirak eskuak ikuzten ditu buluzten direlarik emaiteko gauazko purtxileriazko beztimendu batzu).

PALMIRA (*kantatzen du*):

—Asmatu nuen

Ederra eta gotorra

Zorigaitzez da herbaila

Mendrea eta kunkurra

Ez du otsoaren indarrik

Sekulan ardietsi primarik

Ez da holako barerik

Bainan hura dut maite.

PALMIRA.—*Roberto* urus hiza ezkonduz geroz.

PALMIRA.—Zertaz urus?

HORTENZA.—Ezkondua izaitez. Ez da besterik elkorra, da, denak behar zaitzko errepikatu.

MARGITA.—Ez hiza ohartua elheka ari hizalarik beharrietan emaiten dituela tapagailuak.

HORTENZA.—*Roberto* galdatzen deat urus hizanez?

PALMIRA.—Tirrit.

MARGITA.—Maiteñoa ez niken nahi geldiarazi hire eztei ondoa bihotza zorionez betetzen dautana bainan doi doia aipatu dun kanbera bat bi oherekin. Nun lo egingo dun?

HORTENZA.—Bainan ohe huntan.

MARGITA.—Eta horrek?

HORTENZA.—Ohe huntan edo hortan.

MARGITA.—Eta nik?

HORTENZA.—Ohe huntan edo...

MARGITA.—Ez nuen beste beldurrik. Oraino baztertzen naute Egiazki hori ederrena dugu, ez da holakorik gerthatuko.

PALMIRA.—Bixtan hola, bizia ez da errexten. Lehenago aiseago zen, bakoxtak baginuen gure kanbera. Hi kanbera batetik besterat ibiltzen hintzan, orai ezkonduz geroz serio-sago da.

(Margita arras samurtua da)

HORTENZA.—Ezkontza gauza sakratua da, Margita, ez ahantz.

MARGITA.—Berdin bainan ez dut azteietako pulinda izan nahi. Orduan horrekin lo egiten dun eta nik nihaurek lo egiten dinat!

HORTENZA.—*Roberto*, haugi hunat.

PALMIRA.—Tirrit.

MARGITA.—Ez dut nihaurek lo eginen. Nola nahiz, gauaz hesturen beldur niz. Ene baitan sortzen da miresgarriko mundu bat ametsez eta ustekeriaz egina.

HORTENZA.—Bego, *Roberto*, bego... ez gira akomeatuko.

MARGITA.—Ikusten dun, errana naunan. Gutarik biga sobera dira.

PALMIRA.—Askiko duzue ohe berean lo egitea eta ni besterat joanen niz *Robertorekin*.

HORTENZA.—Nik lo egin pikota horrekin? Sekulan! Lehenago leher egin.

MARGITA.—Ez dut eritasunik bidu nahi nik.

HORTENZA.—Margita, lagunt nezan ohearen pusatzen.

MARGITA.—Sobera igitzen bahiz, urkatzen hut.

HORTENZA.—Entsea hadi, ikuseko. (*Ohea egiten dute*). Horra *Roberto* prest duk.

PALMIRA.—Orduan nola egiten dugu.

HORTENZA.—Hi erdian jar hadi, gu bi aldetan hola ez da jelskeriarik.

PALMIRA.—Eta neretako arroila, milesker! Xiloan lo egiten dut?

HORTENZA.—Atxikiko hugu.

PALMIRA.—Argia hiltzen dut?

(*Ilhun pean dira*)

MARGITA.—Hautemazue atzo telefonak ez nuela lau orenez deitu.

HORTENZA.—Hi orduan! Erraiten ahal da ez ditunala behar orduko solasak.

MARGITA.—Gogoetatu dut telefona makurtua zela. Orduan bel-durturik xuxentzaleak deitu ditut.

(*Besteak ixilik dagotzi*)

MARGITA.—Bainan ez zen makurtua...

(*Ixilik dagotzi*)

Asmazazue astiri batez elgarretaratuak hameka emazte ontsa ikasiak, hiru xerri hiltzale emazte, markisa batzu, zerga pagarazalesa bat, bi basa dukesa. Zoin dira zuen usteko hobekienik emanak?

(*Bethi ixilik dagotzi*)

Nehor... Dukesa ala ez, iduri dute lukinkak, bestek bezala. Egiazki ez du bailo hoin-beste-taradino ahitzea beren buruaren ezagutarazteko. Denak berdinak gira, denak zaku berean emaiteko... Zer ari zirezte?

(*Besteak ilhun pean irriz ari dira*)

Laster! Laguntza!

(*Argia pizten da*)

PALMIRA (*Lasterka taulen gainean*).—Ez dut nahi! Ez dut nahi!
Ez dut nahi!

(*Eta eziturik, hitz bat gabe, beztitzen da eta bere puskek elgarretaraten ditu. Beste bigak arras trixte lastimaturik, xutitzen dira eta emaiten Roberto-ren jargiari buruz*).

MARGITA.—Badakizue, urus izaiterat prest nintzan, bihotz guziaz zure maitatzerat. Ez niz biziki maitatua izan nere bizian. Pasatu dut bizia gauza ergel batzuen ondotik kurri. Urtheak debaldetan iragan zauzkit. Orhoit niz aita amen etxen nintzalarik mutikoak alhorretan lasterka ari ziren eta nik nahi nituen atzeman. Nihaur uzten ninduten. Haizeak belhar punttak buhatzen zituelarik nun nahi gelditzen nintzan, gizonak tinkatzen nintuen azkar-ki neri kontra eta uste nuen aurkitua nuela betieretasuna.

HORTENZA.—Ni ez nintzan ona, oh ez! Aldiz diru gose nintzan eta nahi nituen ardietsi ahal nituen guziak, egite gutiegenarekin. Beldur niz nihaur gelditzea, denek inguruan lekuak husturik eta deus ez izaite ustekeria akitgari horrekin. Badakit, ez dut izaiterik. Ez dut sekulan izan izaiterik.

(*Palmirak hitz bat gabe eskeini diote irinez bethe untzi bat. Hortenza eta Margita kokorikatzen dira*).

HORTENZA.—Gogoa bethe dun: nahi hiena ardietsi dun. Hartu dautan. Ez du hoinbeste itsuskeriari ihardoki. Bere bu-ruaz ahalgetarazi dun. Ez hielakotz izaiten ahal nahiago izan dun neri ideki. Emazte herresta, mamu higikorra, itsusia eta zikina hiz eta izitzen dun.

(Begitartea irinez esaltzen du eta Margitak ere)

MARGITA.—Eta hik, zer uste dun hizala? Nahasia eta arrunta hiz. Horri lotua hiz dirurik gabeko eskale zahar baten pare. Ba ez dun gehiago hirea. Ez dun berdin enea izanen, bainan ez hirea ere.

(Palmirak jaunzten du heietarik bateren ipar-gatua)

HORTENZA.—Beti hastiatu nun?

MARGITA.—Ba hastio hut hik hastio nunan bezenbat eta xifritzen nun nik xifritzen hutan bezenbat. Ago gustian, gizona frango badun eta bat aurkituko dugu oraino izitaraziko duguna.

HORTENZA.—Ez nun beraz sekulan nere gisa utziko? Beti ene ipurditik izanen hiz xakur baten pare hexur baten ondotik?

MARGITA.—Leher egin arazi artino hire ondotik izanen nun. Sofritzen dunalarik, zorionean nun eta zorionean hizalarik nahi dinat hire zoriona funditu.

HORTENZA.—Bixtan dena hortan iragaiten dun denbora.

MARGITA.—Ba hortan iragaiten dinat denbora. Hik ere.

HORTENZA.—Bainan nahi dinat ene bizia berriz hasi, berriz ezkondu.

MARGITA.—Ah, Ah, hik berriz ezkondu? Mentsa hiza, nehork ez huke gehiago nahiko.

PALMIRA.—Barkazaguzue, eskerrak dauzkitziegu guretzat egin guzietaz, denekin urus izan gira.

(Bi emazteak xutitzen dira)

HORTENZA.—Bere xarpa hartu dia?

PALMIRA.—Ez, zendako?

HORTENZA.—Kanpoan hotz da. Ez dut nahi hotz dadien.

PALMIRA.—Eskerrak daukitzugu Anderea.

MARGITA.—Mokanes horiek brodatunak nituen horrentzat... eta esperantza nuen erituko zela, arthatzen ahal izaiteko.

PALMIRA.—Eskerrak daukitzugu Anderea.

MARGITA.—Kasu emazu karrikan. Ez zitela fida lagun gaixtoeri.

HORTENZA.—Karrika bazter batetarik besterat iragaitean kasu beribil ederreri... ez fida emazte sobera kopetatueri eta ederki emaneri; ahal baduzu zure bizia zuhaurek irabaz.

PALMIRA.—Entseatuko da Anderea.

HORTENZA.—Ah, Ahantzen nuen. Ikusten baduzu lehen minixtroaren emaztea —eta egun batez aurkituko duzu hoin zira ederra— nitaz elhe egiozu, errakozu ontsa nizala.

MARGITA.—Ni ere errakozu osagarri hoberenean nizala.

(Xori kantuak aditzen dira... Palmirak segitzen du Roberto bere lekurat. Besteak mainhoarrari buruz doatzi Ixilik egoiten dira luzaz).

MARGITA.—Orein eme bat niz sobera belhar iretsi duena.

HORTENZA.—Lore bat niz denborak histuko duena. Bidea hartuko dut nihaurek, jende haundi batek bezala.

MARGITA.—Orhoit-gailu bat niz harriz, lorez eta lur huntzez egina. Zer balio dute guduek, gudu galtze, irabazte eta orhoit-aratztek, ez dut deus senditzen, hunkitzen ez emaiten. Herriaren alde niz.

(Mainhoarran jartzen dira)

MARGITA.—Uste duna jakitateak mundua gidatzen duela?

HORTENZA.—Ba othe dugu egiazki zerbeit sabelean?

MARGITA.—Eskual Herriak ez othe ditu bi mila urthe galdu:

HORTENZA.—Funtsean mutiko arras maitagarria zen. Zorigaitzez hatza frangotan gaixtoa zuen.


MARGITA.—Ba egiazki ez zen biziki abila, gaixoa.

(Kokorikatzen dira mainhoarraen eta emeki sartzen gorputza espaldak, burua eta bakoak bere aldian azken hatsa emaiten du).

MARGITA.—Ah!

HORTENZA.—Ah!

«Musika hasten da. Kitarrak. Ametsetarik ari dira. Bi emazteak mainhoarretik ateratzen dira, Palmira itzultzen delarik taulen gainerat eta hitzik gabe, jetsu zalhu eta labur batzuz, kanbera antolatzen. Egiazki denak antolatzen dituzte eta gero emeki atheratzen dira gibelka Robertoren jargiari so eginez. Ageri da lehen bai lehen hasiko dutela betiereko eskea).



PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones
Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

**BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País)**

España

Suscripción anual	1.500 ptas.
Número suelto	800 »
Número atrasado	1.000 »

Extranjero

Suscripción anual	1.800 »
Número suelto	1.000 »
Número atrasado	1.200 »

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	500 ptas.
Número suelto	300 »

Extranjero

Suscripción anual	600 »
Número suelto	400 »

**MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales
«Aranzadi»)**

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150 ptas.
Años 1962 y siguientes ...	200 »

Público en general

Años 1949-1962	250 »
Años 1962 y siguientes ...	300 »

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de
Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN



